

## UDALAREN OSOKO BILKURA

### 2017ko martxoaren 2ko Ohiko Bilkura

#### BERTARATUAK

##### ALKATE UDALBURUA

M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

##### ZINEGOTZIAK

###### Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA  
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO  
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA  
IKER AGIRRE BARTZENA  
DIONI ANDRES BLANCO  
IDOIA BLASCO CUEVA  
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA  
XABIER LOSANTOS OMAR

###### Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS  
BEGOÑA JUARISTI LINACERO  
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ  
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN

###### EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA  
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ  
ARITZ TELLITU ZABALA

###### Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES  
ENARA DIEZ OYARZUN  
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

###### Leioako Talde Popularra:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ  
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

##### EUSKARA ITZULTZAILEA

GARAZI BIAIN AND.

##### KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

##### IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

Leioako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren biko arratsaldeko zazpiak eta hiru minutu direnean, Elizate honetako Udaltzaga ohiko bilkura egiteko bildu da, Alkate Udaltzaga M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ andrea izan da bileraren burua eta Idazkari Nagusi Chiara Camarón Pacheco andreak lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek hartu dute parte, eta izatez zein eskubidez Udaltzaga osatzen duten kideen gehiengoa dira. Alkate Udaltzaga andreak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoa eta aipatutako Legearen 21.1.c artikuluan ezarritakoa aintzat harturik, udaltzagak 2013ko ekainaren 27ko osoko bilkuran onartutako eta urte horretako irailaren 23an 182 zk. BAOan argitaratutako Leioako Udal Araudi Organikoaren 22 eta hurrengo artikuluekin ados.

Adierazitako orduan, lehenengo deialdian, Presidentetzak bilkura irekitzat eman zuen, eta jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zioten.

## I.- ERABAKITZEKOAK

### 1.- HURRENGO AKTA HAUEN ONARPENA:

- 22.12.2016ko ohiko bilkura
- 26.01.2017ko ohiko bilkura

Aipatu bilkuren aktak onartzeke daudela esan da eta Osoko Bilkurak onartzeko ezarri dira.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Aldaketa proposamena baino gehiago, behar bezala jasota baitago, gertatu zenaren antzera, azkeneko aktan, azkeneko urtarrileko Osoko Bilkuran. Gure ustez, alkateak adierazitako zehaztasunik eza da eta Osoko Bilkura honetan argitu behar da, aurreko Osoko Bilkuran azaldukoari buruzkoa da eta.

Alkateak gogoratzen badu, diru-laguntzei buruzko eztabaidan, Udalaren diru-laguntzen proposamenetik gure taldeak horietako proposamen batzuekin desadostasuna azaldu zuen. Horien artean zegoen euskarazko errotuluen inguruko gaia, gure iritziz Udalean historikoki partida edo araudia baitzegoen. Izan ere, euskarazko errotuluei aurrekontu handiagoa ematen zitzairen, gutxiago elebidunei eta zero gaztelaniazko. Diskriminazioa delakoan gaude eta modu horretan adierazi genuen joan den Osoko Bilkuran.

Aurrekoari eutsiz, alkateak bere esku hartzean adierazitakoari buruz akta hitzez hitz irakurriko dut: *“...Xabier argitu nahi dizut errotuluetarako diru-laguntzak elebidunak izateko direla, ez bakarrik euskaraz jartzeko...”* Hori da, hain zuzen ere, alkate andreak adierazi zuena. Une horretan, Osoko Bilkuran ohar horrekiko ez genuen oztoporik azaldu, agian, alkate andreak gure taldeak baino informazio hobea baitzuen. Baina Udalaren beraren web orrian kontsultatu ostean, 2016. urtean euskarazko merkataritza errotuluetarako diru-laguntzen araudiak bigarren atalean hala xedatzen du eta hitzez hitz irakurriko dut: *“Laguntza ekonomikoak merkataritzaren errotulu eta eguzki oihaletarako dira, baita merkataritza ibilgailuetan errotuluak jartzeko ere. Gastu guztiaren % 50eko laguntza eta gehienez 350 euro emango da oso-osorik euskaraz idatziak daudenentzat; elebidunei edo, bidezkoa bada, bizkuntza askokoei errotuluaren, eguzki oihalaren edo errotulazioaren gastu guztiaren % 30 emango zaie, gehienez 200 eurora arte”*. Alkateak ikus dezakeenez, gaur egun Udalean indarrean dagoen araudiaren arabera, diskriminazio argia dago kasu honetan, ez bakarrik aske errotulua gaztelaniaz jartzea erabakitzen duen merkatariauren aurrean, baita elebiduna egitea erabakitzen duenaren aurrean ere. Gure ustez politika horrek ez du euskara sustatzen. Nolanahi ere, Alkatetzari eskatzen diogu, Osoko Bilkuran esku hartu baino lehen, behar bezala informatua egotea.

**Alkate andrea, M<sup>a</sup> del Carmen Urbieta González.**

Akta aldatzeko proposamenik ba al duzue? Puntu horretan baikaude, beraz, gero, galde-eskeen atalean euskaraz edo elebidunez eginak dauden errotuluetarako diru-laguntzei buruzko gaia argituko dugu. Zerbait, aktan aldatzeko proposamenik, ba al duzue?

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna, Leioako Alderdi Popularrekoa.**

Lehen aipatu dudan bezala, akta behar bezala garatuta dago eta eztabaidaren garapenari jarraiki azaldu da. Hasieran hori esan dut, hortaz, ez dugu aldaketa proposamenik. Dena den, idatziz jaso utzi nahi dugu alkatearen adierazpen, iritzi, ohar bat dagoela eta errealitatearekin bat ez datorrela, udal araudian egiaztatutakoaren arabera.

**Alkate andrea, M<sup>a</sup> del Carmen Urbieta González.**

Ezin hobeki ulertu dizut, ondorioz, aktarekin ados zaudete. Gero, galde-eskeetan hitz egingo dugu eta esan nahi nuena argituko dut. Ez dakit zehatz-mehatz hitzez hitz zer esan nuen, baina argi dut adierazi nahi nuena.

Ildo horri jarraiki, bi aktak onartu dira.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Osoko Bilkurak, aho batez onetsi zituen 2016ko abenduaren 22an eta 2017ko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkuren aktak, oharririk egin gabe.

### 2.- 2015 ETA AURREKO URTEETAKO GASTU-KONPROMISOAK EDO OBLIGAZIOAK, AITORTUTAKO ESKUBIDE ETA BAIMENEN ARAZKETA-ESPEDIENTEA:

Osoko Bilkuraren onespenera ezarri zen 4. zk. irizpen proposamena, 2017ko urtarrilaren 31ko Ogasun eta Ondare Informazio Batzordea eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak hartutakoa. Dagokion egiaztagiria espedientean jasota dago.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena irakurri eta bozketa eginda, osoko bilkurak hamabi aldeko botoren gehiengoz, Euzko Abertzaleak Taldeko bederatzi zinegotzienak eta Euskal Sozialistak Taldeko hiru zinegotzienak, bederatzi abstentzioekin, Esnatu Leioa Taldeko lau zinegotzienak, EH-Bildu Leioa Taldeko hiru zinegotzienak eta Leioako Alderdi Popularraren Taldeko bi zinegotzienak, onartu egin zuen 2015 urteko eta aurrekoetako gastu-konpromisoak edo obligazioak, aitortutako eskubide eta baimenen arazketa-espedientea, Udal Kontu-hartzaileak emandako txostenean oinarrituz, non 2015 urteko eta aurrekoetako gastu-konpromiso eta aitortutako obligazioen arazketa-espedientean jasotzen diren zenbatekoak jasotzen diren, honako xehakapen honen arabera:

### 1.- GASTUAK. 2016 URTEAN GEHITUTAKO SOBERAKINEN ARAZKETA (AD).

ARLOAK	ARLOAREN IZENBURUA	ARAZKETAREN ZENBATEKOA
3 ARLOA	ARLO JURIDIKOA	2.500,46 €
501 ARLOA	HEZKUNTZA. HEZK. ZENTROAK ETA PARTE	19.814,67 €
502 ARLOA	HARTZEA.	25.800,00 €
6 ARLOA	EKONOMIA SUSTAPENA ETA ENPLEGUA	559,78 €
7 ARLOA	OSASUNA	18.618,18 €
8 ARLOA	HIRIGINTZA	58.859,77 €
9 ARLOA	INBERTSIOAK	64.373,91 €
10 ARLOA	KULTURA	3.746,45 €
11 ARLOA	KIROLAK	0,08 €
	ZERBITZU OROKORRAK	
	<b>GUZTIRA</b>	<b>194.273,30 €</b>

## **2. ARLOA.-Ekonomia Arloa.**

2.500,46 euroko zenbatekoa duen saldo ezeztapena behar da. Guztizko saldoa 2015 urteko bi erretserbari dagozkio, zeinen fakturazioa esleipen-dokumentuetan aurreikusi zen hasierako zenbatekoa baino txikiagoa izan zen eta 1.376/15 zk. eta 2.408/15 zk. Alkatetza dekretuei dagozkie. Lehen kasuan Giroaren aldeko erretserba bat da Pinuetako bulegoko (ondoren Gaztelubidera eraman zena) aire girotuaren mantentzea egiteko, eta bigarren kasuan Lantegi Batuak Fundazioaren aldeko erretserba bat izan zen, prezio bateratuengatik (gutxi gorabeherakoa), Biztanleen Errroldako liburuen digitalizazioa egiteko.

### **501. ARLOA.-Hezkuntza. Hezkuntza Zentroak, hezkuntza ekintzak eta parte hartzea.**

Arlo honetan dauden gastu arazketa guztiak 2015 urteko erretserbei dagozkie eta arloaren jardueraren programazioa (aurreikuspena) eta betetzearen doikuntzagatik gertatzen dira eta, batez ere, parte hartzen duten haurren kopuru erreala da arrazoaia (hasieran ezagutzen ez den datua), aurrekontua eta fakturaren arteko desberdintasunak.

Jarduera bakoitzeko saldo ezeztapenen banakako zerrenda, txosten honen oinarria den soberakinen arazketa-espeditentaren dokumentazioan dago.

Arazketa guztiak bazarrik hiru arloko gastuen programetan biltzen dira: hezkuntza ekintzak, euskara eta balioetan hezteak.

### **502. ARLOA.- Ekonomia sustapena eta enplegua.**

Guztizko zenbatekoa ekitaldiaren amaieran zeuden fakturatu gabeko saldoen arazketari dagokio, 2016ko lehen hiruhilekoko prestakuntza eskaintzarako aurreikusitako ekintzen kontzeptuan, 2015eko abenduaren 17ko 2907/15 Alkatetza Dekretuaren bidez onartu zena. Hau guztia, abenduaren 2ko Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 32. zk. artikulua 4 atalean ezarritakoa betetz, zeinek ez duen baimentzen kredituen ondoz ondoko gehitzea, txostenaren hasieran bertan islatzen den moduan.

13.600 euroko ezeztatzea 1045/16 Alkatetza Dekretuaren bidez onartu zen, Behargintzako Zuzendariaren proposamenez.

## **6. ARLOA.- Osasuna eta Gizarte Ongizatea**

Arlo honetan egiten diren arazketak ohikoak dira bertan egiten diren programa eta jarduera desberdinen kudeaketan eta aurrekontuan jasotakoa eta jardueren benetako kostuaren artean ematen diren doikuntza ezaren artean hainbat jardueretan, hala nola:

- 262,13 euroko zenbateko saldoaren ezeztapena, 170/15 dekretuan onartutako erretserban, "menpekotasunei aurrea hartzearekin lotutako jarduerak egiteko eta materialetarako".
- 160,00 euroko zenbateko ezeztapena, 1.930/15 dekretuan onartutako erretserban, "Hazi eta Hezi 2015". Gastuaren programa: familian esku hartzea.
- 137,65 euroko zenbateko ezeztapena, 2.307/15 dekretuan onartutako erretserban, "Genogramari buruzko ikastaroa, behaketarako eta baloraziorako tresnak". Gastuaren programa: familian esku hartzea.

### **7. ARLOA.- Hirigintza**

Udaleko Hirigintza Arlorako lan egiten duten zenbait enpresari eskatutako zerbitzuei dagozkien zenbatekoak arazten dira edo arloaren gastu arruntak (laguntza topografiko lanetan aurrekontuan ezarritako baino gutxiakongo fakturazioak, erkidegoen gastuak...). Arlo honetan planteatutako arazketa guztiak gastu arrunak dira, eta ondorioz, abenduaren 2ko Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauak ezartzen duena betez, soberakinak behin bakarrik gehitu ahal dira (eta hori egin da 2015etik 2016ra). Hortaz, arauaren arabera 2016ko urte osoan gastua gauzatu ez bada, 16/12/31 dagokion erretserba araztu behar da.

Kontabilitate-eragiketa bakoitzeko saldo ezeztapenen banakako zerrenda, txosten honen oinarria den soberakinen arazketa-espediterearen dokumentazioan dago.

### **8. ARLOA.- Inbertsioak (8/55990)**

Aldizkako gastuen justifikazioen arabera arazketak, aurrekontua-fakturazioaren arteko doikuntza ezatik sortuta, eta baita lizitazioen zenbatekoen eta adjudikazioen amaierako prezioen desberdintasunak ere.

2016 urteari gehitutako soberazko kopuruak dira, 2014 eta 2015 urteetakoak. Zehatz-mehatz:

- 2015/602 eta 603 erreferentzia zk., 608,10 eta 2.425,10 euroko zenbatekoak. Esleipenduna: Limpiezas industriales Morga S.L. 2.488/15 Alkatetza Dekretuak onartutako gastua.
- 2015/710 erreferentzia zk. 28.650,80 euroko zenbatekoa. Esleipenduna: Electricidad Martín. 2.948/15 Alkatetza Dekretuak onartutako gastua.
- 2015/455 erreferentzia zk. 14.234,64 euroko zenbatekoa. Esleipenduna: Leioa- Artea ABEE. 1.787/15 Alkatetza Dekretuak onartutako gastua.
- 2015/714 erreferentzia zk. 4.114,00 euroko zenbatekoa. Esleipenduna: Ambytecno S.A. 2.954/15 Alkatetza Dekretuak onartutako gastua.
- 2015/486 erreferentzia zk. 4.767,10 euroko zenbatekoa. Esleipenduna: Sarriko Obras y Servicios Bizkaia. 2.060/14 Alkatetza Dekretuak onartutako gastua.
- 2015/689 erreferentzia zk. 103,33 euroko zenbatekoa. Esleipenduna: Idegis Electroquímica S.L. 2.832/15 Alkatetza Dekretuak onartutako gastua.
- 2015/442 erreferentzia zk. 3.630,00 euroko zenbatekoa. Esleipenduna: CC3M Cloud Cantábrico s.XXI. 1.760/15 Alkatetza Dekretuak onartutako gastua.
- 2015/607 erreferentzia zk. 60,50 eta 266,20 euroko zenbatekoa. Esleipendunak: LKS Ingeniería S.Coop. eta Entecsa Bilbao, hurrenez hurren. 2.490/15 Alkatetza Dekretuak onartutako gastua.

### 9. ARLOA.- Kultura

Arazketa arruntak, aurrekontu/gastuaren aurreikuspenaren eta fakturazioaren azken zenbatekoaren arteko doikuntza eza puntualetik sortuak. Xehakapena atxikitako dokumentazioan, 64.373,91 euroko guztizko zenbatekoa.

### 10. ARLOA.- Kirolak

Arazketa arruntak, aurrekontu/gastuaren aurreikuspenaren eta fakturazioaren azken zenbatekoaren arteko doikuntza eza puntualetik sortuak. Xehakapena atxikitako dokumentazioan 3.746,45 euroko guztizko zenbatekoa.

### 11. ARLOA.- Zerbitzu Orokorrak

0,08 euroko zenbateko arazketak.

#### **2.-DIRU-SARRERAK. AITORTUTAKO ESKUBIDEEN ARAZKETA (AE) (ITXIAK)**

Udaleren aldeko aitortutako eskubideen arazketa, baja-espeditenteen arabera Diru-biltzaile Exekutiboaren proposamenez (euren espeditenteen lauhileko onespenetan sartuak), Ogasun eta Ondare Arloaren proposamenez edo hasieran onartutako diru-laguntzen justifikazio txikiagoagatik.

PARTIDAK	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
<b>1 Kapitulumua</b>	<b>Zuzeneko Zergak (a)</b>	<b>103.854,15 €. (guztira)</b>
112.01.00	ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA (landa eremua)	14,15 €
112.02.00	ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA	22.976,04 €
112.02.01	ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA - ITXIAK	4.468,18 €
113.00.00	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA IMPTO.	22.405,95 €
114.00.00	HIRI-LURREN GAINEKO ZERGA	13.093,84 €
130.01.00/01	JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA	40.663,80 €
190.01.00	SALTOKI ITXIEN JARDUEREN GAINEKO ZERGA	137,01 €
190.06.00	HIRI-KONTRIBUZIO ITXIAK	95,18 €
<b>2 Kapitulumua</b>	<b>Zeharkako Zergak (b)</b>	<b>161.532,04 €. (guztira)</b>
282.00.00	ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBRETAKO ZERGA	161.532,04 €
<b>3 Kapitulumua</b>	<b>Tasak eta beste Diru-sarrera batzuk</b>	<b>7.124,22 €. (guztira)</b>

	<b>(c)</b>	
310.01.00	ZARAMA BILKETAKO ZERGA (*)	1.589,66 €
310.02.00	ESTOLDERIA ZERBITZUA (*)	1.646,90 €
310.03.00	HILERRIA	121,00 €
310.10.00	KIROL INSTALAZIOETAKO DIRU-SARRERAK (*)	804,27 €
311.01.00	ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO LIZENTZIA	465,20 €
312.01.00	HIRI-LIZENTZIAK	160,64 €
312.01.01	ESTOLDERIA TASAK. SUTEAK.	314,37 €
321.02.00	KIOSKOAK- BIDE PUBLIKOA HARTZEA	62,70 €
321.03.01	EDUKIONTZIAK – BIDE PUBLIKOA HARTZEA	62,15 €
321.04.00	MAHAIK ETA AULKIAK- BIDE PUBLIKOA HARTZEA	74,44 €
321.05.00	POSTU IBILTARIAK ETA BARRAK- BIDE PUBLIKOA HARTZEA	363,66 €
322.01.00	APARKALEKUAREN ERRETSEBA. IBILGAILUEN SARBIDEA	660,48 €
341.01.00	SAKONETAKO KIROL INSTALAZIOAK	20,66 €
393.00.01	BERANDUTZE-INTERESAK. ITXIAK	78,13 €
399.11.00	ZARAMAREN GAIKAKO BILKETA, PAPERA, KARTOIA, PILAK.	699,96 €
<b>4 Kapitularua</b>	<b>Transferentzia arruntak (d)</b>	<b>59.955,76 €. (total)</b>
400.01.00	ZERGA EZ ITUNDUEN PARTE HARTZEA	757,31 €
410.02.04	EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA HEZK. ZENTROAK	5.223,87 €
410.03.00	EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA GIZARTE ZERBITZUEN ARLOARI	0,05 €
415.01.02	LANBIE DIRU-LAGUNTZA- EKONOMIA SUSTATZEA ENPLEGUA SORTZEA	30.189,18 €
415.01.03	LANBIDE DIRU-LAGUNTZA- ENPLEGU ORIENTAZIOA	20.400,00 €
419.01.00	KONTSUMOBIDE	3.385,35 €

	<b>GUZTIRA</b>	<b>332.466,17 €</b>
--	----------------	---------------------

- (a) Ia bere osotasunean Diru-biltzaile Exekutiboaren kontuan 2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan onartutako bajei dagozkie, hurrenez hurren, 2.105/2016 eta 3042/2016 Alkatetza Dekretuen bidez onartutakoak. Gainerako bi espedienteak 13/2016 eta 1/2016 zerrendetan sartutako errentetako zuzeneko bajak dira, 3.226,58 euroko eta 87,70 euroko zenbatekoak, hurrenez hurren. Kasu bietan 2015 urtearekin lotutako espedienteak dira.
- (b) 2016ko martxoaren 29ko 702/16 Alkatetza Dekretuaren bidez, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan 158.500 euroko baja onartu zen. Guztizko zenbatekoa espediente bakarrari dagokio, zehatz-mehatz, Energiaren Euskal Erakundeak District Heating and Cooling-en ekipoak gordetzeko Zientzia Parkean eraikin bat egiteko emandako obra-lizentziari uko egiteko eskaerari.

Aipatutako espedienteak 2012ko apirilaren 2an erakunde autonomoak tasa-kontzeptuan egindako zebatekoaren ordainketa itzultzea ekarri zuen. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantzaren 4. zk. artikulua arabera tasa hori eraikuntza, obra edo instalazioaren kostu errealari 0,5eko ehunekoa aplikatuz ezartzen da.

161.532,04 euro arteko zenbateko osagarria, 2016ko bigarren hiruhilekoan Diru-biltzaile Exekutiboaren kontuan sartutako espedientei dagokie, 2016ko irailaren 14ko 2.105/2016 zk. Alkatetza Dekretuaren bidez onartutakoa eta hirugarren hiruhilekoan, 3.042/2016 Dekretuak onartutakoa.

(c) Gainerako tasen bajak – 3 kapitulu- diru-biltzailearen kontuetan edo errenten zerrendetan behar bezala onartuta daude. Ezeztapenen guztizko zenbatekoa 7.124,22 eurokoa da.

(d) Leioako Udala kontzeptu desberdinengatik aurkeztu den diru-laguntzen deialdietako likidazio negatiboetatik sortutako murriztapenci dagokie: ikastetxeetako obrak, enplegu programak, kontsumoa..., azkenean hasieran aurreikusitako zenbatekoa baino gutxiagotik justifikatu direnak.

La minoración por importe de 757,31 euros en la partida presupuestaria 400.01.00 se corresponde con una retención derivada de la liquidación negativa correspondiente al año 2013 de los tributos no concertados en los que participa el Ayuntamiento de Leioa.

<b>EUSKARAREN ERAKUNDEA- ERAKUNDE AUTONOMOA</b>
---

1.- **GASTUAK.** 2016 URTEAN GEHITUTAKO SOBERAKINEN ARAZKETA (AD).

<b>PARTIDA</b>	<b>PARTIDAREN IZENBURUA</b>	<b>ARAZKETAREN ZENBATEKOA</b>
33501/480.02.95	Euskara Zerbitzuak; Euskara ikasteko laguntzak	12.441,34 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>12.441,34 €</b>



**SOINU ATADIA- ERAKUNDE AUTONOMOA**

1.- **GASTUAK.** 2016 URTEAN GEHITUTAKO SOBERAKINEN ARAZKETA (AD).

PARTIDA	PARTIDAREN IZENBURUA	ARAZKETAREN ZENBATEKOA
92000/480.00.95	Administrazio Zerbitzuak; Ikasleen beka	0,02 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,02 €</b>

2.-DIRU-SARRERAK. 2016 URTEAN GEHITUTAKO SOBERAKINEN ARAZKETA (DR/).

PARTIDA	PARTIDAREN IZENBURUA	ARAZKETAREN ZENBATEKOA
343.33.00	Ikastaroak- Logse erdia, 3. zikloa (*)	5.866,60 €
410.01.00	Lurralde erakundeen diru-laguntza	79,59 €
480.01.01	Familien ekarpena Kantika birari (**)	500,00 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>6.446,19 €</b>

**3.- KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA ETA DIRUZAINTZAREN TXOSTENAREN LABURPENA, UZTAILAREN 5EKO 15/2010 LEGEAK, MERKATARITZAREN ERAGIKETETAKO BERANKORTASUNAREN KONTRAKO NEURRIEI BURUZKOAK EZARTZEN DUENA BETEZ, BAI ETA 2016KO LAUGARREN HIRUHILEKOKO BETEARAZPEN EGOERA, AURREKONTUAREN EGONKORTASUNAREN BETETZEA ETA GASTUAREN ARAUA:**

Osoko Bilkuraren onespenera ezarri zen 5. zk. irizpena, Ogasun eta Ondare Informazio Batzordeak eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia 2017ko urtarrilaren 31n hartutakoa. Dagokion ziurtagiria espedientean dago.

Ikusita Kontu-hartzaitza eta Diruzaintzaren txostenak, uztailaren 5eko 15/2010 Legeak, merkatariza eragiketetako berankortasunaren kontrako neurriei buruzkoak ezarritakoa betez.

### ORDAINKETA EPEAK

Txosten horietan, besteak beste, **2016ko LAUGARREN HIRUHILEKOAN** guztira **1482 faktura** egon zirela esaten da, 4.141.895,95 euroko zenbatekoarekin, eta 1.453 faktura epe barruan ordaindu dira 4.071.223,42 euroko zenbatekoarekin, hau da, % **98,29**.

Epez kanpo ordaindutako 29 fakturretatik (zenbatekoaren %1,71), 23 faktura epez kanpo heldu ziren ekonomia arloran, hau da, %1,61.

Diruzaintzan dauden hornitzaileei egindako ordainketa likidoetatik honako datu hauek atera dira:

	EPEAN	EPEZ KANPO	<i>Epez kanpoko ordainketa</i>	<i>Epez kanpo oniritziak</i>
	Epe barruan	Epez kanpo		
<b>FAKTURA KOPURUA</b>	<b>1.453</b>	<b>29</b>	23	6
<b>Zenbatekoa</b>	<b>4.071.223,42€</b>	<b>70.672,50€</b>	66.506,80€	4.165,70€
<b>Ehunekoa</b>	<b>98,29 %</b>	<b>1,71 %</b>	1,61 %	0,10 %

Tutoretza finantziarioa duen organo moduan Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazitako bigarren hiruhilekoari dagokion ordainketa global kontsolidatuaren batez besteko epea (Udaletxea -17,87, Soinu Atadia\*-12,79 eta Euskararen Erakundea\*\* -23,57) -17,87 egunekoa da.

Honek esan nahi du faktura bat Leioako Udalak horretarako prestatutako erregistroan sartzen denetik ordaintzen den arte, bakarrik pasatzen dira 12 egun.

Gogora dezagun gaur eguneko legediarekin 30 egun daudela erregistratzen denetik oniritzia ematen zaion arte eta beste 30 egun oniritzia jasotzetik ordaintzen den arte.

Leioan, **2016ko laugarren hiruhilekoan**, prozesu osoa 60 egun posibleetatik, **12 egunetan** burutu da.

(\*)*Soinu Atadia: 70 faktura ordainduta, 81.754,92 euroko zenbatekoa. % 99,91 epe barruan ordainduta.*

(\*\*) *Euskararen Erakundea: 50 faktura ordainduta, 29.557,77 euroko zenbatekoa. % 100,00 epe barruan ordainduta.*

### FAKTUREN ERREKERIMENDUA

30 egun baino gehiago oniritzia jaso gabe dauden **fakturen errekerimendua** dela eta, jakinarazi nahi da 2016/12/31ko datarekin ez dagoela erantzunik jaso ez duen fakturarik Udal Kontu-hartzailetzak informazio errekerimendua egin ondoren.

Kontabilitate sailean erregistratutako 3 fakturretatik, arloetan oniritzia emateke daudenak eta denak hirigintzari lotuak, jadanik 2 izapidetuta daude ordainketarako eta haietako bat ezeztatu da.

### AURREKONTUA BETEARAZTEA

Udaleko datuak, kapituluka bilduak (arrunta soberakinik gabekoa) 2016/12/31n, honako hauek dira:

**DIRU-SARRERAK**

KAPITULUAK	HASIERAKO AURREIKUSPENA	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENA	AITORTUTAKO ESKUBIDE LIKIDOAK
1.- Zuzeneko zergak	7.593.615,13	7.593.615,13	7.981.418,36
2.- Zeharkako zergak	231.592,00	231.592,00	1.107.384,13
3.- Tasak eta beste diru-sarrerak batzuk	5.473.159,46	5.473.159,46	5.598.100,52
4.- Transferentzia arruntak	18.634.165,38	18.634.165,38	18.151.427,19
5.- Ondarezko diru-sarrerak	419.836,64	419.836,64	376.031,19
6.- Inbertsioak besterentzea	782.532,71	782.532,71	4.089,10
7.- Kapitalaren transferentziak	828.000,00	828.000,00	343.439,69
8.- Finantza-aktiboak	0,00	351.005,13	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>33.962.901,32</b>	<b>34.313.906,45</b>	<b>33.561.890,89</b>

**GASTUAK**

KAPITULUAK	HASIERAKO KREDITUA	BEHIN BETIKO KREDITUA	AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK
1.- Pertsonal gastuak	10.472.560,30	10.472.560,30	9.329.938,31
2.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak	17.326.916,07	17.646.598,72	16.614.177,27
3.- Finantza gastuak	6.300,00	6.300,00	2.334,23
4.- Transferentzia arruntak	3.539.753,66	3.587.126,99	3.187.077,27
5.- Kreditu globala eta ustekabeak	85.000,00	18.839,95	0,00
6.- Inbertsio errealak	2.432.371,29	2.482.480,49	693.420,70
7.- Kapitalaren transferentziak	100.000,00	100.000,00	0,00
8.- Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>33.962.901,32</b>	<b>34.313.906,45</b>	<b>29.826.947,78</b>

Urteko urtarrilaren 27an Bizkaiko Foru Aldundiari bidali zaion informazio ekonomikoaren eta aurrekontuari buruzkoaren arabera, Leioako Udalak 2016 urteko laugarren hiruhilekoan legez araututako aurrekontua-egonkortasun eta gastu-erregelaren helburuak betetzen ditu.

**Osoko bilkura jakitun gelditu da.**

**4.- 194/2017 ALKATETZA DEKRETUAREN BERRI EMATEA, 2016KO EKITALDIKO UDAL AURREKONTUKO AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINTZA SOBERAKINA ONARTZEN DITUENA**

Osoko Bilkuraren onespenera ezarri zen 10. zk irizpena, Ogasun eta Ondare Informazio Batzordeak eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2017ko otsailaren 14an hartutakoa. Dagokion ziurtagiria espedientean dago.

194/2017 Alkatetza Dekretuaren berri eman da, 2016ko ekitaldiko Udal Aurrekontuko aurrekontu-emaizta eta diruzaintza-soberakina onartzen dituen, hitzez-hitz jarraian ematen dena:

**194/2017 DEKRETUA**

Ikusita 2016eko ekitaldiko Udal Aurrekontuko aurrekontu-emaizta eta diruzaintza-soberakina; laburpena honako hau da:

<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		
Aitortutako eskubide garbiak	33.561.890,89	
Aitortutako obligazio garbiak	33.697.622,66	
Ordaintzeke dauden eskubideen saldo murrizketa	0,00	
Kobratzeke dauden eskubideen saldo murrizketa	-332.466,64	
<i>Aurrekontu arruntaren emaitza</i>	<i>-135.731,77</i>	
<i>Aurrekontu emaitza itxia</i>	<i>-332.466,64</i>	
<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		<b>-333.061,98</b>
Finantzaketa desbideratze positiboak	0,00	
Finantzaketa desbideratze negatiboak	0,00	
Diruzaintza Soberakinarekin finantzatutako gastuak (*)	4.208.192,39	
<b>AURREKONTU-EMAITZA DOITUA</b>		<b>3.406.932,00</b>

(\*) Aurreko ekitaldietatik gehitutako soberakinen eta OR fasera heldu diren aurreko ekitaldiko diruzaintza-soberakina ez hitzartuarekin finantzatu diren kreditu aldaketan batuketa islatzen du.

<b>DIRUZAIN'TZA SOBERAKINAREN EMAITZA</b>		
<b>Ekitaldi amaieran ordaindu ez duten zordunak</b>		<b>1.020.920,51</b>
a) Aurrekontu arrunta	1.179.908,11	
b) Aurrekontu itxia	1.553.300,64	
c) Aurrekontutik kanpoko operazioak	75.626,47	
d) Kobrantza zalantzarriko zordunak (-)	1.553.300,64	
e) Aplikatzeke dauden diru-sarrerak (-)	234.614,07	
<b>Ekitaldi amaieran kobratu ez duten hartzekodunak</b>		<b>2.343.673,50</b>
a) Aurrekontu arrunta	1.187.454,93	
b) Aurrekontu itxia	0,00	
c) Aurrekontutik kanpoko operazioen hartzekodunak	1.156.218,57	
d) Diru-sarrerak itzultzea. Hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatzeke dauden ordainketak	0,00	
<b>Diruzaintzako azken funts likidoak</b>		<b>33.426.126,15</b>
a) Ekitaldi amaieran kutxan dagoena	33.426.126,15	
b) ) Diruzaintza Soberakinak	0,00	
<b>DIRUZAIN'TZA SOBERAKIN OSOA</b>		<b>32.103.373,16</b>
a) Azken kobrantzaren zain dauden hartzekodunak	1.020.920,51	

b) Azken ordainketaren zain dauden hartzekodunak	2.343.673,50	
c) Diruzaintzako azken funts likidoak	33.426.126,15	
Diruzaintza Soberakina eraginpean		5.475.747,31
Diruzaintza Soberakina, gastu orokorrak		<b>26.627.625,85</b>

**OHARRA:** Kontuan hartu behar da 32.103.373,16€ko Diruzaintzako soberakin osotik badaudela jadanik hurrengo ekitaldirako konprometituta dauden 8.492.801,22 €ko gastu batzuk (hauetatik, 6.740.203,68€ Udalaren Lurzoru-Ondareari dagokio), eta hori dela eta Diruzaintzako soberakin erabilgarria 23.610.571,94 €koa da.

*Abenduaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 49 artikulua likidazioaren onespena Toki Erakundeko Presidenteari dagokiola ezartzen du eta Osoko Bilkura jakinaren gainean jarri behar dela.*

**HONEN BIDEZ** ontzat jotzen dut:

- 1º 2016ko ekitaldiko Udal Aurrekontuko aurrekontu-emaizta eta diruzaintza soberakina onartzea
- 2º Onarpen hau hurrengo Osoko Bilkuraren aztergaietan sartzea.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Aurrekontuaren udal gerakinei buruz da. Batzordean jakinarazitakoaren arabera, udal aurrekontuari erreparatuz, Udalean 23.000.000 euroko gerakina dago. Gobernu taldeari zenbateko garrantzitsuaren jomuga edo asmoaren inguruan galdetu zitzaion eta Batzordean azaldutakoarekin bat, dirua edo gerakina Udalaren etorkizuneko kirolegira bideratua zegoen. Beraz, etorkizuneko kirolegirako aurrezteko, kaxa egiteko modua zen.

Aipatu informazioaren harira, Udalak asmo horri buruzko irizpiderik ba al duen edo besterik gabe dirua pilatzen ari al den ezagutu nahiko genuke. Hala, udal aurrekontua gastatzeko ideia hoberik ez al da? Noski, irizpide zehatzik ba al dagoen ezagutu nahi dugu, hau da, iritsi arte milioi euroak aurrezten egongo al gara? Aurreko kirolegiaren proiektuan oinarrituta, ez dakit ideia 60 milioira iristea al den. Ezetz espero dut, argi baitago beste egoera ekonomiko batean gaudela eta, ondorioz, proiektuek beste dimentsio bat izan behar dutela. Gaur egun, kirolegi proiektu oso garrantzitsuak daude; gure ingurunean eta gure inguruetik ez hain hurbil hainbat adibide dago eta 10 eta 20 milioi bitartean egon daitezke. Beraz, gustuko nuke Udalaren irizpidea ezagutzea; epemugarik gabe milioi euroak pilatzen jarraituko al dira? Irizpide zehatzen bat ba al dago? Hala bada, zoriondu beharko da.

**Euzko Abertzaleak Taldeko M<sup>a</sup> del Carmen Urbieto González alkatearen** esku hartzea.

Xabier, aurretik joan dadila adeitasun eta errespetu osoa, noski; baina, maltzurra iruditzen zait gaur Osoko Bilkuran egiten ari zarena. Aztergaien zerrendako puntuak erabiltzen ari zara eta ondoren egiten dituzun galde-eskeekin edo informazioa eskatzearekin ez dute zerikusirik, ez dakit ondo. Nire ustez, hori txarra da berez, kontzeptuan eta Osoko Bilkurarekiko errespetuan funtsatuta.

Bigarrenez, Udal honek duen diruzaintzako gerakina kasu batzuetan erabili da, batez ere, lurzoruaren udal ondareari dagokion zatia, toki desberdinetan hobekuntzak egiteko, legeak

lurzoruaren udal ondare bezala erabiltzea uzten duenean, inbertsio guztietan ezin baitaiteke hori egin.

Argi dago kiroldegi berria behar dugula, jakinaren gainean gaude, hemen gauden guztiek dakigu. Udalak geroz eta gerakin gehiago izan, hobe suertatuko da; izan ere, kiroldegiaren gaiari errazago euts dakioke. Hori eztabaidaezina da. Hala eta guztiz ere, ez beldurrik izan. Jakin ondo dakizu, aurrekoan hala egin baitzen, bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena beharrezkoa dela eta orain are gehiago aurrekontuaren egonkortasunari buruzko legearekin eta abarrekin. Nolanahi ere, Udalak kiroldegi berrian inberti al dezakeen ezagutu behar da. Kiroldegi berria egiteko zorpetze mailaren eta kirolen arloan udalerrak epe luzera dituen beharren artean orekara iritsi behar da. Dena den, bere egunean aztertuko dugu.

Aurrekoari eutsiz, gure helburua ez da itsulapikoan sartzea. Nahiko nuke urtero geroz eta diruzaintzako gerakin gehiago izatea, besteak beste, kiroldegi berriari ekiteko.

#### **Esnatu Leioa Udal taldeko Rubén Belandía Fradejas jaunaren esku hartzea.**

Sortzen den gerakinaren gaiaren inguruan, gure taldearen iritziz, ezin daiteke bakarrik eta eskusiboki kiroldegiarako erabil. Gure taldeak jada mahaiaren gainean jarritako apustuak daude. Gainera, asmo handiagokoak dira enpleguari buruzko planei dagokienez. Ezin ditzakegu gure indarrak bakarrik aurreztera bideratu, herrian behar garrantzitsuak dauden bitartean eta gerakinaren zati bat enplegu plan duina sortzen erabili beharko litzateke.

**Euzko Abertzaleak Taldeko M<sup>a</sup> del Carmen Urbieto González alkatearen esku hartzea.**

Badakit eskaera hori beti egiten duzuela, hala ere, enpleguaren aginpidea Eusko Jaurlaritzarena dela jakin behar duzue. Guk, Eusko Jaurlaritzaren eta Lanbideren eskutik, urtez urte enplegu programetan atxikitzen gara. Dena den, aginpidea dagoen tokian ageri da eta enplegu planak behar duten tokitik ateratzen dira. Aurrekoari eutsiz, Udal hau urtez urte enplegu planei atxikiz doa.

#### **Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren esku hartzea.**

Lehenik eta behin, “erabiltzen dut...” esatekoa ez dut ulertzen. Gaizki ez badut irakurri, puntu honetan gerakinaren gaia landuko da, hain zuzen ere, diruzaintzako gerakinaren emaitza. Orduan, ez dut ulertzen alkate andrearen oharra, esku hartzeak puntuarekin zerikusirik ez duela aipatu duenean.

#### **M<sup>a</sup> del Carmen Urbieto González alkatearen esku hartzea.**

Xabier, hau Kontu-hartzailetzaren txostena da, txosten teknikoak, alegia, eta kontuak nolakoak diren aipatzen du. Halaber, Udalaren kontuak nola dauden aipatzen du. Beste gai bat litzateke zein diren Udalaren asmoak inbertsioei begira, baina ez da puntu hau, Xabier. Berriz ere erabiltzen duzu, aurreko esku hartzean gauzatutakoaren antzera.

#### **Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren esku hartzea.**

Puntu horren interpretazioa egitea, erabat interpretazio... ez dakit nola kalifikatu. Hau da, hemen datu batzuk daude, hainbat zifra, eta aurrekontuaren emaitzaz hitz egiten dute. Datu teknikoak direlakoan eta datuen atzean lan teknikoak dagoelakoan gaude, baina, aldi berean, gure iritziz, datu horien atzean dagoenaren interpretazio politikoa egin behar da, datu horien atzean kudeaketa politikoa baitago. Ez dira datu hutsak, datuetan kudeaketa politikoa dago eta

arrazoizkoa da kritika politikoa egitea, hala merezi badu. Gure kasuan, jada lehen aipatu dugu: gure ustez gerakina metatzean irizpide guzti izateari buruzko zalantza ez zaigu argitu. Hots, zenbatekoa dugu eta ikusiko dugu, irizpiderik gabe eta diruaren kudeaketa onaren inguruko irizpide politikorik gabe. Nire ustez ez da ona, geroz eta gehiago izan... Kudeatu behar da eta, bide batez, udalerraren beharrak behar bezala asetzeko kudeatu ere bai. Gure iritziz, hori ez da egungo Leioaren errealitatea. Ildo horri jarraiki, gerakina urtez urte gehiago hazten ari delako zoriontzea, egia esateko, ez dugu ulertzen. Ulergaitza iruditzen zaigu arduradun politikoei jarraitu beharreko irizpidea izatea.

**Euzko Abertzaleak Taldeko M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Ez dizut erantzungo, nik ez dut neure burua zoriontzen. Nire iritziz gobernu talde honen kudeaketa zuzena da, hala izan behar duelakoan gaude eta horrekin nahikoa erantzun dizut.

**Esnatu Leioa Udal taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren** esku hartzea.

Alkate andreari adierazi nahi diot ez dela egia Udalek enpleguaren arloan aginpiderik ez dutenik. Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legeak, hain zuzen ere, oso zaharra ez denak joan den urtean onartu zelako, berariaz xedatzen du udalaren berezko aginpide bezala enplegua sortzea eta enplegu planak onartzea. Beraz, ez da egia bakarrik Eusko Jaurlaritzak ekartzen diguna egin dezakegula. Berariaz onartuta dago udal aginpide modura eta, beraz, enplegua sortzera baliabideak bidera ditzakegu, Lan Saitetik datozen programak huts hutsik betetzeaz gain.

**Euzko Abertzaleak Taldeko M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Ruben lege guztiak, hau ere bai, Tokiko Erakundeei buruzko Legea, gainerako legek, garatu behar dira. Bertan zehazten dira aginpideak, baina, gero, garapen araudiak burutu behar dira eta bertan ezarriko dira mekanika eta metodologia legek udalerriei ematen dizkien aginpideetarako.

**Osoko Bilkura jakitun** gelditu da.

**5.-195/2017 ALKATETZA DEKRETUA ONARTZEA, 2016KO EKITALDIKO SOINU ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUKO AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINITZA SOBERAKINA ONARTZEN DITUENA:**

Osoko Bilkuraren onespenera ezarri zen 11. zk. irizpena, Ogasun eta Ondare Informazio Batzordeak eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2017ko otsailaren 14an hartutakoa. Dagokion ziurtagiria espedientearen dago.

195/2017 Alkatetza Dekretuaren berri eman da, 2016ko ekitaldiko Soinu Atadia Fundazio Publikoaren aurrekontuko aurrekontu-emaizta eta diruzaintza-soberakina onartzen dituen, hitzez-hitz jarraian ematen dena:

**195/2017 DEKRETUA**

Ikusita 2016ko ekitaldiko Soinu Atadia Erakunde Autonomoaren aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintza soberakina. Laburpena honako hau da:

<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		
Aitortutako eskubide garbiak	2.212.411,42	
Aitortutako obligazio garbiak	2.189.986,83	
Ordaintzeke dauden eskubideen saldo murrizketa	0,00	
Kobratzeke dauden eskubideen saldo murrizketa	-6.446,19	
<i>Aurrekontu arruntaren emaitza</i>	<i>22.424,59</i>	
<i>Aurrekontu emaitza itxia</i>	<i>-6.446,19</i>	
<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		<b>15.978,40</b>
Finantzaketa desbideratze positiboak	0,00	
Finantzaketa desbideratze negatiboak	0,00	
Diruzaintza Soberakinarekin finantzatutako gastuak (*)	9.119,81	
<b>AURREKONTU-EMAITZA DOITUA</b>		<b>25.098,21</b>

(\*) Aurreko ekitaldietatik gehitutako soberakinen eta OR fasera heldu diren aurreko ekitaldiko diruzaintza-soberakina ez hitzartuarekin finantzatu diren kreditu aldaketen batuketa islatzen du.

<b>DIRUZAIN'TZA SOBERAKINAREN EMAITZA</b>		
<b>Ekitaldi amaieran ordaindu ez duten zordunak</b>		<b>4.954,72</b>
a) Aurrekontu arrunta	2.462,21	
b) Aurrekontu itxia	5.955,69	
c) Aurrekontutik kanpoko operazioak	2.704,55	
d) Kobrantza zalantzagarriko zordunak (-)	5.955,69	
e) Aplikatzeke dauden diru-sarrerak (-)	212,04	
<b>Ekitaldi amaieran kobratu ez duten hartzekodunak</b>		<b>125.743,45</b>
a) Aurrekontu arrunta	8.559,57	
b) Aurrekontu itxia	0,00	
c) Aurrekontutik kanpoko operazioak	117.183,88	
d) Diru-sarrerak itzultzea. Hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatzeke dauden ordainketak	0,00	
<b>Diruzaintzako azken funts likidoak</b>		<b>166.127,99</b>
a) Ekitaldi amaieran kutxan dagoena	166.127,99	
b) Diruzaintza Soberakina	0,00	
<b>DIRUZAIN'TZA SOBERAKIN OSOA</b>		<b>45.339,26</b>
a) Azken kobrantzaren zain dauden hartzekodunak	4.954,72	
b) Azken ordainketaren zain dauden hartzekodunak	125.743,45	
c) Diruzaintzako azken funts likidoak	166.127,99	
Diruzaintza Soberakina eraginpean		0,00
Diruzaintza Soberakina, gastu orokorrak		<b>45.339,26</b>



**OHARRA:** Kontuan hartu behar da 45.339,26 euroko Diruzaintzako soberakin osotik badaudela jadanik hurrengo ekitaldirako konprometituta dauden 12.203,55 euroko gastu batzuk, eta hori dela eta Diruzaintzako soberakin erabilgarria 33.135,71 eurokoa da.

Abenduaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 49 artikulua likidazioaren onespenez Toki Erakundearen Presidenteari dagokiola ezartzen du eta Osoko Bilkura jakinararen gainean jarri behar dela.

**HONEN BIDEZ,** ontzat jotzen dut:

1. 2016ko ekitaldiko Soinu Atadia Fundazio Publikoaren aurrekontuko aurrekontu-emaizta eta diruzaintza soberakina onartzea.
2. Onarpen hau hurrengo Osoko Bilkuraren aztergaietan sartzea.

**Osoko Bilkura** jakitun geratu da.

**6.- 196/2017 ALKATETZA DEKRETUAREN BERRI EMATEA, EUSKARAREN ERAKUNDEA ORGANISMO AUTONOMOAREN AURREKONTUKO AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZTA SOBERAKINA ONARTZEN DITUENA**

Osoko Bilkuraren onspenera ezarri zen 12. zk. irizpena, Ogasun eta Ondare Informazio Batzordeak eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2017ko otsailaren 14an hartutakoa. Dagokion ziurtagiria espedientean dago.

Ikusita 196/2017 Alkatetza Dekretua, 2016ko ekitaldiko Euskararen Erakundea Organismo Autonomoaren aurrekontuko aurrekontu-emaizta eta diruzaintza soberakina onartzen dituen, hitzez hitz jarraian ematen dena:

**196/2017 DEKRETUA**

Ikusita 2016eko ekitaldiko Euskararen Erakundearen (Mastitxu Udal Euskaltgiak eta Euskara Zerbitzuak osatua) Aurrekontuko aurrekontu-emaizta eta diruzaintza soberakina. Laburpena honako hau da:

<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		
Aitortutako eskubide garbiak	1.025.453,50	
Aitortutako obligazio garbiak	1.021.049,14	
Ordaintzeke dauden obligazioen saldo murrizketa	0,00	
Kobratzeke dauden eskubideen saldo murrizketa	0,00	
<i>Aurrekontu arruntaren emaitza</i>	<i>4.404,36</i>	
<i>Aurrekontu emaitza itxia</i>	<i>0,00</i>	
<b>AURREKONTU EMAITZA</b>		<b>4.404,36</b>
Finantzaketa desbideratze positiboak	0,00	

Finantzaketa desbideratze negatiboak	0,00	
Diruzaintza Soberakinarekin finantzaturako gastuak (*)	7.349,43	
<b>AURREKONTU-EMAITZA DOITUA</b>		<b>11.753,79</b>

(\*) Aurreko ekitaldietatik gehitutako soberakinen eta OR fasera heldu diren aurreko ekitaldiko diruzaintza-soberakina ez hitzartuarekin finantzatu diren kreditu aldaketen batuketa islatzen du.

<b>DIRUZAIN'TZA SOBERAKINAREN EMAITZA</b>		
<b>Ekitaldi amaieran ordaindu ez duten zordunak</b>		<b>78.084,09</b>
a) Aurrekontu arrunta	71.097,33	
b) Aurrekontu itxia	389,20	
c) Aurrekontutik kanpoko operazioak	6.986,76	
d) Kobrantsa zalantzagarriko zordunak (-)	-389,20	
e) Aplikatzeke dauden diru-sarrerak (-)	0,00	
<b>Ekitaldi amaieran kobratu ez duten hartzekodunak</b>		<b>60.070,59</b>
a) Aurrekontu arrunta	5.472,10	
b) Aurrekontu itxia	0,00	
c) Aurrekontutik kanpoko operazioak	54.598,49	
d) Diru-sarrerak itzultzea. Hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatzeke dauden ordainketak	0,00	
<b>Diruzaintzako azken funts likidoak</b>		<b>272.216,62</b>
a) Ekitaldi amaieran kutxan dagoena	272.216,62	
b) Diruzaintza soberakinak	0,00	
<b>DIRUZAIN'TZA SOBERAKIN OSOA</b>		<b>290.230,12</b>
a) Azken kobrantzaren zain dauden zordunak	78.084,09	
b) Azken kobrantzaren zain dauden hartzekodunak	60.070,59	
c) Diruzaintzako azken funts likidoak	272.216,62	
Diruzaintza Soberakina eraginpean		0,00
Diruzaintza Soberakina, gastu orokorrak		<b>290.230,12</b>

**OHARRA:** Kontuan hartu behar da 290.230,12 euroko Diruzaintzako soberakin osotik badaudela jadanik hurrengo ekitaldirako konprometitu dauden 22.068,35 euroko gastu batzuk, eta hori dela eta Diruzaintzako soberakin erabilgarria 268.161,77 eurokoa da.

Abenduaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 49 artikulua likidazioaren onespena Toki Erakundeko Presidenteari dagokiola ezartzen du eta Osoko Bilkura jakinaren gainean jarri behar dela.

**HONEN BIDEZ,** ontzat jotzen dut:

- 2016ko ekitaldiko Euskararen Erakundea (Mastitxu Udal Euskaltegiak eta Euskara Zerbitzuak osatua) Organismo Autonomoaren aurrekontuko aurrekontu-emaiza eta diruzaintza soberakina onartzea.

2. Onarpen hau hurrengo Osoko Bilkuraren aztergaietan sartzea.

**Osoko Bilkura** jakitun gelditu da.

**7.- KONTRATAZIO MAHAIAREN PROPOSAMENA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ “ZERBITZU ENERGETIKOAK ETA BERME OSOAREKIN MANTENTZEA LEIOAKO ARGITERIA PUBLIKOAREN INSTALAZIOAK ETA EKIPOAK” KONTRATATZEKO PROZEDURARI BURUZKOA:**

Osoko Bilkuraren onespenera ezarri zen 7. zk. irizpen proposamena, Hirigintza eta Etxebizitza; Obrak eta Zerbitzuak; Mugikortasuna eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2017ko otsailaren 21ean emandakoa. Dagokion ziurtagiria espedientean dago.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Nahiz eta gai hau lehen jada hainbatetan espedientearen onspen prozesuetatik pasa eta gure abstentzioa jakina izan arren, konfiantzazko botoa emango diogu, aurrera atera dadin, orokorrean, energia eta argi zerbitzuak zentralizatuagoak egotea positiboa delakoan baikaude. Hala, abstentzioa espediente honekiko eta garapenarekiko konfiantzazko botoa da.

Nolanahi ere, idatziz jaso utzi nahi dugu Udalaren herri-argien gaian hobetzeke hutsune asko dagoela, hala nola, udalerriaren zona eta kale desberdinetan, plazetan eta abarrean argirik eza (asko hobe daiteke kasu batzuetan), baita alderdi puntualak ere, besteak beste, argien kutsadura, ez bakarrik ingurumenaren ikuspegitik, etxebizitzetan ere bai, hau da, biztanleen etxebizitzekiko argiztapen menderatzailea. Izan ere, argia egoitzetan, etxeetan sartzen da. Beste gai puntual batzuei eutsiz, kale berean argi desberdinak daude, baita irizpide zehatzik gabe argi motak ere. Ez da irizpide berdina jarraitzen. Nire ustez hori guztia hiri espazioaren eta horretan baldintza hobeagoen kalterako da. Beraz, hamaika gauza dago hobetzeke argiztapenaren gaian eta kontratu berri honekin, pixkana, ahalik eta arinen, argiztapenean hutsune guztiak konpontzen joatea espero dugu.

**EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunak** euskaraz esku hartzea.

Badirudi berriro etortzen dela kontratu honen prozedura osoko bilkurara eta berriro eztabaida izango dugula, baina justu osoko bilkura honetarako, bi dekretu begiratuta ere, mahai gainean jarri nahi ditugu uste dugulako harreman zuzena dutela.

Izan ere, behin eta berriro kritikatu dugu zenbateko luzapena eduki duen, zer egon litekeen horren atzean, behin eta berriro kritikatu dugu azkenean prozeduran irabazlea aterako dela aurreko gestioa eraman zuen enpresa berbera eta auditoriak berak izandako emaitzekin, bada, horrek zalantzak sortzen zizkigun. Eta orain ikusten dugu enpresa hau ez dela berria, bagenekien, behin eta berriro ikusi dugulako, baina, enpresa berbera kontratatzen dugu, 329. zk. dekretuan ikus daitekeen bezala, Gabonetako argiak instalatzeko eta kentzeko, irabaziko duen enpresa kontratatzen dugu era zuzenean. 339. zk. dekretuan ikusten dugu ere enpresa berdina 2227

euroko kontratu batekin, koadro elektrikoak instalatzea inauterietarako. Uste dugu enpresa honek behin eta berriro agertzeak eta gainera kontratu hau irabazteak zalantzak mahai gainean jartzen dituela, zalantzak jartzen ditu.

Eta, bigarrenik, gaur erantzun nahiko nuke aurreko eztabaidan, bada, planteatu zitzaigun galdera bat; guk defenditzen genituen klausula berdeen inguruan eta esaten zitzaigun zintzoak izateko eta hitz egiteko txandarik gabe geratu ginenez, bada, gaur ere zintzoak izan nahiko genuke gure jarrerarekin. Hau da, gure postura, argi eta garbi, ezaguna da, uste dugu eredu energetikoan aldaketa nabari bat eman behar dela eta horretarako hornidura energetikoa duten kontratu guztietan berriztagarrien aldeko apustua egin behar dela, eta bai, zintzoak izango gara, badakigu horrek kostu handiagoak suposatu ahal dituela, ez duela zertan kostu handiagoak suposatu behar, baina kostu handiagoak suposatu ahal dituela berriztagarriak kontratatzea. Eta bai, uste dut EH-Bildutik horretan zintzoak garela, kostu handiagoak suposatuko baditu, berriztagarrien aldeko apustua egitea, guk uste dugu asumitu behar diren kostuak direla.

Izan ere, guk uste dugu, administrazio publiko batek, hau da, erakunde politiko batek, udal bat den bezalaxe, bere kontratuetan ezin dituela izan bakarrik helburu ekonomikoak, hau da, ezin dugu izan soilik aurrezpen ekonomiko baten bizioa. Izan ere, kostu sozialak ere existitzen direlako, kostu ekologikoak existitzen direlako eta guk horiek kontuan hartu behar ditugu eta horiek diru gehiago gastatzea ekarriko badute, bada, gure ustez aurrera. Gainera, gai honetan ikusita zer nolako garrantzia izan dezakeen. Lehenik eta behin, zergatik?, bada, orain Garoñaren afera ere mahai gainean dagoela esan behar da berriztagarrien aldeko apustu batek horri ere eragiten diola.

Bestetik, ikusita zer nolako eredu energetikoan gauden, bada, uste dugu energia fosilengandik aldentzeko apustua lehenbailehen aplikatzen hasi behar garela eta hori ez dugu guk bakarrik, EH-Bildutik aipatzen, baizik eta gurekin erlazio hain zuzena ez duen erakunde batek ere, Europar Batasunak, eskatzen digulako. Estrategia 20x20x20-en, hau da, energia guztiaren % 20 energia berriztagarrien bitartez kudeatzea. Eta egun, nahiko urrun gaude euskal lurraldeetan helburu horietara heltzeko. Eta uste dugu kontratazio publikoa horretarako oso helburu ona dela, zergatik? bada, adibidez, Kontratazio Publikoaren Behatokiak esaten digun bezalaxe sektore publikoko kontratuak PIB-aren % 18,5 dira. Hau da, begiratu zer nolako dirutza mugitzen den eta energia alorrean bereziki dirutza mugitzen da administrazio publikoen kontratuetan, bada, bide horretan, energia berriztagarrien aldeko apustua egiten badugu, nik uste dut nahiko indar egin daitekeela, baina, gainera uste eskaera igotzea ezinbestekoa dela.

Izan ere, badakigu, Espainiako gobernuak, PP-ren gobernuak, zer nolako legeak dituen eta guk askotan kritikatu izan ditugu ez bakarrik EH-Bildun, nik uste dut honetan adostasunak nahiko handiak izan daitezkeela. Hau da, autokontsumoari zer nolako mugak ezartzen zaizkion Espainiar gobernutik. Nik uste dut gure kontratuetan beste hori txertatzen hasten garen heinean islatzen hasiko dela erakundeek ere beste norabideen aldeko apustua egin nahi dugula eta horregatik, kostuak asumituta ere, nahiko gehiago kosta daitekeelako, eragitea politika orokorrean ere. Orduan, bai, gaur zintzoak izan nahi genuen eta esan kostu gehiago izan dezakeen arren guk horren aldeko apustua egiten dugula.

**Esnatu Leioa Udal taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea** euskaraz.

Gure jarrera nahiko argia izan da prozesu honen pausu guztietan. Erabat kontra egon gara, prozesu honen ñabardura eta aspektu guztien kontra. Aukera handia galdu da gure herriaren argiztapen sistema hobetzeko eta dirua aurrezteko eta nahiago izan dugu aurrezpen hori enpresa pribatuen esku uztea. Eta guk ez dugu uste energia berriztagarriak erabiltzea garestiagoa denik. Gure lokalean eta herritar askoren etxeetan eta lokaletan bezala energia berriztagarria erabiltzen dugu, Goiener kooperatibaren bitartez eta ez dugu uste besteok baino gehiago ordaintzen dugunik. Argi eta garbi, ez dugu udaletxeak ordaintzen zuena baino gehiago ordaintzen eta orain ordainduko duena baino gehiago ordaintzen. Beraz, aukera galdua izan da eta, berriro ere, erabat kontra agertzen gara.

**Euzko Abertzaleak taldeko Iban Rodríguez Etxebarriaren esku hartzea** euskaraz eta gaztelaniaz.

Egia da, Xabier; udalerriko zenbait zonatan argi gutxi dago eta beste batzuetan, ordea, argi kutsadura ageri da. Ildo horri jarraiki, agiri honekin eta lehiaketarekin, hain zuzen ere, helburu nagusia hori zen, hau da, kale guztietan, kalearen tipologiaren arabera, argi eta homogeenotasun bera egotea. Horregatik, aurrerapausoa dela uste dut, baietzkoan nago, nire iritziz honekin ongira egingo dugu.

Esku hartzea euskaraz jarraitu du:

Zintzoak izatea, benetan zintzotasuna hau bada, zalantzan jartzea gaur egun energia berriztagarriak garestiagoak direla energia arruntekin konparatuta, nik uste dut hori bai ez dela egia esatea. Horren aldeko apustu bat egin behar dela, ados, eta egin dezagun, baina benetan zintzotasun osoz, hau da, auzokideari esan beharko diogu gaur egun ordaintzen duenaren truke edo inpostuen bidez ordaintzen duenaren truke gehiago ordaindu beharko duela edo gutxiago izan dugula inbertsioak egiteko edo beste nolabaiteko programa batzuk egin ahal izateko. Beraz, sarrerak X badira gastuak X izan behar dira ere bai. Beraz, energia gehiago kostatzen bazaigu, orduan gutxiago izango dugu horrelako gastuak egin ahal izateko.

Hori, alde batetik, eta jada lotsagarria iruditzen zaidana da lehenengo hasierako mintzaldia, batez ere zalantzan jartzen delako bertako, udaletxe honetako teknikariek eta egiten duten lana, hau da, esatea zuek esaten zenutela jadanik bazenkitela nork irabaziko zuen kontratua, benetan uste dut lotsagarria dela. Hain ziur bazeundeten, zergatik ez zarete egon kontratazioan? Zuek kontratazio honen parte zarete eta ez zarete agertu eta horrelako kontratu potolo batera ez etortzea horrelako zalantzak edukiz gero, benetan salatzeko modukoa da, behintzat zuei botoa ematen dizueten jendearen ikuspegitik. Benetan, gauzak esaten baditugu, esan behar ditugu esan behar diren moduan eta hemen egin den prozedura guztia izan da guztiz legala. Eta aurkeztu diren enpresa guztiak aurkeztu dira baldintza berdinetan.

Gu hona ez gatoz inongo enpresari ezer esatera gu ez garelako inongo enpresaren bazkide, ez ezer. Baina, bai gara gobernu hau osatzen duten pertsonen defendatzaile sutsuak eta, batez ere, udaletxe honetan dauden teknikari guztien defendatzaile sutsuak. Eta horrelako iruzkinak egitea gero gure Facebook-en jartzeko bakarrik zatitxo hori, horrela gure masa kritikoa berotzen dugu eta jada baditugu lau bozka gehiago kalean, benetan lotsagarria da langile batzuen lana horrela gutxieste.

### **EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunak** euskaraz esku hartzea.

Hasiko naiz azken zatiarekin. Nik uste dut kontratazio mahaietara ez joatearena askotan eztabaidatu izan dela. Izan ere, planteatuta dauden moduari ere guk gure kontrakotasuna adierazi diogulako. Lehenik eta behin, guk hirurogeitik inork ez duelako ez liberazio erdi, ez liberazio bat. Uste dut hori balioztatu behar dela. Zergatik? Zer... kontratazio mahaietan ez ahotsik ez bozkarik ez dute, eta goizez egiten diren kontratazio mahaietan egoteko zailtasunak ere uste dut balioztatu behar direla. Beraz, kontratazio mahaiak birplanteatzeko borondatea badago, eta hauek berraztertzeke borondatea badago, guk, uste dut, hauetan parte aktiboagoa izango genukeela. Baina planteatzen diren moduan, bada, guk zailtasunak ditugu horietan parte hartzeko.

Bigarrenik, nik ez dut kontratuaren prozedura ilegala denik esan, ez dut esan hori, ez dut esan kontratua aurretik prestatua zegoenik eta kontratua nori emango zitzaion bagenekienik. Ez dut hori esan. Esan dudana da guretzat zalantzarria dela kontratua esleituko zaionari, aurreko kontratua esleitua izan zuena behin eta berriro kontratatzea bestelako kontratazio zuzenetan. Hori kritikatu dezakegula uste dut, kontratazio zuzen horiek kritikatu ahal ditugula ere, uste dugulako beti berberak izatea kontratazio zuzenen hartzailerik ez dela eredurik egokiena.

Eta bigarrenik, energia berriztagarrien inguruan, eta Rubenek esan duenaren inguruan, nik uste dut badaudela iritziak eta horretan badaudela hainbat eta hainbat baldintza esaten dutenak ez duela ekarri behar garestiakoak izatea. Eta nik esan dut, egon daitezke momentuak garestiako izan daitezkeenak eta nik argi dut, klausula bezala txertatzen badugu, garestiako izan daitekeela eta seguruenik izango dela, klausula bezala txertatzen ez badugu enpresak erosiko du merkeena momentu honetan, berriztagarria bada berriztagarria erosiko du eta ez denean erosiko du berriztagarria ez dena. Zer esan nahi du honek? Bada, merkatuaren arabera erosiko dela bata edo bestea, eta guk merkatu hori murrizten dugun momentuan eta esaten dugunean soilik berriztagarriak, badakigu momentu batzuetan garestiako izan daitekeela. Horregatik esan dugu berriztagarriak ez demonizatzeko ideiarekin zalantzak ditugula ez direla zertan garestiako izan behar, baina, badakigu klausula bezala txertatzerakoan horrek ekarri ahal duela gastu bat gehiago.

Eta uste dut behin eta berriro esan dugula, klausula sozialek hori ere bere baitan ekartzen dutela. Eta, hala ere, horien alde egin nahi dugula. Hau da, gehiago kostako dela, bai, baina ez dugu beste gastu batzuk sortuko, zer... azkenean, eta ez bakarrik berriztagarrien gaiarekin, baizik eta gai guztiekin, klausula sozialekin lortzera goazena da kostu sozialak, ingurumen-kostuak ez sortzea. Egun, beharbada, ez ditugunak erantzun behar, kontratuan diot, baina etorkizun batean, beharbada, erantzun beharko ditugunak eta gizarte moduan garestiako ordainduko ditugunak. Beraz, bai, zuk esan duzuna, klausula sozialak txertatzea ekar dezakeena guztiz asumitzen dugu eta uste dut hori esatea positiboa dela.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Behin proposamena irakurrita, bozketa egin da. Osoko Bilkurak, hamabi aldeko botoren gehiengoz, Euzko Abertzaleak taldeko bederlatzi zinegotzienak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak, onartu egin du Kontratazio Mahaiaren esleipen-proposamena, “Zerbitzu energetikoak eta Leioako argiteria publikoko instalazioak eta ekipoak berme osoz mantentzea” kontratua Ferrovial- Electricidad Martín ABEEri ematea, urteko 448.671,20 (gehi dagokion BEZ) euroko zenbatekoa izango duena eta hamar urteko (10) iraupena, lege ezarritako kontratazio-prozeduraren izapidearekin jarraituz. Zazpi aurkako boto izan ziren, Esmatu Leioa taldeko lau

zinegotzienak eta EH-Bildu Leioa hiru zinegotzienak. Bi abstentzio izan ziren, Alderdi Populareko bi zinegotzienak. Ebazpenaren kopia espedientearen dago.

## **8.- LEIOA KIROLAK, SAU-REN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ERABAKIEN DEUSEZTASUN-DEKLARAZIOA ETA OFIZIOZ BERRIKUSTEA: ALEGAZIOAK EZ ONARTZEA ETA ESPEDIENTEA EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKORA BIDALTZEA**

Osoko Bilkuraren onespenera ezarri zen 8. zk. irizpena, 2017ko otsailaren 21ean izandako Barne Araubideko Informazio Batzordean emandakoa. Dagokion ziurtagiria espedientearen dago.

Osoko Bilkuran gai honi buruzko eztabaidan, Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, Leioako Alderdi Populareko Taldearen bozeramaileak, bozketaren emaitza jasotzean Barne Araubideko Batzordearen aktan akats bat nabaritu zuela esan zuen, bere taldea abstenitu egin baitzen puntu honetan, eta ez zuela aldeko botorik eman, aktan jasotzen zen moduan.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

**Leioako Alderdi Populareko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Puntu honi dagokionez, gure ikuspegia abstentzioa izan da eta modu berean jarraituko dugu. Hala jakinaraziko dugu Osoko Bilkura honetan. Barne Araubideko Batzorde egokian jada komentatu genuen, puntu hau berari baitagokio, baina Batzordearen aktan akatsa ageri da. Alderdi Popularrak aldeko botoa eman zuela azaltzen da, abstentzioaren botoa eman zuen bitartean, beraz, bere egunean akats hori zuzentzea eskatuko dugu.

Gure ikuspuntua Pinosoloko kontratuaren gaiari dagokionez ezaguna da. Guk bere egunean ondoz ondoko esleipenen kontra bozkatu genuen, gaian ustezko irregulartasunak edo irregulartasun argiak ikusten baikenituen. Orain deskonexio prozesuaren aurrean gaude, deskonexio prozesu korapilatsua, enpresek beren interesak defendatzen dituzten neurrian. Horren aurrean Udalak bere ikuspegia du.

Grafikoki esateko, gure taldeak prozesua hesitik ikusi du. Ez gara kontra azaldu, baliogabetasunera edo kontratua indarririk gabe uztera jotzen bada, guk kontratuaren aurka gaudenez, ezin baikara horren kontra egon. Baina orain buru denak honaino ekarri gaitu eta, horregatik, ezin dugu eskutik helduta joan.

Puntu honi buruz, funtsezko puntua da, argi baitago gai honekin gobernu taldean alderdi politiko zehatzaren kudeaketaren inguruko konfiantza aldatu dela. Beraz, puntu honetan Eusko Alderdi Jeltzaleak egingo duenarekiko alderdi honen konfiantza agortua dago; are gehiago, gutxienera iritsi da edo zorupean aurki daiteke. Hala, prozesua baliogabetzera eramatearekin ere gauza bera gertatzen da. Aurrekoaren harira, nahiago dugu politikoki abstentzioaren jokabide arduratsuaren bitartez behatzea. Dena den, prozesu hau ahalik eta azkarren amaitzea espero dugu, baina, tira, hau gertatzen da gauzak behar bezala hasten ez direnean. Izan ere, hala buka daitezke.

Ez dakit gaia landu zen aurreko Osoko Bilkuran Alderdi Popularrak gobernu taldeak edo udal arduradunek izandako akatsa onartzea eskatu al zuen. Horiengatik gaude egoera honetan eta oraindik ez da onartu. Agian, interesgarria litzateke gobernu taldeak, Alkatetzak, alkate andreak, gobernu taldea eusten duen alderdi nagusiak, gutxienez, Leioako enpresari eskertzea, horri esker

Leioan garatzen ari zen *megakontratua*, gutxienez enpresa mailan, ustela zegoela egiaztatu baitzen. DGM enpresaz ari naiz, berak eraman zuelako gaia Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Zerbitzura eta horri esker enpresa zigortuek elkarri onura ateratzeko irregulartasunak izan zituztela frogatu baita.

Talde honek enpresari prozesua hasteagatik eskerrak ematen dizkio. Nolanahi ere, orain ez gara zimendu ustelen gainean egindako kiroldegiaz gozatzen ari. Ildo horri eutsiz, gutxienez, gobernu taldeari edo alkate andreari eskatuko nieke onartzea. Hainbatetan hemen entzun diegu kritikak egiten. Oroitzen dut hasieran, enpresa hau kontratuarekiko erreklamazioak aurkezten hasi zenean, esku hartzeko ahalmena ukatzen zitzaiola. Enpresa txikia zela esaten zen, ABEEen barruan zegoela, gaitasunik ez zuela eta abar luzea. Hala, bere zilegitasuna ezeztatzen zen. Baina, azkenean, enpresa txiki honi esker proiektu guztia geldirik dago eta enpresaren bultzadarengatik, enpresen arteko ustelkeriaren gaia aurkitu dugu, oso garrantzitsua, beste desbideratze politiko batzuek ez hitz egiteagatik. Hortaz, Alkateak Leioako enpresa gorestea eskatuko nuke. Gainera, berriz azpimarratu nahi dut gure abstentzioa gai honetan eta biztanleen interesengatik prozesua ahalik eta laburrena izatea espero dugu.

#### **EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunaren esku hartzea.**

Guk behin eta berriz errepikatu dugu gai hau ez genukeela hesitik begiratu nahi. Hala, prozesuak aurrea egitea positibo dela uste dugu. Izan ere, baliogabetasunean amaitu behar du. Nire iritziz, ofizioz berraztertze prozesuari ekin zitzaionetik, hala erakutsi eta berriz errepikatzen dugu, horregatik, baietz bozkatuko dugu.

Bestalde, modu berean behin eta berriz errepikatu dugu oinarritzkoa iruditzen zaigun gaia: jada 2 milioi euro ordaindu direla. Uste dut Udalera itzultzen saiatu behar direla. Gaur Osoko Bilkuran ofizioz berraztertzea hasi genuenean egindako adierazpena landu nahi dut. Ordainketarik ez zela egin behar azaltzen genuenean, orain tantoa gure alde ematea erraza zela erantzun zitzaigun. Gaiari eutsiz, gure zereginak berreskuratzea izan behar du eta, aldi berean, hemendik urte batzuetara ez esan dirua berreskuratzen saiatzearen tantoa alde ematea erraza izan denik. Pena litzateke dirua, jada ordaindutako bi milioi, eskuratzen saiatzeko eskura dagoen guztia ez egitea.

Berriz azpimarratzen dugu dirua berreskuratu nahi izanaren ikuspegia.

**Esnatu Leioa Udal taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea** euskaraz.

Guk ere kontratu hau bertan behera uzteko prozesua aurrera jarraitzearen aldeko botoa emango dugu, eta baita ere pentsatzen dugu bide honetatik joan behar garela azken muturreraino, hau da, ordaindutako dirua itzultzea eskatzeraino.

**Euzko Abertzaleak Taldeko M<sup>a</sup> del Carmen Urbieta González alkatearen esku hartzea.**

Xabier, beti kontra, hala esan duzu eta oraingoan ere horrela da, hau da, orain lehen defendatzen zenutenaren aurka, ez dut ulertzen oso ondo. Gaiak hesitik ikustea oso erraza da, oso eroso suertatzen da, bakarrik oposizioan bazaude egin daiteke, gobernatzen ari zarenean erabakiak hartu behar baitira. Oposizioan egoteak alderdi on hori du. Aurkakoa gertatzen da, berriz, gobernatzen zaudenean eta erabakiak hartu behar direnean.

Konfiantza gutxienean: Udal honetan eman ditudan urteetan –jada batzuk badira eta alkate bezala lau bete ditut duela gutxi- inoiz ez dut sentitu konfiantza Udal honetako Alderdi



Popularraren aldetik. Inoiz, inolako gaiaren inguruan, nahiz eta pertsonalki ondo eraman, inoiz ez dut sentitu konfiantza maila, beraz, honetan ere ez nuen aurkitzea espero.

Hala eta guztiz ere, ezinezkoa da aurreko guztiaren kontra azaltzea eta aurreko guztia berraztertu behar dugunean eta baliogabetu ere bai, modu berean, kontra egotea. Ez dut ulertzen. Agian, nire adimen maila ulertzeko ez da nahikoa.

Enpresari eskertu behar diogula diozunean, nik adeitasun eta errespetu osoz, diotsut enpresari eskertuko diogula lege kostuak ordaintzen dituenean, horretara zigortuak izan baitira. Hala espero dut egitea eta ordaintzea. Orduan, ez ditut zorionduko, Udala zorionduko dut, Udalaren diru-kutxatik enpresari dagokiona ez ordaintzeagatik. Leioakoa da, bai, baina Udalaren eta Leioa Kirolak erakundearen aurka hasitako lege eske guztiak galdu ditu. Horrez gain, ez Udalak, ezta nik ere, ez dugu kontra egiteko enpresaren zilegitasuna ezeztatu. Zilegitasuna auzitegiek ukatu diote eta ez alkateak, ez Mari Carmen Urbietak, ez gobernu taldeak, ezta Udalak ere, auzitegiek baizik.

Zure esanetan, honaino ekarri gaituen enpresari esker onak ematen dizkiozu, eske eta auzi guztiak galdu dituenean, baina, bestalde, prozesua laburra izatea diozu. Ez dakit zer esan nahi duzun horrekin; ez dakit Udala azkarrago edo motelago joan daitekeela uste duzun. Prozesu honek bere bidea jarraitu behar du, eskatzen duen iraupenarekin eta berriz ere lege bidea hautatu izanaren arabera. Aurrekoari eutsiz, baliteke administrazioarekiko auzi bidean sartu behar izana eta une horretan nik neuk ere ahalik eta azkarrena izatea nahi izango dut, baina ez da Udalaren eta gobernu taldearen baitakoa.

Aritz, zure esanetan, eta eskertzen dizut zati hori, ez zaizkizue gaiak hesitik begiratzea gustatzen eta nahasten zarete. Eskertzekoa da, kontsekuente eta koherentea delakoan: ados nagoen horretan, ezin diot bizkarrik edo alborik eman, abstenitzen naizela edo dena delakoa esateko. Baina jada oinarritzko proiektua itzultzearen gaian, ez dakit asmo txarrez egindakoa al den, baina bi milioi eurora igo duzu, goitik biribilduz, oso goitik, gainera. Dena den, azpitik ere biribil dezakegu. Besterik gabe, iruzkina da. Hala ere, jada bi milioi eurora iritsi gara, BEZa barne, milioi bat eta zazpiehun mila euro izan zirenean. Hala uste dut, behintzat. Aurrekoaren harira, biribiltzeko milioi eta erdira joan gaitezke. Zifrak oso arriskutsuak dira, gorantz edo beherantz biribil baititzakegu; zenbaki zehatzean erra dezakegu, beraz, nire iritiz horretan ere koherentzia behar da.

Zure esanetan, guk adierazitakoaren arabera atzera begira errazagoa da. Dena den, bere garaian, ez zen erraza izan eta ordainketa egin zen Administrazio Kontseilua behartuta zegoelako, une hartan egindako txosten juridikoekin bat. Behartuak geunden eta, beraz, halabeharrez erabakia hartu genuen. Dirua itzultzeko eskaerarik egin behar al dugun, nik oso pozik egingo nuke, ez dakizu zer pozik, diruzaintzako gerakin gehiago izango baitugu eta lurzorua udal ondarean inbertitzeko aukera emango baitigu. Horrekin proiektuak egin ahal izango ditugu edo kiroldegi berrian inbertituko dugu ala biek. Nire aldetik, oso pozik. Hortaz, egiteko aukerarik badugu, ez zalantzarik izan, alkatea eta gobernu talde guztia horren bila joango da. Hala eta guztiz ere, izan gaitezten zehatzak. Oinarritzko proiektua ordaindu zen, nik ez dakit zenbateko zehatza, baina milioi eta zazpiehun mila euro inguru ziren, BEZa barne.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren esku hartzea.**

Gure ikuspegitik, ezin daiteke errealitatetik urrunago egon eta hain denbora gutxian azaldu, lehenengo esku hartzerako alkate andreak emandako denbora, behintzat.

Lehenik eta behin, ez dakit alkateak nahita egiten al duen, baina nire ustez argi utzi dugu hasieran gure ikuspuntua abstentzioa dela. Alkateak bitan errepikatu du kontra gaudela, beraz, ez

dakit nola esan behar dudan. Lapsus bat da edo asmo txarrez egiten da Osoko Bilkura nahasteko, ez dakit zer asmo duen, baina larria da. Gure esanetan, gure ikuspegia kontrakoa zen, irregulartasunak zeudela ikusten genuenean eta orain abstentzioa, oinarrian, eta hala adierazi behar dut, ez baikara fida. Aipatu dut, gainera, gai puntual honetan gure konfiantza maila gutxienekoa dela. Ezin zitekeen beste modu batera izan. Ez honetan, ezta deskonexioaren une honetan ere bozka dezakegu EAJrekin, proiektu honetan porrotera eramán digulako eta gure ikuspegia abstentzioa da. Ez dakit behin eta berriz errepikatu behar diodan alkate andreari, kontzeptuarekin gelditzeko.

Gero, adierazitakoaren arabera, oso erraza da oposizioan jardutea eta Pinosoloko gaien hori esan eta erosotasunaren jokabidearengatik Alderdi Popularra salatzea, hainbeste urtetan Pinosoloko gaiak zehazki zinegotzi honi sortu dizkion buruhaustek kontuan hartuta, sorreratik zuzenean bizi izan baitu. Hala, puntuan abstentzioa une honetan erabateko jokabide arduratsu eta pentsatua da. Ez da inolaz ere erosotasunetik hartu.

Horrez gain, ezin zitekeen beste modu batera izan, enpresari dagokionez, ez zaio esker onak emateari arreta eskaini, alderantziz, enpresaren kontra joateko aprobetxatu da. Kostuak eta administrazioarekiko auzi gaitan epaitu diren gai guztiak galdu dituela aipatu dira. Baina ez gara horretaz hitz egiten ari. Alkateak nahi duenaz egin dezakegu berba, baina ez dut hori aipatu nahi. DGM Arquitectura enpresari eskaini diot nire arreta. Leioan egoitza du eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Zerbitzuaren aurrean 2011ko urtarrilean enpresen aurkako salaketa errekurtsioa jarri zuen. Salaketaren errekurtsioak enpresa zehatzei berariazko epaia eman die. Hala da eta hori da, hain zuzen ere, errealitatea.

Beste lege prozesu batzuetan enpresak errekurtsioak ez dituela aurrera atera? Hori bestelako errealitatea da. Dena den, une honetan hizpide duguna eta hemen egotearen arrazoia, bestalde, kontratuaren baliogabetasunaren oinarria, errekurtsio hori da eta onartuko den puntuan bertan dago. Udalak kontratatutako aholkularitza enpresaren txostenari jarraiki, DGM Arquitectos enpresak salatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Zerbitzuaren aurrean eta hortik dator baliogabetasuna. Aurrekoaren harira, larderia, erabateko nagusikeria da oinarritzakoa ez onartzea. Bai, horiei eskerrak eman behar dizkiegu, sartu zirelako, zerbait irregularra ikusi zutelako eta aztertzen hasi zirelako. Horri esker, bazegoela ikusi zen, noski, baietz! Enpresen arteko konexioa onuradun izateko, gutxienez. Horregatik gaude hemen. Hori ezeztatzea, baloiak kanpora edo ez dakit nora botatzea da eta, horretarako, batek daki zer errekurtsioz baliatzen da eta kostuak ordain ditzala esan ere bai. Alkate andreak ba al daki zenbat aurreztu dugun DGM Arquitectos enpresak Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Zerbitzuaren aurrean salatu zuelako? Hirurogei milioi euro ustel aurreztu ditugu enpresari esker. Orain, DGM enpresarengatik ez balitz, igerilekuan igeriketari arituko ginatke eta kantxetan saskibaloira jolasten ere, ustelkeriaren oinarripean. Hori aurreztu dugu eta guztia kontuan hartuta ezin dezakegu ezta gutxieneko gorespina egin ere. Ez, inolaz ere ez; larderia. Are gehiago, eskuartetik joan zitzaigun prozesua zaintzean zerbait gaizki egin genuela ezin dezakegu onar. Erantzukizuna genuen, gobernu taldeak, EAJk, zuzena, gainera. Horretaz ezta pentsatu ere eta, noski, zerbait egin duenari eskertzeaz ere ez dugu hitz egingo. Beraz, honaino ustekabeen iritsi gara. Hala eta guztiz ere, hemen gaude eta kontratuaren baliogabetasuna bozkatuko da, norbaitek gaia salatzea erabaki zuelako.

Amaitzeko, PSOE eta ESNaturen jokabideari dagokionez, EH Bildukoari buruz ez baitugu ezer komentatuko, politikoki errespetatuz eta bestelako moduan ezin baitaiteke izan, ez dugu ulertzen talde bakoitzaren ikuspegia gai honetan. Ez dugu ulertzen eta, noski, ezta partekatzen ere. Politikoki ulertezina iruditzen zaigu, errespetatu arren. Hemen ezin daiteke ahaztu puntu

honetara iristeko norena den erantzukizuna. Nork du erantzukizuna gaur, 2017ko martxoaren 2an, kiroldegi berria ez izatearena eta epe laburrean ere aurrez ez ikustearena? Nork du erantzukizun hori? EAJk, gaia zuzenean berak kudeatzen baitzuen eta orain ere bera baitago gobernuan. Horregatik, alegia, ezin dezakegu bereiz. Ulertzen dut, dena den, gutxiago ulertzen dut PSOeren aldetik, gauza bat eta bestea banaezinak izatea, ez delako fase berria. Guztia berdina da, prozesu berean sartuta dago. Eta, noski, horren aurrean ez gara kontrari jarriko, edozein modutan kontratu horrekiko lotura galdu behar dugu. Gurpilei ez dizkiegu oztopoak jarriko, baina gauza bat da hori eta bestelakoa eraman gaituenaren gurdira igotzea da. Nire iritziz, politikoki ez da ikuspegi koherentea eta argi dago ez dugula partekatzen. Hori azaldu nahi dugu, betiere gaiari buruz talde bakoitzaren ikuspuntua errespetatuz.

### **Euskadiko Sozialisten Juan Carlos Martínez Llamazares jaunaren esku hartzea.**

Egia esateko, ez nuen aipatu nahi, baina marmotaren egunean gaude. Xabier, marmotaren egunean gaude eta kiribilean jarraituko dugu betirako. Hau ateratzen den bakoitzean interpelatu behar al didazu? Koherentzia, koherentziarik ezari buruz, gobernu taldean PSOeren jokabideari buruz, planteatu al dugun... hori guztiari buruz interpelatu behar al didazu? Nire ustez ezin hobeki ezagutzen duzu eta ez dut hainbat aldiz errepikatu behar. Hala, benetan, marmotaren egunean gaudelakoan nago. Azkenean, kiribilean sartzen gara eta nire iritziz talde honek argi utzi du lehenengo minututik. Gogoratuko duzun bezala, Ikerketa Batzordearen buru izan nintzen eta ez nago susmopean. Hala, egun horretan aipatu nuena berriz azaltzen dut: egin dudana ezertaz ez naizela inolaz ere damutzen. Baina puntu honetaraino iritsita, DGMri esker edo DGMrik gabe, egoera batean gaude eta arazoa konpondu behar dugu eta ez dugu kiroldegirik.

Enpresa batzuk ditugu. Nik lehenengo aldiz komentatu nuen, 1.700.000 euroak itzuli behar al dituzten eztabaidatu baino gehiago, hori geroago gauzatu beharko da, nik jada hainbat Osoko Bilkuren esku hartzeetan aipatzen nuen guztiek batera joan behar dugula, pitzadurarik gabe, enpresek ez baitute erraz jarriko. Jada ikusten ari da Merkataritza Bazkundearekin prozedura paraleloari ekin diotela eta oztopo guztiak eta gehiago jarriko dizkigute bidean. Hala ere, oraindik ez diet talde batzuei jokabide hori azaltzen ikusi, hau da, *“guztiak batera eta gero geroakoak”*. Ez dut talde batzuetan ikusi eta nik lehenengo minututik argi utzi dut. Agian, hogei urtetik gora zuzenbidearen munduan aritu naizelako da eta, ondorioz, gauzek nola funtzionatzen duten badakit. Noski, ez dizkigute erraztasunak emango, eragozpen guztiak jarriko dituzte, lapurtu eta iruzur egiten saiatu ondoren, beren asmo bakarra, gainera, biztanleek ordaintzen duten dirua kentzea da.

Eta horren aurrean batzuegandik epelkeria ikusi dut, jokabide bakarra eta dirua kendu nahi diguten enpresen jarrera sala dezaten erreklamatu dudanean, arazoaren sorburura itzuli gara. Ildo horri jarraiki, arazoaren abiapuntua guztiok ezagutzen dugu eta zuk badakizu Alderdi Sozialistak zer ikuspegi izan duen une oro. Zugandik jakin da zein den hori, amaierara arte iritsi gara, Udal honetan alkate bat gaitzetsi dugu, gure kritika politikoa gehienera eraman dugu arduradun politikoari dagokionez. Ondo da, hala egin dugu, jada hori burututa dago eta, orain, enpresa batzuek dirua ordaintzea nahi dute eta kiroldegia egin gabe dugu, baina agertoki horretan aurrerapausoak emango ditugu.

Guk gobernu akordioa plantmandatuauenean, noski, *zurrumurru* hori legealdi guztian zehar izango genuela banekien: *“EAJrekin hitzartzen ari zarete, badakizue EAJk zer egin duen”*... Baina, ez, hobe da gauzak ez aldatzea eta legealdiz legealdi saltsa berean egostea eta aurrera egiten ez saiatzea. Nik jokabide hori ukatzen dut, ezeztatu ere bai. Zergatik? Nire iritziz Euskadiko Alderdi Sozialistaren esku hartzea gobernu taldean oso positiboa izango zelako eta hala suertatzen

ari da. Oso positiboa izaten ari da, bakoitzaren iritzia alde batera utzita. Hori zilegi da eta ez da apur bat ere aldatuko, Mari Carmenek eta EAJk baitakite, eztabaidak izan ditugulako, asko, gainera, baina orain etsai erkidea dugula erabaki dugu, ABEEa, alegia. Eta etsai erkidearen helburua oraintxe bertan Merkataritza Bazkudearen prozeduran zatitzea da. Baliogabetasuna ukatzen du eta, horrez gain, milioi batzuk atera nahi dizkigu, saihebidereen bat aprobetxatuz, etab.

Bestalde, noski, nik behintzat DGM enpresari eskertzen diot. Dena den, nire iritziz ez da esker onak emateko unea, oraintxe bertan ezetz uste dut. Orain egoera salbatu behar da, azkenean, enpresa horiekiko eragozpenak gainditzen saiatu behar dira, lasai uzteko. Hala, talde guztiakin eta herritarrekin zer kiroldegi nahi dugun eztabaidatu ahal izango dugu eta orain une horretan gaude. Baina *iraganean egin zutena jakinda, EAJrekin legealdiko hitzarmena zergatik, zertan zabalitzaten galderetara* itzultzen bagara, ondorengo garaitan alderdi horrekin ezer egiteko gaitasunik eza dugu. Ezin dezakegu baldintza udal zeregina, orokorra eta konplexua, diziplina askokoa, udalerrria gobernatzeko beharrezkoa dena, eta eskusiboki hurrengoaren mende utzi: “*ez, beste alderdia belaukatua utzi behar duzue*”. Ez da hori helburua.

Joan den legealdian bukaerara arte iritsi ginela uste dut, hiru alderdiren laguntzaz, baina orain haztea tokatzen da eta positiboan hitz egin behar dugu. Beharrezkoa den guztietan errepikatuko dut. Badakit ez dudala legitimaziorik, lehenengo Osoko bilkuran aipatu zenuenari jarraiki: “*EAJrekin gobernatzeko ez duzue legitimaziorik, gertatutakoa kontuan hartuta*”. Ondo da, nahikoa ere bai, enkargua hartu eta sakelari gordeko dut eta, kito, baina utz iezaiozu talde honi bere erabakiak har ditzan. Aurrekoari eutsiz, bereizte lanaren ondoren, gobernu taldean gure partaidetza Leioako herritarrentzat positiboa delakoan gaude eta oraintxe bertan hori azpimarratu nahi dut. Bestalde, hori nahikoa ez bada, talde bakoitza bere hitzen arduraduna eta bere erabakien morroia da eta iruditzen zaiona egin dezake.

Baina, berriz nabarmendu nahi dut: une honetan enpresena desegin behar da, lasai uzteko eta kontua zeron gelditzeko. Hala, prozesu parte hartzaileen bidez edo udalerrri honetan hitzartutakoari jarraiki, guztiak lanean hasteko aukera izango dugu ahalik eta kiroldegi onena egiteko eta, xede horrez, guztiok batera jardun behar dugu arraunketan. Nik talde guztiari eskatzen diet, kasu honetan antzeman dezaten zein den etsai erkidea. Izan ere, ez da Udal honetako talderik, lapurtu nahi izan duten enpresak baizik eta harrapatu arren, prozesuan irabazia atera nahi izaten jarraitzen dute.

### **Esnatu Leioa Udal taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea.**

Ikus dezagun. Xabierrek egin digun interpelazioari buruz. Gure taldeak argitzeko printzipioa du ados gaudenaren alde bozkatuko duela, herriarentzat onuragarria dela pentsatzen badugu. Ildo horri jarraiki, berdín zaigu norekin bozkatu. Hemen askotan eskolako jolastokian gaudela dirudi. PPrekin bozkatzen badugu, batzuk PPrekin bozkatu izana aurpegiratzen digute, eta ez da horrela. Eta bat zatozelako edozeinekin bozkatzen baduzu, bakoitzak bere botoaz erantzun beharko du, ez gainerakoek ematen duten botoaz. Gure taldean proposamenari erreparatzen diogu, ez gara konturatzen norik egiten duen, ezta azkeneko ez dakit zenbat urtetan zer egin duen horrek ere. Bestela, ezingo genuke inorekin ezer bozkatu.

Hona etortzen gara, askotan gatoz bat eta legealdian egin genuen lehenengo gauza da eta zuk kritikatu zenuen, ez zegoen legealdiari buruz borondateak trukatzeko txanda orokorra, hala hasi eta kritikatu zenuen. Hala eta guztiz ere, askotan ez gaude ados Alkatetzak zuri erantzuteko erabiltzen duen moduarekin eta, modu berean, gai politiko askotan ere ez gaude ados zurekin, baina ez ditugu belarri-babesak jartzen. Horregatik, ez dugu gustuko zuri modu txarrean

erantzutea, erantzuten zaizun bezala, gure iritziz lantzen ari garenari begiratu behar baitzaio. Beraz, ez zaigu axola norbaitekin bat etortzea, inoiz ez.

**Euzko Abertzaleak Taldeko M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Nire ustez, Xabier, DGM enpresari zoriontzeko zure asmoa ez da zintzoa. Egia irudituko litzaidake ofizioz berraztertzearen eta kontratu horiek guztiak baliogabetzearen alde bozkatuko bazenute, bere egunean Administrazio Kontseiluak hartu zituen bi erabakiak baitira. Horregatik, ez zait zintzoa iruditzen, hau da, ez da kontsekuentea. DGM enpresa zoriontzen duzu, alkate andreaki eta gobernu taldeari ere zoriontzea eskatu diozu, salaketekin honaino iritsi baikara, baina, gero, ofizioz berraztertze erabakia hartzean abstenitu zarete. Lehen oso ondo ulertu dizut. Hitzez hitz esan duzu bere egunean aurka zinetela eta oraindik ere zuen ikuspegia kontrakoa dela, zure esku hartzean hala azaldu duzu. Orduan, hori esaten ari nintzenez, ez nengoen aipatzen kontra bozkatuko duzuela, ezin hobeki ulertu dut.

Dena den, harrigarriak iruditzen zaizkit hainbat iruzkin, bat ez datozelakoan. Hitzez hitz hurrengo esan duzu: *“edozein modutan kontratu hau baztertu behar dugu”*, ez, edozein modutan ez, ofizioz prozesu guztiari ekin behar diogu eta akordio guztiak baliogabetu behar dira, likidaziora iristeko... Hala esan duzu: *“edozein modutan”*. Egingo dugu eta horretan gaude, legearekin bat, beti egin dugun bezala gai honekin eta bestelakoekin.

Halaber, kontratua ustela dela adierazi duzu. Modu horretan azaldu duzu: kontratu ustela. Baina argitu nahi dut bi enpresen arteko kontratu ustela dela eta argi geldi dadila ez gobernu talde honek, ez aurrekoak, ez zutela gaian ustelkeriaren susmorik izan. Berriz aipatzen dut auzitegiek beren irizpena eman zutela, baita fiskaltzak ere.

Rubeni erantzunez, aipamenak direlako: *“Batzetan ez dugu gustuko Alkatetzak Xabierri erantzundakoa”* Ez? Ondo ulertu al dut? Nire ulermenari buruzko zalantzak sortzen ari baitzaizkit. Dena den, suposatzen dut askotan Xabierrek niri hitz egiteko erabiltzen duen modua ez zaizula gustatuko, bat etortzeagatik esan nahi dut.

**Esnatu Leioa Udal taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren** esku hartzea.

Nire iritziz, berak hitz egiten duenean, ohiz, kritika politiko gogorra egiten du, baina ez du aipamen pertsonalik gauzatzen. Alkatearen erantzunetan, ordea, bai daude halakoak.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Tira, ez gara eztabaidatzen hasiko, nire ustez elkar egiten ditugu aipamenak baita “irainak” (komatxoaren artean jarrita) Xabierrek niri egindakoak ere.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Bai, lehenengo Esnatu taldeko bozeramaileari eskertu bere azkeneko esku hartzea.

Eta, bigarren, Talde Popularrak esaten duen guztia zintzoa da eta ezin dugu inolaz ere onartu Osoko Bilkura honetan esaten ditugun hitz guztiak zintzoak ez direnik. Hori baieztatu nahi dugu.

Amaitzeko, larrienera joko dut. Bai, ustelkeria politikoaren itxura egon da eta Fiskaltzak zuriaren gainean beltza aipatu zuen bere txostenean, hau da, ustelkeria politikoaren arrastoak edo aztarnak zeudela. Zer zioen Fiskaltzak? Preskribatuak zeudela. Ildo horri jarraiki, Alkatetzak aitortzen hori egitea oso ondo gelditzen da, ez duela inolako... Baina, bai, egon da eta Fiskaltzak bere idazkian ustelkeria politikoaren arrastoak zehazten zituen. Argia eta nabarmena zen

Fiskaltzak zioena, baina ezin zen ikertu, ustezko delituak preskribatuak baitzeuden. Beraz, arrastoak ageri ziren, kasu honetan irregulartasun politikoaren aztarnak eta ez da eskusiboki enpresen gaia. Beraz, eskuak garbitzea ez dugu onartzen.

Eta, berriz ere, Esmatu eta PSOERI: zer eskutan gaude puntu honetan? Ez dut alderdi gehiagoz hitz egingo, bakarrik Pinosoloko kiroldegiaren puntu zehatzaz.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Amaitzeko, Fiskaltzak kasua artxibatu zuen eta aztertutako alderdi batzuk preskribatuak zeudela adierazi zuen, baina ez guztiak. Hortaz, artxibatu zuen ez preskribatuak zeudelako, ikertu eta ustelkeria politikoaren arrastorik ez zegoelako baizik. Bozkatzeari ekingo diogu.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena irakurrita eta bozketara ezarrita, Osoko Bilkurak, hemeretzi aldeko botoengatik, onartu egin du Alkateak bidalitako proposamena bere osotasunean. Aldeko botoak honako hauek izan dira: Euzko Abertzaleak taldeko bederatziz zinegotzietan, Esmatu Leioa taldeko lau zinegotzietan, EH-Bildu taldeko hiru zinegotzietan eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzietan. Abstentzioak: Alderdi Popularreko bi zinegotzietan.

## AURREKARIAK

**LEHENIK.-** 2009ko abuztuaren 29an LEIOA KIROLAK, S.A.U. enpresak Pinosolo kirolgune berriko proiektua, lanen zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloetako koordinazioa eta lanak egiteko prozedura ireki bidezko kontratuaren lizitazio publikoa deitu zuen

2011ko urtarrilaren 31n, lizitazio prozeduraren ondoren, LEIOA KIROLAK, S.A.U. enpresaren Administrazio Kontseiluak, kontratazio organo gisa, kontratua behin-behinean AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A. eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, S.A. enpresek osatutako Aldi Baterako Enpresen Elkarteari (PINOSOLO ABEE) adjudikatu zion, eskaintza tekniko eta ekonomiko onena jo zelarik.

Aipatutako lizitazio prozeduran ARCAIN INGENIERÍA Y ARQUITECTURA, S.L. enpresak laguntza eta aholkularitza lanak egin zituen LEIOA KIROLAK, S.A.U.-ren Administrazio Kontseiluarentzat.

2011ko otsailaren 11n, LEIOA KIROLAK, S.A.U.-ren Administrazio Kontseiluak kontratua behin-betiko PINOSOLO ABEEri adjudikatzea erabaki zuen.

2011ko apirilaren 1ean *“Pinosolo kirolgune berriko proiektua, lanen zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloetako koordinazioa eta lanak egiteko kontratua”* formalizatu zuten LEIOA KIROLAK, S.A.U.-k eta PINOSOLO ABEE-k.

2012ko uztailearen 12an LEIOA KIROLAK, S.A.U.-ren Administrazio Kontseiluak, gai-ordeneko 5. puntuan, kontratuaren suntsiarazpen adostua egiteko izapideei hasiera ematea erabaki zuen, egoera ekonomikoa eta honen etorkizuneko aurreikuspenen aurrean, bai eta Aurrekontu Egonkortasunerako Legearen balizko ondorioak zirela eta, ez baitzen zuzentzat jotzen egungo kontratuari eustea.

2012ko urriaren 3ko LEIOA KIROLAK S.A.U. enpresaren Lehendakariaren idazkiaren bidez, PINOSOLO ABEEri Administrazio Kontseiluaren erabakia jakinarazten zaio, hau da, adjudikatutako kontratuaren elkarrekin adostutako suntsiarazpen espedienteari hasiera ematea.

Hala ere, 2012ko urriaren 11ko idazkiaren bidez (sarrera erregistroa 6076), PINOSOLO ABEEK bere borondatea kontratua betearaztearekin jarraitzea dela adierazten du eta LEIOA KIROLAK, S.A.U.-ren Administrazio Kontseiluak proposatutako elkarrekin adostutako suntsiarazpenarekin ez dagoela ados.

Bitartean, 2011ko urtarrilaren 24ko datarekin DGM de Arquitectos, S.L.P.-k Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean salaketa idazki bat aurkeztu zuen ustezko informazio trukaketa bat zela eta ARCAIN INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L. eta AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A. eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, S.A. enpresek osatutako Aldi Baterako Enpresen Elkartearen artean, dena PUJOL ARQUITECTURA, S.L.P.-ren laguntzarekin.

Ustezko lehiaren aurkako praktikengatik zehapen-espedita ireki eta izapidetu ondoren 05/2012 zenbakiarekin, **2013ko maiatzaren 21ean Lehiaren Euskal Agintaritzak honako Erabaki hau hartu zuen:**

**“LEHENIK.**- *Espediente honetan Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1 artikuluaaren arau-haustea egiaztatu dela deklaratzera, erantzulea ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, S.L. enpresa delarik.*

**BIGARRENIK.**- *Espediente honetan Lehiaren Babesari buruzko Legearen 3 artikuluaaren arau-haustea egiaztatu dela deklaratzera, erantzulea ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, S.L. enpresa delarik.*

**HIRUGARRENIK.**- *Espediente honetan Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1 artikuluaaren arau-haustea egiaztatu dela deklaratzera, erantzulea AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A. enpresa delarik.*

**LAUGARRENIK.**- *Espediente honetan Lehiaren Babesari buruzko Legearen 3 artikuluaaren arau-haustea egiaztatu dela deklaratzera, erantzulea AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A. enpresa delarik.*

**BOSGARRENIK.**- *ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, S.L. enpresari 89.000 euroko zigorisuna ezartzea.*

**SEIGARRENIK.**- *AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A. enpresari 45.000 euroko zigorisuna ezartzea.*

**ZAZPIGARRENIK.**- *LEIOA KIROLAK S.A.U.-ri interes publikoaren aurkakoak diren lege kontrako jokabideak enkaitzeko agintzea. Bera, arau-hausteei ez die “Kirolgune” kontratuaren suntsiarazpenetik eratorritako ezin motatako kalte-ordainik ordainduko edo kalte-galerengatik ordainketarik egingo, eta hala behar izanez gero, kontzeptu horretan jadanik ordaindutako kopuruak berreskuratu beharko ditu.*

**ZORTZIGARRENIK.**- *AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A.-k, ARCAIN INGENIERIA Y ARQUITECTURA, S.L.-k eta LEIOA KIROLAK S.A.U.-k ebatzen honetan agindutakoa bete dutela justifikatu behar dute Lehiaren Euskal Agintaritzaren Ikerketa Zuzendaritzaren aurrean.*

**BEDERATZIGARRENIK.**- *Lehiaren Euskal Agintaritzaren Ikerketa Zuzendaritzari Ebatzen honen betetze osoa zaindu eta jagon dezan premiatzea.*

**HAMARGARRENIK.**- *Espediente honetan ez dela egiaztatuta Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1. artikulua eta 3 artikulua arau-haustea ere deklaratzera, PUJOL ARQUITECTURA, SLren jokabideari dagokionean.*

**HAMAIKAGARRENIK.**- *Espediente honetan ez dela egiaztatuta Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1. artikulua eta 3 artikulua arau-haustea ere deklaratzera, EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ enpresaren jokabideari dagokionean.*

ARCAIN INGENIERIA Y ARQUITECTURA SLk eta AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SAK administraioarekiko auzi-errekurtsioak jarri zituzten 2013ko maiatzaren 21eko Lehiaren Euskal Agintaritzaren Erabakiaren aurka (407/2013 eta 428/2013 prozedura zk.), eta beraien gainean HIRUGARREN AURREKARIAN aipatzen diren epaiak eman dira.

2013ko ekainaren 26ko datarekin LEIOA KIROLAK SAUko Presidenteak Lehiaren Euskal Agintaritzari ofizio bat bidali zion, hitzez hitz, honako hau dioena:

*“Agintaritzaren borrek AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SL subjektu arau-hausletzat jo eta zigortzen duenez, baina EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, SARI ez, eta LEIOA KIROLAK SAK aipatutako kontratua merkataritza-sozietate biek osatutako Pinosolo ABEEri adjudikatu ziolarik, Agintaritzaren borri eskatzen diot, agindua zorrotz betetzeko helburuarekin, “Pinosolo Kirolgunea” kontratuaren suntsiarazpena burutzeko moduari buruzko jarraibide zehatzak, horretarako legeko arazoak baitaude.”*

Eskaera hau dela eta, 2013ko abuztuaren 1ean eta 5868 sarrera erregistro zenbakiarekin LEIOAKO UDALEKO Erregistro Orokorrean, Lehiaren Euskal Agintaritzaren idazki bat jaso zen, honako hau dioena:

*“Lehiaren Euskal Agintaritzaren ebaspena eman aurretik, LEIOA KIROLAK SAUk Pinosolo ABEEri (AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA) adjudikatutako Pinosolo Kirolguneko proiektua eta obrak egiteko kontratuaren suntsiarazpen-espeditua ireki zuen.*

*Lehiaren Euskal Agintaritzaren ebaspenak zuzen eragiten dio aipatu kontratuaren suntsiarazpenari, LEIOA KIROLAK SAUren herri-interesen aurkako jokabideen ondorioen enkaitzea agintzen dion neurrian.*

*Horregatik, LEIOA KIROLAK SAUren aipatu kontratuaren suntsiarazpenak LEAko PINOSOLO LEHIAKETA 05/2012 zigor-espedituaren ebaspenean ezarritako obligazioak barne hartu behar du, 15/2007 Legearen (Lehiaren Babesari buruzkoa) aurkako jokabideak enkaitzea lortzearen.*

*Bereziki, erreferentzia egin behar du LEIOA KIROLAK SAUk ezin diela “Kirolgunea” kontratuaren suntsiarazpenetik eratorritako ezin motatako kalte-ordainik ordainduko edo kalte-galerengatik ordainketarik egingo arau-hausletzat jotzen diren enpresei, ARCAIN eta AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA (Pinosolo ABEEen % 70ek parte hartzea a du) eta hala behar izanez gero, kontzeptu horretan jadanik ordaindutako kopuruak berreskuratu behar du.*

*Azkenik, LEIOA KIROLAK SAUk aipatu ebaspenaren agindutakoa bete duela justifikatu behar du LEAren Ikerketa Zuzendaritzaren aurrean”*

2014ko martxoaren 1an SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoal Txosten Juridiko bat eman zuen, non Leioako Pinosolo Kirolguneko proiektua, lanen zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloetako koordinazioa eta lanak egiteko kontratuaren egoera juridikoa aztertzen den.

2014ko apirilaren 29an LEIOA KIROLAK SAUren Administrazio Kontseiluak, gai-ordeneko 3. puntu honako erabaki hau hartu zuen:



*“Pinosolo Kirolguneko proiektua, lanen zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloetako koordinazioa eta lanak egiteko kontratuaren egikaritzea behin-behinean bertan behera uztea erabaki aurretik, adjudikaziodunari, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SAK eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SAK osatutako ABEEri (PINOSOLO ABEE) Erabaki honen berri ematea, 2014KO martxoaren 17an SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoak emandako Txosten Juridikoarekin batera, 15 eguneko epean (15) egoki irizten dizkion alegazioak aurkez ditzan.”*

2014ko maiatzaren 28an LEIOA KIROLAK SAUren aurrean Javier Blanco Sala jaunak PINOSOLO ABEEren izenean eta hura ordezkatzuz, alegazio-idazki bat aurkeztu zuen, non berariaz adierazten zuen bere aurkakotasuna Sozietatearen Administrazio Kontseiluak proposatutako behin-behineko etetearen aurrean.

Alegazi-idazki horren aurrean, 2014ko uztailaren 22an, LEIOA KIROLAK SAUren Administrazio Kontseiluak honako erabaki hau hartu zuen:

*“1.- Alegazioak osoki gaitzestea, Javier Blanco Sala jaunak, PINOSOLO ABEEren izenean eta hura ordezkatzuz eta bertako gerente bakar gisa sinatutako idazkian azaldutakoak. Alegazio horietan berariaz adierazten du bere aurkakotasuna 2014ko apirilaren 29an Sozietatearen Administrazio Kontseiluak proposatutako behin-behineko etetearen aurrean, LEIOA KIROLAK SAUren aurrean 2014ko maiatzaren 28an aurkeztu zena. Gaitzespen honen justifikazio bezala 2014ko uztailaren 2an SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoak emandako Txosten Juridikoa erabili da, zeina Erabaki honetan atxikitzen den era bereizezinean.*

*2.- “2011ko apirilaren 1eko Pinosolo Kirolguneko proiektua, lanen zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloetako koordinazioa eta lanak egiteko kontratuaren egikaritzea behin-behinean etetea.*

*3.- “2011ko apirilaren 1eko Pinosolo Kirolguneko proiektua, lanen zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloetako koordinazioa eta lanak egiteko kontratuaren egikaritzearen suntziarazpen-akta egitea, non berau eragin duten zirkunstantziak eta aipatutako kontratuaren egikaritzearen egiteko egoera adieraziko diren.*

*4.- Adjudikaziodunari, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SAK eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SAK osatutako Aldi Baterako Enpresen Elkarteari (PINOSOLO ABEE), Erabaki hau jakinaraztea, 2014ko uztailaren 2an SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoak emandako Txosten Juridikoarekin batera.*

2014ko irailaren 15ean, LEIOA KIROLAK SAUren aurrean PINOSOLO ABEEren izenean eta hura ordezkatzuz, gerente bakar gisa, Javier Blanco Sala jaunak izenpetutako beste alegazio idazki bat aurkeztu zen, non berriro adierazten den adierazitzat jo dadila erabakitako suntziarazpenarekiko desadostasuna ondorio guztietarako, eta honako hau eskatzen den:

*“ ... LEIOA KIROLAK SAUK, mesedez adierazteko xehintzuk diren bidezko diren belegiteak haren Kontseiluaren Erabakiaren kontra, noren aurrean eta zein epean aurkeztu behar diren.*

*Halaber, entitatearen Administrazio Kontseiluaren saioen akta guztien kopia guri ematea eskatzen dugu, kontratuaren adjudikazio egunetik gaur arte, haren eztabaidak Pinosolo Kirolgunearen erakuntza eta jarduketan gaineakoak izan diren aldetik.”*

Ondoren, LEIOA KIROLAK SAUren Administrazio Kontseiluak honako **ERABAKI** hau hartu zuen:

“1.- AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A.k eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, S.A.k (PINOSOLO ABEE) osatzen duten Adi Baterako Enpresen Elkarteari zera adieraztea, 2014ko uztailearen 22an LEIOA KIROLAK SAUren Administrazio Kontseiluak hartutako kontratua suntsiarazteko Erabakiaren gaineko eztabaida ebatzteko, arbitraje-prozedurara jo behar duela Bilboko Merkataritza Ganberako Arbitraje Auzitegira, Pinosolo kirolguneko proiektua, lanen zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloko koordinazioa eta obrak egiteko kontratua zuzendu zuten Administrazio Baldintza Agiri Orokorretako 18 klausulak ezartzen duena betez.

2.- Proceder a facilitar a la Unión Temporal de Empresas compuesta por AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A.k eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, S.A.k (PINOSOLO ABEE) osatutako Aldi Baterako Enpresen Elkarteari entitatearen Administrazio Kontseiluaren saioen akta guztien kopia belaraztea, kontratuaren adjudikazio datatik gaur egunera arte, haren eztabaidak Pinosolo Kirolgunearen erakuntza eta jarduketan gainekoak izan diren aldetik.

3.- Ajudikazioadunari, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A.k eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, S.A.k osatutako Aldi Batero Enpresen Elkarteari (PINOSOLO ABEE) erabaki honen berri ematea.”

**BIGARRENA: LEIOA KIROLAK, SAU-REN DESEGITEA:** 2014ko urriaren 17an, LEIOAKO UDALETXEAN Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanen eta Hirigintzako Zuzendari Orokorren idazkia hartu zen, non, besteak beste, honako hau esaten zuen:

“LEIOA KIROLAK, S.A.k aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, 2013ko ekitaldiari dagokion dokumentazioaren gainekoa, finantza-desoreka antzematen da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bederzatzigarren xedapen gehigarriaren terminoetan.

Hori dela eta, LEIOA KIROLAK SA-ri aipatutako zuzenketa-plana aurkeztea eskatzen zaio. Plan honek ondare-ekarpenak eduki abal izango ditu edo LEIOAKO UDALAREN kapital-zabalkuntzen harpidetza, honek egiaztatzen baldin badu 2013 ekitaldiko aurrekontuaren egonkortasuneko helburuak eta zor publikoaren gainekoak bete dituela, eta ordainketak egiteko bere batez besteko epeak berankotasunari buruzko araudian aurreikusten den gehieneko epea ez badu gainditzen 30 egunetan baino gehiagotan.

2014ko abenduaren 31n zuzenketa hau bete ez bada, toki-erakundeak, gehienek 6 hilabeteko epean urteko kontuen onarpenetik zenbatzen hasita edo 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren likidaziotik, desoreka egoeran jarraitzen duten erakundeak desegin dituzte.”

Jakinarazpen hau ikusi ondoren, LEIOAKO UDALEKO Osoko Bilkurak, 2014ko azaroaren 28an egindako premiazko ohiz kanpoko saioan, LEIOA KIROLAK, SAU sozietatea desegiteko proposamenaz aritu zen, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

“1.- Bizkaiko Foru Aldundiaren errekerimendua, jadanik aipatua, 2013ko ekitaldian aipatutako Sozietatean finantza-desoreka ikusten den aldetik, eta honek ondorioz dakar, Udaleko Kontu-bartzailearen alde aurreko txostenarekin, aipatutako desoreka zuzentzeko plan bat izapidetu beharko litzatekeela eta 2014ko abenduaren 31 baino lehen egin ezean, Sozietatea desegin beharko litzatekeela.

2.- 2015 urteko Aurrekontu bateratuan LEIOA KIROLAK, SAUrena sartu behar izatea, eta ildo honetan, Zuzenketa-Planaren aurretik izapidetu beharko litzateke, zainaren onarpena ezinezkoa litzatekeen, ezinezkoa izango zelako Sozietatean aurrekontuaren egonkortasunaren helburuak bete.

3.- Gaur egun Sozietatearen biziraupena justifikatuko lukeen helbururik ez egotea. Izan ere, alde batetik, haren sorrera ekarri zuen Pinosolo Kirolgunea egiteko kontratua suntsiarazpen egoeran dago, eta beste alde batetik, 2014ko

*otsailaren 27an, Osoko Bilkurak, aho batez, Torresoloko kirol instalazioen eta osagarrien kudeaketa mandatua ezetzatzea erabaki zuen, zeina LEIOA KIROLAK, SAU-ren existentzia justifikatzen lezakeen jardura bakartzat jotzen den.”*

Hortaz, LEIOAKO UDALEKO Osoko Bilkurak, aho batez, LEIOA KIROLAK SA-ren Administrazio Kontseiluaren Erabakia berrestea onartu zuen, eta aipatutako Sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiari baimena eman zion haren desegitea erabakitzeko, Udalak aipatutako desegindako Sozietatearen oinordekoa izango dela onartuz, haren eskubideak eta betebeharrak, eta ahalmena izango duela bidezkozat jotzen diren ekintza legalak burutzeko, hala behar izanez gero.

**LEIOA KIROLAK SAU-ren Akziodunen Batzar Orokorrak, 2014ko azaroaren 28an egindako saioan honako hau erabaki zuen aho batez: aipatu LEIOA KIROLAK SAU Sozietatea desegitea, zeinaren eraketa Mariano Javier Gimeno Gómez-Lafuente Notario jaunaren aurrean burutu zen 2008ko uztailearen 16an eta aipatutako desegitea formalizatzeako behar diren izapideak egitea, Administrazio Kontseiluak Likidazio Batzorde gisa eratzten delarik. Udala haren eskubide eta obligazio guztietan desegindako Sozietatearen oinordekoa dela erabaki da, eta hortaz, bidezkozat jotzen diren ekintza legalak burutzeko ahalmena du, hala behar izanez gero.**

**HIRUGARRENA.-** 2016ko otsailaren 15ean, EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salak 44/2016 epaia eman zuen, 428/2013 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari zegokiona, non 2013ko maiatzaren 21eko Ebazpena aurkaratzen zen, Lehiaren Euskal Agintaritzarena 05/2012 zigor-espeditetan, Pinosolo Lehiaketa, non erabakitzen den deklaratzeko egiaztatu dela Lehiaren Babesari buruzko Legearen **1.1. artikulua** urratu egin dela, ARCAIN, INGENIERIA Y ARQUITECTURA SL erantzulea izanik, eta deklaratzeko egiaztatu dela Lehiaren Babesari buruzko Legearen **3 artikulua** urratu dela, erantzulea aipatutako enpresa izanik, eta 89.000 euroko isuna jartzen zaio arau-hausleari.

Laburbilduz esateko, Epaia ulertzen du ARCAINen aldetik (eta gero ikusiko dugu PINOSOLO ABEEren aldetik ere, zehatz-mehatz, AROS enpresaren aldetik) lehiaren defentsaren gain jokabide zigorgarria egon zela, eta ziurtzat jotzen du Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1. artikulua urratzeko borondateen akordioa egon zela. Izan ere, Auzitegi Nagusiak dioenez 2013ko abenduaren 27ko epaian 1 artikulua mota zigortzailean tipifikatutako jardura da lehia askea faltsutzeko joera duen edozein akordio edo adostutako jokabide, edo kontzienteki paraleloa, eta horrek bi edo subjektu gehiagoren elkartzeko eskatzen du. Mota zigortzaileak ez du eskatzen lehia askearen urraketa lortzea, baizik eta jokabideak helburu horretara jotzea, arrakasta izanik zein ez. Jokabidea lehia askearen faltsutzea lortzeko gai izan behar da (BIGARREN FUNTS JURIDIKOA EAEANE 44/2016).

ARCAIN eta PINOSOLO ABEEren inguruan dagoena zera da, Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1 artikulua klausula zigortzaile orokorraren arabera ezin dela lehia faltsutu akordio edo hitzartutako praktiken bidez. *“Testuinguru esanguratsu eta oinarritzailea zera da, kirolgune baten adjudikazioa egiteko lehiaketa publikoaren deialdia egin baino oso alde aurretik, plano baten filtrazio informatikoaren bidez agerian gelditu zen gerora ABEE lizitatzailea izango zen arkitektura bulego bati garaia baino lehenago gaiari buruz eskatutako lan batzuk etorkizuneko lehiaketa horren baldintza teknikoaren agiriak egin behar zituen sozietatearen eskuetan zendela (50 milioi euro inguruko balioarekin); hala, deialdia egiten zuten Administrazioaren aipatu sozietate laguntzaileak bazituen kontuan beste lan baterako proiektua zela eta (Olatu Artifiziala), lizitatuko zen kirolgunearekin erlazionatuta eta koherentzia arkitektonikoa gorde behar zutenarekin. Ondoren, ABEEK proiektu hori berbera aurkeztu zuten lehiaketa izapidetzen ari zenean, baldintza teknikoaren agerian sozietate egileak parte hartu zuten ondorengo ondoko bi Ebaluazio Batzordeetan, zeinetan aipatutako ABEEK baloraziorik onena lortuko zuten, eta horrekin batera, behin behineko adjudikazioa. Arrazoiak inferentzia garbia ateratzen da, bi sozietateen artean, edozein izanik haien arrazoiak eta komisio maila, Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1 artikulua debekatzen duen nolabaiteko borondateen ituna egon*

*zela, eta itun honek nahi zen lorpena iristeko bide egokiak bere esku zituela. Helegiteak balioan jarri nahi dituen argudioek ez diote indarrik kentzen inferentzia garbi boni.”*

Hortaz, ARCAIN enpresak Lehiaren Babesari buruzko Legearen **1.1 artikulua** urratu zuen.

Aipatutako epaiarekin oso teilakatua dago Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren ondorengo epaia, 407/2013 helegiteari dagokiona, baina kasu honetan AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SAK egindako aurkaratzearen gainekoa Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2013ko maiatzaren 21eko aipatutako Ebazpenaren aurka.

Desberdintasun hori salbu subjektu auzi-jartzaileari dagokionean, Salak bere egiten ditu aurreko Epaiaren arrazoibideak, baina ez dator bat Lehiaren Euskal Agintaritzaren LEIOA KIROLAK SAUK arau-hausleei “Kirolgune” kontratuaren suntsiarazpenetik eratorritako kalte-ordainik ez ordaintzeko aginduari dagokionez, zeren eta, nahiz eta Lehiaren Babesari buruzko Legearen **53.2 c) artikulua** herri interesen aurkako jokabideak enkaitzea helburu duten neurri zuzentzaileak hartzea ahalbidetzen duen, erabakitako neurri zuzentzaileak organo adjudikatzailaren eskumenetan eskua sartzea da sozietate adjudikaziodunarekin lotzen duen kontratu-harremanaren esparruan. LEIOA KIROLAK SAUren presidentek 2012ko urrian kontratua suntsiarazteko espedienteari hasiera eman ondoren, “*amaiera eman zion egintza*” eta helegitea jarri zuen enpresaren (AROS) alde ezarri zitekeen balizko kalte-ordaina ezin dira eraginkortasunik gabe utzi aztertzen ari den ebazpen zigortzailearen bidez, alde batera utzi gabe kontratatzaileak, bidezkoa jotzen badu, **egintzen berrikusketa prozedurari hasiera eman dakiokela, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII Tituluaren I Kapituluaren aurreikusitakoarekin ados, Lehiaren Euskal Agintaritzak ikusitako arau-hausteetan oinarrituta.**

Dena den, kontuan hatu behar da **2016ko urriaren 2an indarrean sartu dela lege berri hau: 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, azaroaren 26ko 30/1992 Legea indargabetzen duena, eta bere Hirugarren Xedapen Iragankorrean honako hau dioena: “Lege hau indarrean sartu ondorengo ofizioz berrikusteko prozedurak, bertan ezarritako arauen arabera gauzatuko dira”.**

Hortaz, ofizioz berrikusteko prozedura hau, aipatutako urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen xedapenen arabera arautuko da.

**LAUGARRENA.-** 2016ko azaroaren 30ean, LEIOAKO UDALAREN Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

**“Lehenik.-** LEIOA KIROLAK SAUren Administrazio Kontseiluaren erabakiak ofizioz berrikusteko prozedurari hasiera ematea. Honako hauek dira:

- Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2011ko urtarrilaren 31koa, kontratazio organo gisa hartu zuena eta zehinaren bidez “PINOSOLO KONTRATUA” AROS, ESTUDIO DE ARQUITECTURA SAK eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SAK osatutako PINOSOLO ABEEri behin-behinean eman zitzaion.
- Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2011ko otsailaren 11koa, zehinaren bidez kontratua behin betiko eman zitzaion PINOSOLO ABEEri.

Berrikusteko prozedura honen arrazoiak 39/2015 Legearen **47.1 artikuluen a), f) eta g) ataletako deuseztasun-arrazoiak** badaudela da.

**Bigarrenik.**- PINOSOLO ABEEri eta gainerako lizitatzaileei audientzia izapidea ematea hamabost eguneko epealdian erabaki hau jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, egoki derizkien dokumentu eta frogagiriak aurkeztu eta alegazioak egin ahal izan ditzaten, ondore horietarako administrazio espedientea eskura jarriko delarik.”

**BOSGARRENA.**- 2017ko urtarrilaren 2ko datarekin Guillermo Ibarrondo Zamakona abokatuak alegazio idazkia aurkeztu du LEIOAKO UDALAREN aurrean, PINOSOKO ABEEren izenean eta hura ordezkatzuz. Idazkian honako hau esaten du: “ez dago ezekin motiborik aipatutako egintzen deuseztasuna deklaratzeko Udaltzaria gaitzen duenik, ofiziozko berrikusteko prozeduraren bidez, eta beraz, Osoko Bilkuraren erabakia ondorioz gabe utzi beharko luke, prozedura amaituzat jo eta, izapide gehiagorik gabe, espedientea itxi.”

**SEIGARRENA.**- 2017 otsailaren 6an (1259/17 sarrera erregistroa), Sanz&Saiz Abogados SL bulegoak txosten juridikoa aurkeztu zuen, Pinosolo ABEEk Leioako Udalaren 2016ko azaroaren 30eko Osoko Bilkuraren erabakiaren aurka aurkeztutako alegazioei buruzkoa.

**ZAZPIGARRENA.**- Giza Baliabideen eta Kontratazioaren Udal Teknikariak, Alexander Mendiola Castro jaunak, 2017ko otsailaren 13an Sanz&Sainz bulegoak bidalitako txosteneko hainbat gairen zuzenketa beharrari buruzko txostena eman zuen.

**ZORTZIGARRENA.**- 2017ko otsailaren 16an (1669/17 sarrera erregistro zenbakia) Sanz&Sainz Abogados S.L. bulegoak Pinosolo ABEEk 2016ko azaroaren 30eko Leioako Udaleko Osoko Bilkuraren aurka jarritako alegazioen gaineko beste txosten juridiko bat bidali zuen, bertan Udal Teknikari Alexander Mendiola Castrok egindako zuzenketa sartuz.

Aintzat hartzen dira aipatutako txostenetan jasotzen diren ZUZENBIDE-OINARRIAK, honako ebazpen honen motibazioa direnak:

## **I.- URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN V TITULUAREN I KAPITULUAN AURREIKUSITAKO EGINTZEN BERRIKUSTEA.**

Aurrekarien azalpenean ikusi ahal izan denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epai irmoak, 407/2013 administrazioarekiko auzi-errekurtsoren gainekoa, “*obiter dicta*” aztertzen du Lehiaren Euskal Agintaritzaren ahalmena LEIOA KIROLAK SAURI (ZORTZIGARREN ZUZENBIDE-OINARRIA) “*Kirolgume*” kontratuaren suntsiarazpenetik eratorritako kalteengatik arau-hausleei kalte-ordainik ordaintzeari uko egiteko agindua emateko, zeren eta, nahiz eta Lehiaren Babesari buruzko Legearen **53.2 c) artikulua** herri interesen aurkako jokabideak enkaitzea helburu duten neurri zuzentzaileak hartzea ahalbidetzen duen, erabakitako neurri zuzentzaileak organo adjudikatzailaren eskumenetan eskua sartzeko da sozietate adjudikaziodunarekin lotzen duen kontratu-harremanaren esparruan, eta honetatik ondorioztatzen du ebazpen zigortzaileak ezin diola eraginkortasunik kendu balizko ebazpen egintzari, **alde batera utzi gabe kontratatzaileak, egoki baderitzo, prozedurari hasiera eman diezaiola azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII Tituluaren I Kapitulan (gaur urriaren 1eko 39/2015 Legearen V Tituluaren I Kapitulan) aurreikusitako berrikusketari, Lehiaren Euskal Agintaritzak ikusitako arau-hausteetan oinarrituz.**

Gauzak horrela, egokia da **ofizioz berrikusteko prozedura** aplikatzea, gorago aipatutako epaian jasotakoa, eta urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenean ezarritako izapideen arabera.

Zehatz-mehatz, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen **106 artikuluan** honako hau esaten da:

*“Administrazio publikoek, noiznabi, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, deuseztzat deklaratuko dituzte, ofizioz, administrazio-bidea amaitu duten administrazio-egintzak edo epe barruan aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak, 47.1 artikuluan jasotako kasuetan.”*

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarrian arautzen dituen 7/1985 Legearen **4.1.g) artikulua** udalari esleitzen dio *“haren egintzak eta erabakiak ofizioz berrikusteko abalmena”* eta **53 artikulua** honako hau ezartzen du: *“Toki Erakundeek euren egintzak eta erabakiak berrikusi ahal izango dituzte Estatuko Administrazioarentzat administrazio prozedura erkidea arautzen duen Estatuko legerian ezartzen diren terminoetan eta irismenarekin.”*

Kontratazioaren araudiaren ikuspuntutik, urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 34.1 artikulua, zeinaren aplikazioa baldintza agerietan aurreikusten den, honako hau ezartzen du: *“Administrazioak, ofizioz berrikusi behar dituenean herri-administrazioen kontratuak eta erregulazio harmonizatuko kontratuak prestatzeko edo esleitzeko egintzak, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII. Tituluko lehen kapituluaren ezarritakoaren arabera jardungo du.”*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen **22.12.j)** artikulua arabera, **Udaleko Osoko Bilkurari dagokio ofizioz berrikusteko administrazio-egintzen eskumena.**

Espedientearen irautze epea se hilabetekoa da (6) haren hastapenetik (39/2015 Legearen **106.5 artikulua**).

Prozeduraren izapidetzeari dagokionez, ez dago espezifikotasun arauemailerik 39/2015 Legearen 106 artikulua gaur egungo idazkuntzan, eta beraz, ofiziozko berrikustearen prozedura administrazio prozedura erkidea ezartzen duenari jarraituz egin behar da, nahitaezko diren izapidetze egintzen artean **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren alde aurreko irizpena jaso behar delarik**, azaroaren 24ko 9/2004 Legearekin ados.

Berrikuste prozeduretan **Auzitegi Nagusiak** honako hau zehazten du: *Epaimahai honen jurisprudentzia tradizionala bi fase bereizi izan ditu ofizioz berrikusteko prozeduretan. Lehenengo espedientea irekitzeari dagokio, nahitaezko izapideak egin ondoren, Administrazioak prima facie zehazten du berrikustea eskatzen diren ekintzak edo ekintzek haien berrikustea eskatuko luketen akatsak dituzten edo ez. Ondorioa baieztatu izanez gero, bigarren faseari ekiten zaio, Estatu Kontseiluaren irizpen eskaera barne hartzen duena, edo haren baliokidea den Autonomia Erkidegoaren organoarena, eta egintza ezeztatzedo edo ez ezeztatzeko erabakia, ematen den irizpenaren arabera. (Ikus daiteke 2011eko abenduaren 12ko Epaia).*

Prozeduraren lehenengo faseak hurrengo izapidetze ekintzak eduki behar ditu gutxienez: **1.-** Irekiera. **2.-** Txosten teknikoak egitea, beharrezkoak badira. **3.-** Txosten juridikoa. **4.-** Entzunaldia interesdunei. **5.-** Alegazioak aurkeztu badira, horien gaineko txostena. **6.-** Ebazpen proposamena eta **7.-** Espedientea organo aholku-emaiaren irizpenaren zain jartzea.

Entzunaldiaren izapideari dagokionez, prozeduraren deialdia jaso behar dute, EBEEz gain, euren proposamenak formulatu zituzten gainerako enpresa lizitatuak. Izan ere, 39/2015 Legearen 4.1 b) artikulua arabera, administrazio-prozeduran interesdunak dira, prozedura hasi barik, bertan har daitezkeen erabakien eragina izan dezaketen eskubideak dituztenak. Orobat, aipatutako Legearen 82 artikulua interesdun guztiei dei egiten die parte hartzera, haien iritzia eman dezaten amaierako erabakia oinarritu ahal duten gertaera, datu, dokumentu eta abarren inguruan.

Ikus daitekeenez, **egingarria da** Euskadiko Auzitegi Nagusiaren Epaiaren edukiaren arabera, txosten honetan aipatutakoa, eta 39/2015 Legearen 106 artikulua arabera, **Pinosolo Kirolgunearen esleipen kontratuaren ofiziozko berrikusteko prozedurari hasiera ematea.**

Hala ere, beharrezkoa da ezartzea LEIOAKO UDALA legitimatuta dagoen haren sozietate-tresna den LEIOA KIROLAK SAUren erabakiak berrikusteko, zeina, bere jardueraren zenbait alderditan, zuzenbide pribatuaren aplikazioaren menpekoa zen, hurrengo goiburuan aztertuko dena.

## **II.- LEIOA KIROLAK SAU-REN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ERABAKIAK BERRIKUSTEA. LEIOAKO UDALAREN LEGITIMAZIOA.**

Behin ofiziozko berrikustea ezarrita, orain egiaztatu behar da ea berrikusketa hori egin daitekeen 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena) 106.1 artikulua ezartzen duen bezala, LEIOA KIROLAK SAU Sozietate Publikoaren Administrazio Kontseiluak hartutako erabakien gainean. LEIOAKO UDALAK % 100 parte hartzea du aipatu sozietatean, eta txosten honetako bigarren aurretikoan azalduenez, desegin egin da, bere oinordeko unibertsala haren Administrazio matrize izanik, hau da, LEIOAKO UDALA.

Orain, ondorengotza egoera hau, LEIOAKO UDALA erabateko deuseztasuna deklaratzeko erakunde eskuduna dela ondorioztatzea eramaten duela ematen badu ere, aldeztu aurretik, Sozietate Publiko baten egintza bat berrikus daitekeen zehazteko beharra sortzen du. Egintza hori, agerian dagoenez, ez da administrazio-egintza bat, izan ere, LEIOA KIROLAK SAUren Administrazio Kontseiluaren erabakiak baitira berrikusketaren objektua.

Kontu hau erabakitzeko beharrezkoa da **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 2013ko 151, 152 eta 157, irizpenetara jotzea**, zeinetan Tokiko Partzuergo bati lotutako Sozietate Publiko baten Administrazio Kontseiluaren erabakiak ofizioz berrikustea planteatu baitzen.

Zehatz-mehatz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren **157/2013 irizpenak** Administrazio Kontseilu baten erabakiaren deuseztasuna deklaratzeko bideragarritasun juridikoa aztertzen du, ahal baten bidez, antzina Administrazioaren pribilegiotzat hartzen zena, Legeak bere autobabesa aktibatzea ahalbidetzen dion bitartean, oso posizio berezian jarriz, desberdina izateagatik, partikularrekin alderatuz gero, eta honek haren erabileran eta irismenean zuhurtziaz jokatzera behartzen du, eta baita haren erabilera gidatzen duten bermeak aztertzea ere.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazten duen moduan, **erabakia Administrazio Pulikoen kontratuen araudiaren menpe dagoen kontratu baten inguruko egintza denez, horrek ahalbidetzen du alde bakarreko berrikustearen bidera jotzea.** Hain zuzen ere, **erabakigarria dena egintza hori zuzenbide publikoaren menpe egotea da, izan ere, onartzen denean bazegoen indarrean urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzkoa.** Beronetatik ondorioztatzen da LEIOA KIROLAK SAU Sozietatea haren eremu subjektiboan sartuta zegoela (**3.1.d artikulua**) LEIOAKO UDALAK %100eko parte hartzea baitzuen.

Merkataritza sozietate publikoei administrazioaren kontratazio erregimena luzatzeko arrazoia Europako Erkidegoko zuzenbideak ezarritako exijentzietan datza (horrela ez izateak Espainiari zigorra ezartzea ekarri zion 2003ko maiatzaren 15eko Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiaren Epaian, EBJA 2003/138).

Azterketa honetan kontuan hartzea komeni den aipatutako arau legalaren elementu garrantzitsu moduan zera dugu, haren eremu subjektiboa ezartzean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3.1.

artikuluak, Sektore Publiko terminoa erabiltzen du, **Euskadiko Aholku Batzorde Jurikikoaren 2012/46 irizpenean** esaten den moduan, honako asmoarekin:

*“... Lurralde Administrazio bakoitzaren erakunde sarea integratzea, Administrazio Nagusiarekin beraren menpe edo berarekin lotuta dauden Erakunde edo Entitateak batzen direnean. Normalean dagokion Administrazio Publiko osoa barne hartzeko asmoarekin erabiltzen da, abiapuntu gisa gaur egun haren konfigurazioa homogenea izatetik urrun dagoela hartuz, bere jarduerak burutzeko pertsonifikazio formula desberdinak erabili baitira, eta erakunde bilduma zabal hori zuzenbide publikoaren arauen menpekoa izaten jarrai dezan hainbat gai zehatzetan (erregimen juridikoa eta finantziarioa, pertsonalaren hautaketa, bateraezintasunak eta ordainsariak, ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa, etab.)”.*

Kontratuaren erregimen juridikoari dagokionez, merkataritza-sozietate batek egiten duenez gero, kontratu pribatutzat hartzen da, baina honako hau gidatu behar du: *“haren prestakuntza eta adjudikazioari dagokienez, berariazko araurik ezean, honako Lege honek eta bere garapenaren xedapenak, administrazio zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuz, edo hala behar izanez gero, zuzenbide pribatuko arauak, subjatuaren edo entitate kontratatzailearen izaperaren arabera. Kontratuen eraginak eta iraungipena zuzenbide pribatuaren menpekoak izango dira”.* (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen **20.2 artikulua**). Prestatzeko egintzak edo behin-behineko zein behin betiko esleipenarenak erabateko deuseztasun kausa baten pean erori daitezke (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen **32 artikulua**).

Beste alde batetik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen **34 artikulua** zera esaten du: **ofiziozko berrikustea 30/92 Legearen VII Tituluaren I Kapituluaren ezarritakoaren arabera egingo da. Era berean, aipatutako arauak, kontratuak Administrazio Publiko batenak ez direnean, deuseztasuna deklaratzeko eskumena Erakunde kontratatzailea atxikituta dagoen Sail, Organo, Erakunde edo Organismoaren titularrari ematen dio edo haren tutoretza duenari, gure kasuan, LEIOAKO UDALA da.**

Ikusi dugunez, merkataritza Sozietateak ez duenez ofizioz berrikusteko eskumena, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hura gauzatzeko subjektu gaitua zehazten du, LEIOAKO UDALA hain zuzen ere.

Aurrekoak hartutako erabakien berrikustea egingarri dela ulertzea eramaten gaitu eta **LEIOAKO UDALA haien deuseztasuna deklaratzeko eskumena duen Administrazi Publiko gisa identifikatzera.**

### III.- DEUSEZTASUN ARRAZOIAK.

30/2015 Legearen **106.1 artikulua** ezartzen du aipatu Testu Legalaren **47.1 artikuluan** aurreikusten diren kasuetan administrazio egintzen deuseztasuna ofizioz deklaratzeko obligazioa.

Lege honek 1 a) atalean esaten du zuzenbide osoz deusez direla konstituzioaren babesa izan dezaketen eskubide eta askatasunak urratzen dituzten ekintzak.

Berdintasun printzipioa espainiar Konstituzioaren 14 artikuluan ezartzen da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen 1 artikulua ezartzen du Legearen xedea, besteak beste, lizitazioetako sarbidean berdintasun printzipioak bermatzea, gardentasuna, bazterketarik eza eta tratuaen berdintasuna hautagaien artean, eta lehia askearen zaintza.



Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2016ko otsailaren 15eko eta martxoaren 22ko Epaiak, txosten honetako HIRUGARREN aurretikoan aipatutakoek, deklaritzen dute ARCAIN eta AROS merkataritzen aldetik (PINOSOKO ABEEko kideak) jokabide zigorgarria izan dela lehiaren defentsaren gaiari dagokionez, eta ziurtzat jotzen dute Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1. artikulua urratzen duen borondateen akordio bat egon dela. Epai hauek irmoak dira eta potere publikoak lotzen dituzte.

Beraz, **egiaztatuta dago erakunde lizitzaileen artean lehiaren aldakuntza bat izan dela.** Aipatutako Epaietako edukari berariaz lotzen gatzazkio; zehatz-mehatz, **beharrezkoa da errepikatzea froga fede-emaile gisa eta bere eskaintza formulatzeko orduan lagundua izan zen enpresa baten parte hartzearen froga moduan eta zeinaren esku hartzea erabakiorra izan zen lizitazioaren baldintzak bere alde orientatzeko, 2016ko otsailaren 15eko EAENren Epaiaren paragrafoa:**

*“Testuinguru esanguratsu eta oinarritzkoa zera da, kirolgune baten adjudikazioa egiteko lehiaketa publikoaren deialdia egin baino oso alde aurretik, plano baten filtrazio informatikoaren bidez agerian gelditu zen gerora ABEE lizitzailea izango zen arkitektura bulego bati garaia baino lehenago gaiari buruz eskatutako lan batzuk, etorkizuneko lehiaketa horren baldintza teknikoaren agiriak egin behar zituen sozietatearen eskuetan zendela (50 miloi euro inguruko balioarekin); hala, deialdia egiten zuten Administrazioaren aipatu sozietate laguntzaileak bazituen kontuan beste lan baterako proiektua zela eta (Olatu Artifiziala), lizitatuko zen kirolgunearekin erlazionatuta eta koherentzia arkitektonikoa gorde behar zutenarekin. Ondoren, ABEEk proiektu hori berbera aurkezten zuten lehiaketa izapidetzen ari zenean, baldintza teknikoaren agiriaren sozietate egileak parte hartu zuten ondoz ondoko bi Ebaluazio Batzordeetan, zehaztan aipatutako ABEEk baloraziorik onena lortuko zuten, eta horrekin batera, behin behineko adjudikazioa. Arrazoiak inferentzia garbia ateratzen da, bi sozietateen artean, edozein izanik baienez arrazoiak eta komisio maila, Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1 artikulua debekatzen duen nolabaiteko borondateen ituna egon zela, eta itun honek nahi zen lorpena iristeko bide egokiak bere esku zituela. Helegiteak balioan jarri nahi dituen argudioek ez diote indarrik kentzen inferentzia garbi honi.”*

Hortaz, aintzat hartu behar da deuseztasuna sortzen duen urraketa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 45.1 artikulua arau-haustea dela. Artikulu honez ezartzen du, lehiaketa-elkarrizketaren prozeduraren bidezko kontratuen adjudikazioari dagokionez ezarritakoa alde batera utzi gabe, lizitazioetan ezin izango direla aurkeztu kontratua prestatzeko dokumentuak edo espezifikazio teknikoak egiten esku hartu duten enpresak, beti ere parte hartze horrek lehia askea murriztu ahal duenean edo gainerako enpresa lizitzaileekiko tratu pribilegiatu izan daitekeenean eta aipatutako testuaren 101.2 artikulua urraketa ere bada; izan ere, baldintza teknikoek lizitzaileen sarbidea aukera berdintasunaren egoeran ahalbidetu behar dute, eta ezin dute sortu justifikatu gabeko oztoporik kontratu publikoak lehiarentat irekitzeko.

Hortaz, garbi dago **berdintasun eskubidea urratu dela lehia askearen arauak hautsi direlako.**

Gainera, 39/2015 Legearen 47.1 f) artikuluan aurreikusten den deuseztasun-arrazoa gertatzen da. Aipatu artikuluan ezartzen dira eskubideak edo ahalmenak lortzeko ordenamendu juridikoaren aurka egiten diren berariazko edo ustezko egintzak, eskubide edo ahalmen horiek lortzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez direnean.

Hain zuzen, **LEIOA KIROLAK SAUren Administrazio Kontseiluaren erabakiak, ofizioz berrikusitakoak, behin-behineko eta behin betiko esleipenaren gainekoak, ordenamendu juridikoaren aurkakoak dira. Izan ere, lehia askea urratzeagatik akastuak dira, eta honek, aldi berean, kontratatzeko funtsezko betebeharra den baldintza bat ez egotea eragiten du, lizitzaile arau-hausleak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 49 artikuluan aurreikusten den**

kontratatzeko debekuaren pean erortzen baita, arau-hauste larria izan baita merkatuaren diziplinari dagokionez, Lehiaren Babesari buruzko Legearen 62 artikulua, 3. atalean ezartzen duenaren arabera.

Estatuaren Kontseiluak 2717/2000 irizpenean kontratatzeko baldintzak urratzeak kontratuaren erabateko deuseztasuna mugatzen duela deklaratu du. Doktrina hau ez da aldatu.

Azkenik, 39/2015 Legearen 47.1 g) artikuluan aurreikusten den deuseztasun kausa batera aurkitzen da, zeinak erreferentzia egiten dion maila legaleko xedapen batean ezartzen den beste edozein kasuri. Ildo honetan, agerian dago ABEEren aldetik lehiaren faltsutze bat egon dela, hainbestetan aipatu diren EAEANen epaiek mugatzen dutenarekin ados. Faltsutze hau hirugarren bati kalte egiteko asmoz legez kontrako akordio bat da, uztailaren 3ko (15/2007) Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1 artikulua debekatzen duena, eta berarekin batera aipatutako 1 artikulua 2 atalean berariaz ezartzen den erabateko deuseztasuna darama.

Guillermo Ibarrodo Zamakona jaunak, PINOSOLO ABEEren izenean eta hura ordezkatzuz Letratu gisa, sinatutako idazkian egiten diren alegazioei dagokienez, non berariaz adierazten den ofiziozko berrikusteko prozedura honen aurka dagoela, aipatutako alegazioak erabat gaitzetsiak izan behar dute, gaitzezpenez honen arrazoibide moduan SANZ&SAIZ ABOGADOS Bulegoak 2017ko otsailaren 2an emandako Txosten Juridikoa erabiliz, Ebazpen honekin batera atxikitzen dena.

#### **“EBAZTEN DUT”**

***Primero.-** Guillermo Ibarrodo Zamakona Letratuak, PINOSOLO ABEEren izenean eta hura ordezkatzuz, 2017ko urtarrilaren 2an aurkeztutako idazkiko alegazioak erabat gaitzestea, hori guztia SANZ&SAIZ ABOGADOS Bulegoak 2017ko otsailaren 15ean emandako Txosten Juridikoaren arrazoibideetan oinarrituz.*

***Bigarrenik.-** LEIOA KIROLAK SAUren erabakiak ofiziozko berrikusteko proposamena eta erabateko deuseztasun deklarazioa onartzea. Honako hauek dira:*

- 2011ko urtarrilaren 31ko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, kontratazio organo gisa hartutakoa, zeinaren bidez Pinosolo Kirolguneko proiektua, lanen zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloko koordinazioa eta lanak egiteko kontratua AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SAK eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, SAK osatutako PINOSOLO ABEEri behin-behinean esleitu zitzaion.
- 2011ko otsailaren 11ko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez Pinosolo Kirolguneko proiektua, lanen zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloko koordinazioa eta lanak egiteko kontratua PINOSOLO ABEEri behin betiko esleitu zitzaion.

*Berrikusteko prozedura honen arrazoiak 39/2015 Legearen 47.1 artikulua a), f) eta g) ataletan aurreikusten diren deuseztasun arrazoiak batera aurkitzea da.*

***Hirugarrenik.-** Azaroaren 24ko Eusko Jaurlaritzaren 9/2004 Legearen 3.1 g) artikuluan ezartzen denaren arabera Ebazpen hau jakinaraztea Administrazio Espedientearekin batera Euskadiko Abolkularitza Batzorde Juridikora, dagokion Ebazpena eman dezan.*

***Laugarrenik.-** Ebazpen hau jakinaraztea AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SAK eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SAK osatutako Aldi Baterako Enpresen Elkarteari (PINOSOLO ABEE), SANZ&SAIZ ABOGADOS Bulegoak 2017ko otsailaren 15ean egindako Txosten Juridikoarekin batera.*

**Bosgarrena.-** *Interesdun guztiei jakinaraztea (espedientea ikusteko eta alegazioak aurkezteko aukera izan dutenak, espedientean egiaztatuta gelditzen den moduan) ondorio guztietarako, prozedura hau ebatzteko ea ebatzpena jakinarazteko gehieneko epe legala bertan behera geratuko dela Euskadiko Abolkularitza Batzorde Juridikoko nahitaezko ebatzpena hartu arte. Eta hau, Euskadiko Abolkularitza Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 09/2004 Legearen 26.1 artikuluan ezartzen denari buruz urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/15 Legearen 22.1.d) artikuluan ezarritakoa betez.*

## **9.- BIZKAIKO FORU KONTRATAZIOAREN ZENTRALAREN BIDEZKO EROSKETA ZENTRALIZATUTAKO SISTEMAREKIKO ATXIKIMENDU PROPOSAMENA:**

Osoko Bilkurak onartzeko ezarri zen Barne Araubideko Informazio Batzordean 2017ko otsailaren 21ean hartutako 9. zk. irizpena. Espedientean honen ziurtagiria dago.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Gai honi dagokionez, kontratazio sistema bateratuari atxikitzeke Aldundiaren proposamena dela ulertzen dugu eta zerbait positiboa izan daitekeelakoan gaude, behar bezala kudeatzen bada. Udal kudeaketaren onurarako da, beraz, aldeko botoa emango dugu.

**EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunak** euskaraz esku hartzea.

Guk gure mintzaldia gai honi buruzko galdera batekin hasi nahiko genuke. Izan ere, lehenengo urrats bat ematen da kontratazio erosketan zentralaren baitan, baina, badakigu hau ez dela azkeneko urratsa, baizik eta lehenengoa. Badakigu hau dela desira eman poltsari berari eta horregatik gure galdera bideratu nahiko genuke hurrengo pausuetan zer nolako jarrera izango duen udalak. Galdera da nola funtzionatuko dugun, ea atxikimendu bakoitzari nola atxikituko gaitzaizkion, hau da, ea osoko bilkuratik pasatuko diren atxikimenduak edo atxikimenduak alkatetza dekretuz bideratuko diren. Orduan, tira, guk zalantza dugu eta guk uste dugu gainera nahiko alde nabarmena egon daitekeela gure aldekotasunean edo gure kontraktotasunean hartzen den formaren arabera. Izan ere, uste dugu alkatetza dekretutik edo osoko bilkuratik pasatu gabe egiten diren atxikimenduak, hau da, aldizkako atxikimenduek kontrol politikoa gal dezaketelako.

Orduan hori jakin nahiko genuke eta, era berean, mintzaldi hau erabili nahiko genuke gure zalantzak plazaratzeko gai honen inguruan. Izan ere, erosketan zentralari buruzko atxikimendua dela eta, guk alde positiboak izan ditzakeela ikusten dugu, eta baita negatiboak ere, edo arriskuak. Lehenik eta behin, aipatu genuen nola horrelako atxikimenduak egiterakoan balioztatu behar den ea zer alorretan nahi dugun udalak izan dezakeen kontrol politikoa galdu. Zer esan nahi dugu horrekin? Bada, udalak erabaki ahalmena galdu ahal duela atxikimendua ematerakoan; orduan, uste dugu kontratu batzuetan horrek berebiziko garrantzia izan dezakeela. Udalak bere klausula zehatzak aplikatzeko orduan bere aukerak galduko lituzkeelako, edo bestelako eremu zehatzak aurrera eramateko aukerak galduko lituzkeelako udalak.

Bigarrenik, uste dugu honek ikuspegi ekonomizista batetik helden badio kontratazioaren eremuari, arriskuak ere egon daitezkeela alor horretan, uste dugulako ikuspegi ekonomizistak, hau da, helburua dirua aurrezteko soilik duten ikuspegiak ez dietela erantzuten administrazio batek izan behar duen erosketan irizpideei. Guk uste dugu izan behar direla erosketan zentrala, baizik eta

erosketa publiko kolektibo arduratsua eta hor alde markatu nahi dugu. Eta horrelakoak egiten direnean, eta hau ere eztabaidan egon zen, eta uste dut honek berebiziko garrantzia izango duela, erosketen zentralizazioak besterik gabe egiten direnean arrisku handi bat dago gai konkretu batean, enpresa txikien eta kooperatiben gaineko alorrean, hain zuzen. Izan ere, tokiko ekonomia suspertzen duten enpresa txikiek zailtasunak izan ditzakete kontratu handiak ateratzen direnean. Orduan, guk honetan ere tentuz ibili beharko dugula uste dugu, eta guk atxikimendua emango diegun hurrengo kontratuetan ere hau gerta ez dadin elementuak agertzea exijitu beharko genukeela, hau da, atxikimendua emango diegun kontratu horiei enpresa txikiek eta tokiko enpresek aukera berdintasuna izateko elementuak eduki beharko lituzketela.

Beste alde batetik, kontrol funtzioaren galera bat gertatzeko beldurra adierazi nahi dugu, hau da, udalak kontratu hauen kontrolerako bermeak izan beharko lituzkeela uste dugulako. Berriro errepikatuko dut, bereziki energia elektrikoa erosteko kontratu handiek ematen digute beldurra, esan nahi dut erosketa zentral hauek askotan izan dezaketen arrisku bat energia hornidura izan daitekeelako, eta ikusita gure taldetik izan dugun sentsibilitate altua gai honekin azken osoko bilkuretan, bada, uste dut hau ere berretsi beharko genukeela, hau da, guretzat positiboa izango litzatekeela energia hornidura bestelako eredu baten baitan kontratatzea. Orduan, zalantza guztiak norabide berean doazela uste dut eta horregatik ikusten dugu gure bozka baldintzatuta egongo litzatekeela zelan kudeatuko den hau, hau da, atxikimendu partikularrak ematerako orduan osoko bilkurak erabakiko ditu edo ez.

### **Esnatu Leioa Udal taldeko Rubén Belandía Fradejas jaunaren esku hartzea.**

Gure iritziz, bi gertakariren artean bateragarritasun kezkarria dago. Baliteke elkarren artean erlaziorik ez izatea, baina kezkarriak dira. Bata, Aldundiak sustatzen duen erosketa zentralizatuaren sistema atxiki nahi izatea da eta, bestea, Udaleko kontu-hartzaileak behin eta berriz aipatutakoa: kontratu ugariak darama denbora gehiegi iraungita eta dekretuak erabiliz, hilabetez hilabete mantentzen dira ordainketak enpresei. Batek bere buruari galdetzen dio ea bi gertakari horiek erlazioatuak al dauden. Orain Aldundiak sustatzen duen kontratazio sistema zentralizatura atxikiko gara. Uler daiteke oso udal txikiek lehiaketak ez egitea eta, ondorioz, interesgarria suertatzea erakunde nagusiago baten sistemari atxikitzea, baina gu ez gaude egoera horretan. Kontratuak amaitu ondoren ez dira lehiaketak egin eta ez dugu uste gaitasunik ezaren ondorioz izan denik, borondatea ez izateagatik baizik. Horregatik, tokiko administrazioak behar bezala funtzionatzea eskatzen dugu. Nolanahi ere, eskura dituen bitartekoekin ardurak izan behar du, bitartekoak nahikoak baitziren eta gaur egun ere nahikoak baitira lehiaketak gauzatzeko, noski.

Kezkatzen gaitu erosketen sistema zentralizatu izatea. Izan ere, kontrola ordaindu behar dutenetatik geroz eta urrunago gelditzen da. Hala, erosketa prozesuan eta klausulak definitzean inolako partaidetzarik gabe gauza kontratatuak izango ditugu. Halaber, ez dugu prozesua jarraituko. Gure ustez, hori printzipio demokratikoen kontra doa, gauzak aplikatuko diren tokirik hurbilenean kudeatu behar baitira. Gure erosketak eta kontratazioak dira eta gauzatzeko gaitasuna dugu.

Badugu hirugarren arrazoia sistema honen kontra egoteko. Udalak gure udalerrian lanean diharduten enpresen alde agertu behar du, udal zerbitzuekin kontratatzeke aukera badute. Xede horrez, lehenengo araua litzateke norbaitek lehiaketarako deialdia egitea. Hori, adibidez, aseguru-konpainietarako ez da existitzen, inork ez du inoiz lehiaketarik egin enpresak aurkeztu ahal izateko, ez Leioakoak, ezta inongoak ere. Bigarrenez, aurkezteko eta hornitzeko aukera izatea da, lehiaketa askoz handiagoetara goazenean. Bertan ikus dezakegu zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna eremu oso handietan eskatzen dela. Leioan dagoen edozein paper-dendak, arazorik gabe,

honakoak zerbitzatzeko konpromisoa har dezake: arkatzak, papera eta gainerakoak. Ildo horri eutsiz, lehiaketara aurkez daiteke lehia zintzoan kanpoko enpresekin. Argi dago Leioako paperdenda txikiak Bizkaiko udal guztiei eta Aldundiari ezingo dizkiela papera eta bolalumak hornitu

Horiek guztiak arrazoi nahikoak dira erabat atxikipenaren kontra egoteko.

**Euzko Abertzaleak Taldeko M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Bozketa argiago izan dezazuen, EH-Bildu taldearen galderari erantzunez, gaiari buruz hartu behar diren erabaki guztiak Osoko Bilkuran landuko dira, noski. Kontrol politikoa galtzeari, beldurraren gaiari buruz...

**Chiara Camaron Pacheco idazkariaren** azalpena.

Lizitaziorako organo eskudunaren araberakoa da.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkateak** bere esku hartzearekin jarraitu du.

Enpresa txikien aldeko beldurrari dagokionez, Batzordean azaldu zen eta berriz errepikatuko dut Batzorde hartan jakinarazitakoaren berdina. Zergatia adierazteko: udal txiki askok, bere egunean, eskaera egin zuten Aldundiak zentrala sortzeko, gaitasunaren arazoetan oinarrituta. Batez ere, kontratazioak egiteko udal txikienak izan ziren, aldi berean, gehienak. Abiapuntu horretatik, atea udal guztiei ireki digute.

Zer esanahi du lehenengo akordio honek? Hitzarmen esparrua da eta Aldundiak hurrengo esaten duenean: *lurralderako edo lurraldearen xati gebienerako halako kontratazioa aterako dugu*; Leioako Udala edo bestelako udala ados badago ala Udalari komeni bazaio edo une zehatzean kontratu bat indarrean ez dagoenez egiteko epean bagaude, lizitazio eta kontratazio horretarako berariaz erabaki bat hartu beharko dugu.. Noski, lehenengo abiapuntua udal autonomia da eta horri udalek, ezta Leioakoak ere ez diote uko egingo. Horregatik, Chiarak, idazkariak, nire hitzak zehaztu edo zuzendu ditu eta oso ondo egon da, kontratazio organoaren araberakoa baita, baina, ez zalantzarik izan, zuekin bateratze lana egingo dut.

Gauza bat ahaztu zait. Bere egunean ezingo dugu kontratazio zehatzerako adostasunera iritsi, hitzarmen esparrua sinatu gabe badugu eta horregatik atxikiko gara. Erabiliko al dugu? Ziurrenik, ez, baina uneren batean erabili nahi badugu, alde zurratik hitzarmena sinatua izan behar dugu. Ez gaitu ezerk lotzen. Uneren batean Aldundiarekin egin nahi badugu eta, ondorioz, kontratazio zentralaz baliatu behar badugu, egin dezakegu. Ez badugu nahi edo ez bazaigu interesatzen, berriz, ez dugu egingo, ez baikaude behartuak.

Ruben, zure esanetan, agian, kontratu batzuen atzerapenaren eta kontratazio zentralari atxikitzearen artean bateragarritasuna dago, bateragarritasun hori susmopean duzue... Horren atzean eta dago ezer eta benetan diotsut, adeitasun eta zintzotasun osoz, gainera. Ez gastatu energiarik gaizki pentsatzen, atzean ez baituzue ezer aurkituko. Atxikipenak une zehatzean kontratazio zentralera jotzeko eta horretatik kontratatzeke aukera eskaintzen du, baina ez ikusi fantasmarik horren atzean. Kontratu batzuetan atzeratuak gabiltza, gaitasunik eza dugulako, ez borondaterik eza.

Enpresa txikiei gertatuko zaienaren inguruko beldurrari buruz, kontratatzeke hitzarmena onartuz doazen udalekin kontratazio zentral horretan Aldundiaren asmoa, bere ideia, udalekin bat, kontratuak loteka ateratzea da, enpresa txikiak ez kaltetzeko. Hain zuzen ere, ezin daiteke berdintasun eta gaitasun printzipioaren aurka joan, lizitaziora aurkezteke orduan. Horrez gain, ziurrenik, kontratuei buruzko lege berriaren zirriborroak behar hori ezarriko du, beraz, Aldundia

bide horretatik doa. Ondorengo ere Batzordean landu zelako, ez da beldurrik izan behar gizarte klausulak pleguen barruan ez sartzeari. Aldundiak araudia du eta hainbat gizarte klausula sartuak daude. Ildo horri eutsiz, noski, lizitazio guztietan kontuan hartuko ditu.

Hala, ez dago bateragarritasunik eta ez dugu iraungiak dauden prozedurak aurrera ateratzeko borondategabeziarik. Horrez gain, enpresa txikiengatik ez dugu beldurrik izan behar.

### **EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunak** euskaraz esku hartzea.

Azkenean, mintzaldia entzunda, eta gero Chiararen ñabardurari esker, bada, argitu nahi dut galdera gehiago zihola elementu politiko batetik teknikoki baino, hau da, ea talde politiko guztiok parte hartzen dugun marko batean eztabaidatuko den. Ez da eztabaida prozesua izango kontratazio prozesu batek izan behar duena, teknikoki ez zaiola tokatuko, baina uste dugu bai atxikimenua emango dugu edo hori pentsatuta dugu, tira, beste formula batzuk baditugu udaletan ere eta horrelako elementuak talde politiko guztiok parte hartzen dugun mahaietan eztabaidatzeko. Eta borondate hori badago, bada, pozten gara.

Eta gero pare bat ñabardura, batzordean bertan azaldu zen hori, bada, loteatuko zela enpresa txikiak bultzatzeko eta espero dugu horrela izatea eta loteatzeaz gain bestelako neurriak ere egotea enpresa txikiak eta tokiko enpresak bertan parte hartu ahal izateko. Baina, gu, gaur ere, prozesu honen parte ez garen heinean, hau da, azkenean Leioako EH-Bilduk ez duelako hau atera den lekutik parte hartzen, bada, nahi genuen geure iritzia plazaratu eta azpimarratu hori egiteko beharrezana.

Eta gero, hirugarrenik, klausula sozialen inguruan, aipatzen denean, bada, gure jarrera ez da bakarrik klausula sozialaren aldekoa, baizik eta klausulak izan daitezkeela Leioaren beharrezan bat, hau da, ez duela zertan soziala izan. Baditugu klausula batzuk edo badaude ñabardura batzuk kontratu batzuenak, beharbada bakoitzak bere beharrezan espezifikokoak dituenak eta klausula sozialekin berdín, nik uste dut ezin duguna pentsatu klausula sozialak homogeneousak izan behar direnik beti, baizik eta klausula sozialekin ere politika konkretuak bultzatuko ditugu, unean unean bultzatu behar ditugunak eta harreana izan dezaketenak kontratu horrekin. Orduan, guk esaten genuena momentu honetan hori zen, guk aintzat hartu behar dugula edo balioztatzeke orduan buruan eduki behar dugula, bada, klausula sozialak ditu, baina, badira orain guk Leioan bultzatu nahi ditugunak? Eta badira, bada, ez genioke atxikimenduari inongo oztoporik jarriko. Atxikimendu hori izango bazen azkenean kontratua guk egingo genuen moduan, hau da, udalak egingo balu klausula berdinekin, bada, atxikimendu konkretu horri baiezkoa emango genion. Bestelako elementu batzuk izango balitu, bada, zalantza gehiago sortuko ziren, eta guztiz desberdina izango bazen guk egingo genukeena, bada, seguruenez zuek ere ez zinateke, udal gobernu bezala ere, ez zinateke ere animatuko atxikimendu hori ematera. Beraz, lehenengo urrats honi abstentzio botoa emango diogu gaur eta gero unean unean baloratzen joango gara atxikimendua eman edo ez.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Proposamena irakurrita eta bozketa eginda, osoko bilkurak, hamalau aldeko botorengatik, Euzko Abertzaleak taldeko bederatzi zinegotzienak, Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak eta Leioako Alderdi Popularreko bi zinegotzienak, eta hiru abstentzioekin, Leioako EH-Bilduko hiru zinegotzienak, onartu egin zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaiko Foru Kontratazioaren Zentralaren bidezko Erosketa Zentralizatutako Sistemarekiko Atxikimendua, honako termino hauetan:

### AURREKARIAK:

**LEHENENGOA:** Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailearen 20ko 125/2016 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Kontratazio Zentrala sortu zen, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginaren 203. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitakoaren babesean; Zentrala laguntza-organo bat izango da Bizkaiko Foru Aldundiko eta foru-sektore publikoko erakundeetako kontratazio-organoentzat zein kontratazio-sistema horri beren borondatez atxikitzen zaizkion Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletako eta haien menpeko erakunde instrumentaletako, mankomunitate zein partzuergoetako kontratazio-organoentzat, kontratatu nahi dituzten ondasun, zerbitzuak eta hornidurak beren ezaugarri bereziengatik oro har erabiltzekoak badira.

**BIGARRENA:** Leioako Udalak interesa du Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako Bizkaiko Kontratazio Zentral Forala erabiltzeko.

**HIRUGARRENA:** Bizkaiko Foru Aldundiarekin izenpetu beharreko hitzarmen bidez atxikiko zaio Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari.

### ZUZENBIDEAREN ITURRIAK

SPKLTBren 205.2 artikuluan Erosketa Zentralizatuaren Sistemarekiko Atxikimenduari buruz ezarritakoa aintzat hartuta, ERABAKI DU:

1. Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari atxikitzea, Zentralak zehaztutako obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzeko, betiere Zentralaren eta aukeratutako enpresen artean adostutako esparru-akordioetan ezarritako baldintzekin eta prezioekin bat.

Atxikita ere, horrek ez dakar kontratazio guztiak Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren bidez nahitaez egin beharrik. Leioako Udalak erakundeak beti izango du aukera sistema hau edo kontratazio publikoari buruzko legerian ezarritako beste edozein erabiltzeko.

2. Idatzita dagoen moduan onartzea Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren eskuraketa zentralizatuako sistemari atxikitzeko hitzarmena. M<sup>a</sup> Carmen Urbieta Gonzalez, Alkate andreami abalmena ematea erabaki hau betearazteko beharrezkoak diren agiri guztiak formalizatuzeko

### ANTECEDENTES:

**PRIMERO:** Por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 125/2016, de 20 de julio, se aprobó la creación de la Central de Contratación Foral de Bizkaia al amparo de lo previsto en los artículos 203 y siguientes del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, quedando configurada como un órgano de asistencia a los órganos de contratación de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del Sector Público Foral, de los Ayuntamientos del Territorio Histórico y entes instrumentales de ellos dependientes, Mancomunidades y Consorcios, que se adhieran libremente a este sistema.

**SEGUNDO:** El AYUNTAMIENTO DE LEIOA está interesado en adherirse a la Central de Contratación Foral de Bizkaia creada por la Diputación Foral de Bizkaia.

**TERCERO:** Que la adhesión a la Central de Contratación Foral de Bizkaia, se formalizará a través de la firma del correspondiente convenio a suscribir con la Excm. Diputación Foral de Bizkaia.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

Considerando lo referido en el art. 205.2 TRLCSP sobre la posibilidad de adhesión a los sistemas de contratación centralizada, ACUERDA

1. Adherirse a la Central de Contratación Foral de Bizkaia a fin de poder contratar las obras, servicios y suministros que se determinen por la citada Central, de conformidad a las condiciones y precios que se fijen en los correspondientes acuerdos marco que se concluyan entre dicha central y las empresas seleccionadas en aquéllos.

Esta adhesión no supone la obligación de efectuar todas las contrataciones a través de la Central de Contratación Foral de Bizkaia. El Ayuntamiento de Leioa siempre podrá optar por utilizar este sistema o cualquier otro establecido en la legislación de contratación pública.

2. Aprobar el Convenio de Adhesión al sistema de adquisición centralizada de la Central de Contratación Foral de Bizkaia en los propios términos en que aparece redactado en el Anexo I al citado Decreto Foral n<sup>o</sup> 125/2016, de 20 de julio.

Facultar a la Alcaldesa Presidenta de este Ayuntamiento, D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Carmen Urbieta González, para la formalización de cuantos documentos sean precisos en orden a la efectividad del presente acuerdo.”

## **II.- OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETAZ** **EGITEN DUEN KONTROL ETA JARRAIPENA**

### **10.- ALKATETZA-PRESIDENTETZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU** **BATZORDEAN HARTUTAKO EBAZPENAK, 2017.01.19tik 2017.02.22ra:**

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan ezarritakoa betez, bai eta apirilaren 21eko 11/1.999 Legearen idazkuntzan eta azaroaren 28ko 2586/1.986 Errege Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren 42 artikulua ere, Osoko Bilkuraren espedientean Alkatetzat epigrafean aipatutako epealdian emandako dekretuen kopiak daude, aztertuak izan ahal izateko, ondoren dagokion lekuan artxibatuak izango direlarik.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

**Leioako Alderdi Popularreko Jazael Martínez Esteban jaunaren** esku hartzea.

Azkeneko Kultura Batzordean, otsailaren 22koan, hitz egin genuen dekretuari buruz hitz egin nahi nuke. Batzordean azalpenak eman zitzaizkigun, baina udalerriko hainbat merkatarirekin berba egin ostean, Osoko Bilkuran lantzeko garrantzitsua dela uste dugu, guztiek batera hausnarketa buru dezagun. Zehazki, Inauterietan garatzen diren lehiaketa desberdinen sarietarako Udalak emandako diru-laguntzaz ari naiz. Diru-laguntza erosketa txartelak dira, eskusiboki Leioako Merkatarien Elkarteari atxikitako dendatan erosteko. Jada Batzordean adierazi genuen bezala, diru publikoarekin diru-laguntza ematea ez dugu egokitzat jotzen, denda zehatzetan erosteko bada, beste batzuk alde batera utzita. Gure iritziz, halako neurriekin gobernu taldeak lehen mailako merkataritza eta bigarren mailakoa zehazten ditu Leioan, Leioako komertzio guztiak kategoria berezian egon beharko lukeenean, lehenengo alkateordeak esaten usten badit, ez batzuk lehenengo mailan eta beste batzuk bigarrenean.

Batzorde hartan arrazoizkoa zela erantzun zitzaigun, Merkatarien Elkarteak inauterian Udalarekin lankidetzan baitihardu. Nik ez dakit arrazoizkoa den ala ez, alkate andrea, baina udalerriko hainbat merkatariri galdetu diogu arrazoizkoa ikusten al duen diru publikoarekin sariak ematea udalerriri berean denda batzuetan trukatu eta besteetan ez egiteko eta asko haserretu dira eurek zerga moduan ordaintzen duten diruaren zati batekin halako neurriak hartu direla jakin dutenean. Gure ikuspuntua oso argia da eta jada Batzordean aipatu genuen, baina guztiek horri buruzko hausnarketa egitea garrantzitsua delakoan gaude, halako neurriekin gure udalerriko, Leioako, merkataritzaren gutxiengoari saritzen baitzaio. Izan ere, eurek ordaintzen dute merkataritza elkartearen kuota eta ez zaie guztiei tratamendu bera ematen, diru publikoaz hitz egitean izan beharko lukeen bezala. Horregatik, gertatutakoari buruzko hausnarketa burutu behar da, etorkizunean denda batzuetan bai eta besteetan ez trukatzeko sarietarako diru-laguntzak edo laguntzak ez daitezen eman. Gure iritziz, gure udalerriko denda guztiak berdinak dira.

Beste dekretuari dagokionez, *“Gaietan inolaz ere ez dut PPren konfiantza sentitu”*, hitz horiek eskaini dizkigu alkateak duela minutu gutxi batzuk. Alkate andrea, zure esku hartzea entzun



ostean, oso erraza litzateke niretzat orain aipatuko dudan dekretuari buruz nirearen tonua aldatzea, baina nire alderdikideak esan duen bezala, Osoko Bilkura honetan azaltzen ditugun ikuspegiak zintzoak dira eta hala jarraitzen izango dute. Bestelako moduan ezin zitekeen izan. Beste kideren batek esango lukeen bezala, klasiko batez hitz egingo dut, Leioa Bidean gaiaz, alegia. Dekretua dekretuen sorta honetan dago eta Leioako Udalaren nahiz Leioako Merkatarien Elkartearen artean Leioa Bidean hitzarmena berritzea sinatzen da. Hau guztia ikusi dudanean, sentimendu nahasiak etorri zaizkit burura. Batetik, triste eta desengainatuta nago eta, bestetik, pozik. Laburra izaten saiatuko naiz eta bi sentimenduen zergatia adieraziko dut.

Lehenik eta behin, alkate andrea, Udalbatzarekiko errespeturik eza iruditzen zait gobernu taldeak hitzarmenaren berrikuntza nola kudeatu duen; ez da errespeturik izan. Ondo dakizu nire taldeak askotan gaiari buruz galdetu duela eta betiere pazientzia ageri du eta leial azaldu da. Baina, nire ustez, gauzak ez dira ondo egin. Ez dut nekagarria izan nahi eta ez dut Leioa Bidean proiektuaren bizi osoa garatuko, beste Osoko Bilkura batean egin baitut. Hala ere, azkeneko etapa aipatuko dut:

2016. urtean Osoko Bilkuraren batean galdetu dugu proiektuaren bideragarritasunari eta aldaketak egin behar izanari buruz, iraunkor bihurtzeko eta erantzuna honakoa zen betiere: unea iritsita aztertuko zirela. Izan ere, guk ez dugu proiektua desagertzea nahi, hobetzea baizik, gure udalerriko merkataritza hazteko, beharrezkoa delakoan.

2016ko abenduaren 21ean Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Batzordea izan genuen eta proiektuari buruzko oso datu pobreak aurkeztu zitzaizkigun, hamaika hilabete lehenago apustu politiko bezala izendatu ostean. Orduan sinatu zen azkeneko hitzarmena, 2018ko urtarrilaren 31n amaitu zena. Datu horien arabera, irailean, urrian eta azaroan batez besteko eskeak hilean 100ekoak izan ziren eta, era berean, salbuespenez hilabete onak suertatu zirela adierazi zitzaigun. Salbuespenez onak izan ziren hilabete horietan, proiektuak hilean 1.853 euroko kostua bazuen, gutxi gorabehera bakarrik 250 euroko ekarpena izan zuen eta, ondorioz, Udalak 1.500 eurotik gora ordaindu zituen.

Hain zifra txarren aurrean, abenduaren 24an, Ohiko Osoko Bilkuran, premia eskatu genuen neurriak hartzea edo proiektua ez berritzea. Alkateak hitzez hitz hala esan zidan: *“Egia da Merkatarien Elkartarekin bilduko garela, hurrengo astean uste dut, programaren jarraipena aztertzeko, zuk ondo diozun bezala, 2017ko urtarrilean amaituko baita. Bilera dugunean, euren aldetik ikuspegiari erreparatzen diogunean, nola ikusten duten, etab., erabakia hartuko dugu eta aditzera emango dizuegu”*. Hori azaroaren 30eko Osoko Bilkuraren aktan jasota dago, galdera egin baikenuen. Hasieran abenduaren 24koa zela esan dut, baina, ez, akta azaroaren 30ekoa da.

Osoko Bilkuratik pozik atera ginen, proiektuaren berri izango genuela uste baikenuen. Are gehiago, bizirik iraun dezan hobetzeko ideiak aurkeztu ditugu, guztiok dakizuen bezala, gure alderdiaren ekimenez jaio ez den proiektua izanda. Alkateak aurreko Osoko Bilkuran azaldutakoari jarraiki, eta askotan esandakoaren antzera, akordiotik abiatuta sortu zen, beharrak ikusi ondoren. Luzatuz joan da, baina proiektua gobernu taldearentzat apustu politikoa da eta guk ideiak eman ditugu gobernu taldearen apustu politiko hori hobetzeko eta hobe funtzionatzeko ere bai. Hori da gure leialtasuna edo leialtasunik eza proiektu honetan.

Baina, tira, mahatsa jan, erregeen opariak ireki eta 2017a iritsi zen. Urtarrilaren 30ean Barne Araubide eta Ogasunari buruzko Batzordean parte hartu nuen ordu bietan eta Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko zinegotziarekin bat etorri arren, gaiari buruz ez zitzaigun ezer komentatu, hitzarmena hurrengo egunean amaitzen zenean.

Urtarrilaren 31 iritsi eta gobernu taldearen jokabidea ezagutu nuen, baina ez kide baten bidez, Behargintza aldizkariari esker baizik. Bertan landutakoaren arabera, produktuak etxera

bidaltzeko zerbitzu berriak hobekuntzak izango zituen. Hori ikusirik, zegokion arloari mezua bidali genion eta berritzeko baldintzak eskatu genizkion, aztertu ahal izateko. Halaber, jada amaitutako proiektuaren datuak ezagutu nahi genituen. Horren guztiaren aurrean ez genuen erantzunik jaso. Hemen esan behar dut, arazo teknikoarengatik ez zela erantzunik jaso. Nolanahi ere, nire mezua ez zen iritsi, beraz, ez diot garrantzirik ematen.

Otsailaren 9an *zalaparta handi* irakurri genuen Udalaren web orrian eta egunkarietan hitzarmena berritua zegoela, Udalbatzako kideek ezer ezagutu gabe. Kiderik ez, gobernu taldea baztertuta, noski. Eurek ezagutzen zuten. Aurrekoaren harira, berriz errepikatzen ditut alkate andrearen hitzak: *“Erabakia hartu eta zein den aditzera emango dizuegu”*, eta, hurrengo egunean, otsailaren 10ean, sailak jakinarazi zigun berritzea. Mezuak gurutzatu ostean, elkarrizketan jardun genuen eta hitzarmen berriaren zenbait berrikuntza argitu zitzaizkigun. Aldaketen aurrean, harrera ona izan genuen, asko eta asko hilabete batzuk lehenago guk aurkeztutako eskeen zerrendan baitzeuden. Baina, aldi berean, kudeatzeko moduari buruz gure haserrea azaldu genuen eta Osoko Bilkuran idatziz jasoa utziko genuela adierazi ere bai. Hurrengo Batzorderako eskatutako dokumentazioa bidaltzen gelditu ginen eta horrela guztiei bidaliko zitzairen, beraz, ados geunden. Dena den, gaur, martxoaren 2an, oraindik ez dugu lortu.

Nire ustez, alkate andrea, gauzak hobe egin zitezkeen, baina esku hartzearen hasieran aipatu dudan bezala, ez da guztia txarra eta negatiboa. Adierazpen bat badago eta hala dio: *lo egiten duen krokodiloa diru-zorro biburtzen da*. Niri iritziz, hitzarmen honetan zenbait aldaketa positibo sartu da eta egunkarietan, udal aldizkarian eta Behargintza aldizkarian zerrendatuz joan dira. Puntu desberdinetatik lortuz joan gara. Bere egunean proiektuak sei hilabetez huts egin ondoren eta funtzionatu gabe jardun ostean, ezer aldatu gabe urtebeteko luzapena egitea kritikatu genuen. Dena den, proiektu berri honetan, gauzak aldatzeaz gain, sei hilabete igarota berraztertzea aurrez ikusia dago, proiektuaren abiada antzemateko. Era berean, denden publizitatea sartzeko aukera komentatu genuen, kostuak merketu eta salmentak gehitzeko eta proiektu berriari sartu da. Zerbitzua oso garestia zela eta kilo bat laranja eta berrehunek ez luketela kostu bera izan behar aipatu genuen. Hori ere berraztertu da eta kostua murriztu da. Ibilgailuak geldirik ordu asko ematen zituenez, bestelako erabilerak izan zitzaizkela pentsatu genuen eta saileko zinegotziak eskaintzeko ahalegin handia egin duela badakigu. Dena den, moldatzeko orduan arazoren bat zegoen, baina jakin badakigu lan hori egin duela.

Alkate andreak ikus dezakeenez, Leioako Merkatarien Elkartearen merkataritza suspertzeko gobernu taldeak hitzarmen honekin egin duen ahaleginaz jakitun gara, baina, ezagutzen duzun bezala, proiektuari atxikitako denden ehuneko oso urria da. Udalerri osoan 20 denda besterik ez dira eta horietatik 5 Elkartearen Zuzendaritza Batzordean daude, beraz, hortik kanpo, bakarrik 15 merkataria atxiki dira. Hala, gehiago, askoz gehiago, falta da. Hala eta guztiz ere, sartutako aldaketak kontuan hartuta, zinegotziari jakinarazi genion eta jendartean zabaldu nahi dugu, proiektuari konfiantzazko botoa eman nahi diogula, urtarrilaren 31tik, sinatutako egunetik, aurrera edo guztia ikusten dugunean. Aldaketek nola eragiten duten itxaron nahi dugu, lehen esan dugun bezala, gure iritziz, *lo hartzen duen krokodiloa diru-zorro biburtzen delako*. Proposamenak balioetsi dira, eta ez bakarrik nire taldeak egin dituenak, baita gobernu taldearen, merkatarien iritzietatik jasotakoak ere. Horren harira, hainbat aldaketa egin da eta, zilegi, norbaitek zerbaite berraztertzen duenean, hobe daitekeelakoan dela uste dugu. Berraztertu denez, konfiantzazko botoa emango diogu eta sei hilabeteko epea itxarongo dugu. Sei hilabete horiek amaitutakoan, Batzorde egokian berriz balioztatu nahiko nuke. Hala eta guztiz ere, berriz errepikatzen dut: gure iritziz Leioako merkataritzak gehiago, askoz gehiago, behar du eta ez bakarrik denda zehatzetara eta ez guztietara bideratutako ekintzak. Eskerrik asko.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Nire kasuan bi dekretu komentatu nahi nituen. Lehenengoa 132. zenbakia duena da. Horren bitartez, Udal honek berrogeita hamar ikurrin erostea eskatu zuen eta 6.997,01 euro gastatu zituen. 3 m x 2 m-ko berrogeita hamar ikurrin eta galdera ondorengoa da: zer egin nahi du Udalak berrogeita hamar ikurrinekin? Lehenik eta behin, erabat neurritz kanpoko iruditzen zaigu, diru publiko asko da berrogeita hamar ikurrinetan gastatzeko. Eta erosketari buruz ekimenen bat ba al duzuen jakin nahi dugu.

Bigarren dekretua aipatzean 401. zenbakia duenaz ari naiz. Dekretu horren bidez enpresa baten, zehazki, Circo Holliday enpresaren, eskea jakinarazten da. Leioara bertaratu nahi du eta, itxuraz, Ikaztegi zaharraren parkingean instalatu martxoaren 30etik apirilaren 2ra. Udalaren erantzunean parking publikoa dela esaten da eta zirkuak kokapen honetan ingurunekeo biztanleei eragozpenak sortuko lizkiekeela aipatu ere bai. Gobernu taldearen espiriturik eza islatzen da erabaki honetan. Hau da, ezetz esaten ari gara eta dekretuan Circo Holliday enpresari Leioan instalatzea ukatzen zaio; berriz diot: gobernu taldearen espiritu gabezia da hau.

Nik ez dakit zenbat zirku izan diren hemen 1996. urteaz geroztik bizi bainaiz Leioan eta ordutik ez dut oroitzen halako zirkurik Leioan. Baina halako zirku garrantzitsuari, Espainiako hiri desberdinetan (Salamanca, Valladolid, etab.) jardun ondoren, orain Barakaldon kokatuta dagoenari eta bertan martxoaren 5era arte feria barrutian egongo denari, lau edo bost egunez (martxoaren 30etik apirilaren 2ra) instalatzeko ezetz esatea harrigarria da. Leioako hirigunean jarduera, merkataritzarako, ekitaldiarekin sortzen den jarduera ekonomikorako, eta pasatzen utzi dugu, ez hori bakarrik, ezetz esan diegu, bizilagunei eragozpenak sortzen dizkietelako... Zenbatetan erabiltzen da ikaztegiko parkinga urte osoan zehar jaiak egiteko? Behin baino gehiagotan errepikatu dugu parking horri hautabideak bilatu behar zaizkiola, erabiltzen ez den bitartean, baina ez da ezer egiten, hautabidea bilatu gabe jarraitzen da; gero, aukerak datoz eta pasatzen uzten ditugu.

Oso larria iruditzen zaigu, jarduera ukatuz, ezeztatzen ari baitiegu, lehenengo, Leioako biztanleei udalerrian, hirigunean, ekitaldi bat izan dezaten. Horrela, beste udalerrri batera ez lirateke joan beharko zirkua ikustera, adibidez. Bigarrenez, merkatariei, Leioan dagoen jarduerari, ukatzen ari zaie, irabaziak sortzeko aukera argia, beraz, arduragabekeria osoa da. Gure ustez, eragozpenak sortzen badira, jarduerari hutsune edo tokiren bat aurkitzeko edozein gauza egin beharko litzateke. Baina, noski, hori jada duela denbora asko egin beharko litzateke. Dena den, ez da egiten eta, itxuraz, etor eta joan dadila. Arduragabekeria hutsa, berriz azaltzen dut.

Are gehiago, oraindik larriagoa da geure burua asko saltzen dugun udalerrian. Beste dekretu batean, esaterako, ia 9.000 euro gastatuko ditugu *Umore Azoarako* Komunikazio eta Prentsa Kabinetean eta asteburuan milaka euro gastatu genituen zirku arteari buruzko *Umore Azoakaren* jarduera etortzeko. Gero, berriz, zirkua dator eta ezetz esaten dugu. Izugarritzko arduragabekeria eta ezintasunaren lekuko argia. Gobernu taldeak ez du espiritu proaktiborik.

**EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunak** euskaraz esku hartzea.

Lehenik eta behin, komentatu nahiko nuke 339 dekretua, eta hau da inauterien inguruan eta ekarri nahi dugu mahai gainera, bada, guk eredu baten isla dela uste dugula, hau da, nola kudeatzen diren bai kultura eta bai kultura emanaldiak Leioan, eta ez gaudela batere ados. Egunean bertan edo pare bat egun arinago, jada Whatsapp-etik iritsi zitzaigun askori eragile batek, Leioako gazteentzako jarduera desberdinak antolatzen zituenak, bada, erabaki zuen ez kudeatzea aurten eta guretzat ez da bakarrik kezkarria aurten hau gertatzea, baizik eta

kezkarria iruditzen zaigu ez delako lehen aldia herri eragile batek Leioan etsipenean jausten dena, hau da, borondatez ekintzak antolatzen dituztenak, bada, gero eta gutxiago izaten hasi dira kudeaketa ereduak ez delako laguntzen. Izan ere, aurten kudeaketa guztia pare bat enpresari ordainketa eginda, dena kudeatu da eta oso errez egin da, baina guk uste dugu bestelako eredu batzuk ere bultzatu behar direla. Bereziki, gazteontzako eskaintza erakargarriak antolatu nahi baditugu.

Guk uste dugu gaiak antolatzerakoan, izan daitezkeena jaiak, izan daitezkeena inauteri batzuk, izan daitezkeenak ekintza kulturalak, bada, gazteei eta gazte antolatuei beraien askatasuna uztea eta erraztasunak ematea modurik egokiena dela, eta ez errazenera joan eta enpresa bati kontratatu nahi duguna. Gainera, bada, ikusten dugu, eta gu ez gaude parte honen kontra, baina uste dugu parte honek faltan somatzen duela beste parte bat dela, bada, titularretan ikusten dugunean Leioako Aratusten inguruko programazioa hurrengoa izatea, aurtengo erakusteak umeentzako dira, eta bai eta beharbada oso ondo umeentzako programazioa ezinbestekoa dela, baina beti faltan botatzen duguna eta hau gazte moduan ere esaten dut, gazteontzako eskaintzak egotea da. Eta uste dut hori modu nabarian falta dela Leioan, uste dut pertzepzioa oso zabala dela, gazteentzako eskaintza oso murrizta dela. Horri dagokionez, besteak beste, ordutegiak ere eragina dute, ikus dezakegu nola Erandiok eta Getxok ordutegi bereziak dituztela egun berezietan eta Leioan gazteak askotan kanpora joateko beharrezana izaten dute ordutegi arazoak direla eta. Beraz, nik uste dut ere sentsibilitate pixka bat hartzen hasi beharko ginatekeela udal moduan gazteon beharrezan eta nahiekin. Eta beraiek ere kontuan hartzen hasia eta ez bakarrik beraientzako eskaintza bat burutzea, baizik eta beraiek ere eskaintza burutuko dutenean erraztasunak jartzea. Erraztasunak jartzea gazteek antolatzeko, nik uste dut modurik egokiena gazteentzako eskaintza on bat egiteko gazteek beraiek kudeatzea dela.

Eta bigarrenik, bi dekretu batera komentatu nahiko nituzke, 335 dekretua eta 321 dekretua, hain zuzen. Hauek Sakoneta kiroldegiaren inguruan dira. Lehenik eta behin, Javier Allende Villanuevari egindako adjudikazioaren ingurukoa da, hau da, gimnasioko muskulazio eta fitness instalazioen adjudikazioaren bukaera datorrela eta horren baitan esaten da adjudikazio berria datorrela eta irakurtzen badugu "El Correo"-n egindako titularrak eta beste batzuetan egondako adierazpenetan aipatzen da udalak etorkizunean kiroldegia modu zuzenean kudeatzeko helburua duela. Orduan, hor, lehenik eta behin zalantza bat suertatzen zaigu, ea hurrengo kudeaketa, hau da, hau bukatzean kudeaketa zuzena emango den edo berriro beste enpresa baten bidez kudeatuko den.

Eta horrekin batera zalantzak sortzen zaizkigu, ea udal talde honek zer helburu dituen Sakoneta kiroldegiarekin. Izan ere, prentsan egindako adierazpenak irakurrita, aditzera eman daiteke Sakoneta kiroldegia kiroldegi berria eraikitzerakoan alde batera utziko den kiroldegia dela eta guk uste dugu hori ez litzatekeela modurik egokiena izango, uste dugu Sakonetak daukan kokapenarengatik eta daukan instalazioengatik aprobetxatu ahal izango litzatekeela eta elkarlan bat izan ahalko lukeeka beste kiroldegi berriarekin. Guk uste dugu kiroldegi berria eta Sakoneta bateragarriak izaten ahalegindu behar garela. Eta horregatik galdetu nahi dugu ea zein den, kiroldegi berria egiterakoan, Sakoneta kiroldegirako dagoen irtenbidea. Eta horrekin batera eskatu nahi dugu Sakoneta kiroldegiak behar dituen inbertsioak behingoz egitea.

**Euzko Abertzaleak Taldeko M<sup>a</sup> del Carmen Urbieto González alkatearen** esku hartzea.

Zure esanetan, inauterien gaiaren inguruan merkatariei diru-laguntza eman zitzaiela hitz egin zen Batzordean eta bakarrik Merkatarien Elkarteko merkatariei eman zitzaiela Halaber, zuk

zeuk esan duzu sariak direla eta ez diru-laguntzak eta, bai, sariak dira, ez diru-laguntzak, beraz, kasu honetan diru-laguntzak lortzeko ez gara berdintasunaren printzipioa urratzen ari.

Leioa Bidean gaiari eutsiz, aldi berean, triste eta pozik zaudela diozu. Zure iritziz gauzak ez dira ondo egin, baina, gero, baietz esan duzu, Alderdi Popularraren hainbat proposamen erantsi direlako. Gainera, zuk aipatutakoaren arabera, datuak abenduan oso pobreak ziren, konfiantzazko botoa eman diguzu, ordea. Entsalada apur bat da, honakoa esanez: *ados nago, ez nago, gauza onak daude, hain onak ez direnak ere bai, ez dakit...*

Jakingo duzuen bezala, Leioa Bidean proiektuaren abiapuntua PERCOa, hau da, Leioan merkataritza suspertzeko proiektua da. Duela urte batzuk egin zen, ez dut zehazki oroitzen, jada 4 edo 5 urte igaro baitira. Suspertze plan horretan Udalez gain, merkatariek parte hartu zuten, baita herritarrek ere suspertze plana egituratzeko prestutasuna ageri bazuten. Bertan merkatariek beren beharrak zehaztu zituzten eta uste dut ez zutela bakarrik Elkartean zeuden merkatariek parte hartu, une horretan nahi izan zutenek ere bai. PERCOari begira planteatzen zen ekintza bat merkatariek, esan dezagun merkataritza txikiak, merkataritza gune handiekin hobe lehian jarduteko, gune handiak mehatxu bezala ikusten baitzituzten. Ekintza hau, Leioa Bidean proiektua, abiapuntua da, Leioako merkatariek herritarrei erosketa etxera eramatearen zerbitzu hau eskaintzea ona izan zitekeelakoan.

Gainera, gaiaren helburu bakarra ez da merkataritza suspertzea. Izan ere, beste ikuspegi batzuk ditu eta garrantzitsuak dira, beraz, kontuan hartu behar dira. Horietako bati eutsiz, nolabait, gure aukeren barruan, jendeak, pertsonak bizi pertsonala eta familiarra lanekoarekin bateratzeko erraztasunak ematen dira. Bide batez, ordutegia kontuan hartuta, Leioako herritarrek Leioako denda txikietan errazago erosi ahal izango dugu eta biziak bateratzea errazago suertatuko zaigu.. Nire iritziz alderdi hori estaltzen da eta oso garrantzitsua delakoan nago.

Beste bat ere betetzen du, garrantzi berekoa, alegia, nahiz eta azkeneko tokian aipatu. Adinduei bizia errazten diegu. Zergatik ematen dizkiegu erraztasunak adinduei programa honekin? Eguneroko erosketa denda txikietan errazago egin baitezakete. Nolabait esateko, merkataritza gune handietara hurbiltzeko zailtasun handiagoak dituzte. Aurrekoaren harira, zer gertatzen da? Pertsona hauek, ez bakarrik adinduek, baita desgaitasunak dituzten pertsonak, patologia desberdinak dituztenek etab. ere zailtasunak dituztela. Batetik, bizia erraztu nahi diegu eta, bestetik, Leioako denda txikietan eguneroko erosketa egiteko erraztasunak emateko asmoa dugu.

Datu pobreak dira, bai, zenbaki absolutuetan, bai programari atxiki zaizkion dendei erreparatuz, bai erabiltzaileak kontuan hartuta, termino absolutuetan. Bai, pobrea da, 20 denda inguru baitira eta urtean 1.000 bat biztanle daudela uste dut. Zenbakiak gutxi gorabehera hortik doaz. Dena den, programa oso finkatua dago, txikia da, baina txikitasun horren barruan, oso finkatua dago eta denda kopuru txiki horrek etengabe erabiltzen du eta erabiltzaile kopuru txikia, aldi berean, etengabe baliatzen da horrez. Horregatik, Merkatarien Elkartarekin bat, programa honi aukera eskaintzen jarraitu behar geniola iruditzen zitzaigun, hilabete batzuez, behintzat. Hasieran sei izango dira, bilakaeraren arabera. Merkatarien Elkartarekin batera aztertu ostean, programa amaitutzat jotzen bagenuen, berriz sortzea, berriz abiaraztea, zailagoa izan zitekeen. Ildo horri jarraiki, Merkatarien Elkarteak egiten jarraitzen duen apustua da eta Udalak aukera hori eman behar diela uste du, esaten nuen bezala, alde askotako poliedroa baita eta guztiak onak direlakoan gaude. Hala, denbora batez aurrera egitea pena merezi du.

**Leioako Alderdi Popularreko Jazael Martínez Esteban jaunaren esku hartzea.**

Orain erantzun badezaket eta alkateak hala uzten badit, lehenengo dekretuaren inguruan, diru-laguntzei buruz hitz egin eta, gero, sariak direla esan dudanean, egin dena eta hori da, hain zuzen ere, salatzen duguna, diru publikoa erabiltzea da. Beraz, hausnarketak ez du balio handirik izan, baina barneratzea espero dut. Diru publikoarekin lehiaketan irabazleek bakarrik Leioako denda batzuetan eros dezakete eta ez beste batzuetan. Bilboko Udalak jaietako kartelaren lehiaketa 1.000 euro eman eta El Corte Inglésen gastatu behar izanaren antzekoa da. Guztiak izango lituzke kontra. Hots, diru publikoa hartzen ari gara eta diru hori Merkatarien Elkarterako sarietan emango dugula esaten ari gara. Sariak emango ditugu lehiaketa batzuetarako eta bakarrik Merkataritzaren Elkarteari atxikitako dendatan gasta daitezke, ez Leioako denda guztietan. Hori da guk salatzen duguna, diru hori hartu eta modu horretan banatzea. Oso ondo ikusiko genuke, baita babestu ere, Leioako denda guztietan kontsumitzeko sariak emango balira. Oso ondo irudituko litzaiguke hori eta ez genuke kexarik izango, baina bakarrik batzuetan egin ahal izatea, diskriminazioa da.

Bigarren dekretuari eutsiz, itxuraz, oso gaizki azaldu dut nire iritzia, Osoko Bilkurari eta Udalbatzari barkamena eskatzen diet hain gaizki adierazteagatik, triste eta pozik nagoela esan dudanean. Azaldu dut eta berriz egingo dut, baina oraingoan laburragoa izango naiz. Triste nago, nire ustez errespeturik gabe tratatu delako. Alkateak Osoko Bilkuran bere hitza eman zuen, ez dut berriz irakurriko: elkartearekin hitz egiten zuenean eta erabakia hartua zegoenean, jakinaraziko zigula eta ez da horrela gertatu. Nik, behintzat, Behargintza aldizkariaren, udal aldizkariaren eta egunkariaren bidez izan dut berri. Osoko Bilkura honetan leialtasuna eskatzen ari diegu alderdi politiko guztiei. Noizean behin, batek erratzen duenean eta hitza betetzen ez duenean, onartzea ona da. Horregatik, triste nago, gai honetan nire eman zaidan tratua kontuan hartuta. Hitza eman zitzaidan eta ez da bete, hori da pena.

Eta poztasunez ari naizenean, ez nago bakarrik pozik Alderdi Popularraren proposamenak kontuan hartu direlako. Ez dut gustuko halakoa izatea, oso argi esan dut, guk egin genituen proposamenak hobetu direla, atxiki ere bai, beste batzuk, berriz, bere horretan sartu dira. Gauza bera egin da biztanleen proposamenekin baita gobernu taldeak egindakoekin ere. Ez dut esan nahi guk egindako proposamenei esker agiriak modu hori hartzea, pozik nagoela baizik. Hitzarmen honek hamabi hilabete iraun ditu, aurrekoak sei eta lehengoak datu batzuk izan zituen. Hitzarmen honen pobrezia bera zuten eta funtzionatzen ez zuen zerbait hamabi hilabetez berritzea erabaki zen. Hori izan zen gure kritika. Pozik nago, gobernu taldeak behar bezala funtzionatzen ez zuen zerbaitetan aldatetako sartu baititu.

Alkateak 1.000 erabiltzailez hitz egin du. Lehen gorantz biribiltzeari buruz hitz egiten zuen. Abuztuan zerbitzua itxita badago eta irail, urri eta azaroan (hilabeterik onenak) batez bestekoa 100ekoa izan bada eta gainerako hilabeteetan 50ekoa, nire batez bestekoa 700 eske inguru kokatzen da eta ez erabiltzaile, eske asko errepikatuak baitira. Beraz, urtebetean gutxi gorabehera 750, 800, 700 eske egin dira -ez dakit kopurua, Batzordera iritsi arte ez baitugu jakingo-, baina erabiltzaileen kopurua askoz txikiagoa da, hau da, udalerrri honetako 700 pertsonatik behera esan dezakegu erabili duela zerbitzua 2016. urtean. Hori esan nahi nuen, hortaz, gorantz biribiltzearena, ez dakit.

Ni haserretzen naiz ideien entsalada dela esatea. Nire asmoa ez zen entsaladarik transmititzea, ezta menestrarik edo antzekorik ere. Nire helburua zergatik nengoen triste adieraztea zen. Nire iritziz Osoko Bilkuran emandako hitza ez da bete, hau da, erabakia hartu denean ez zaigu berri eman eta komunikabideak erabili behar izan ditugu eta hori triste egoteko

arrazoia da. Bestalde, pozik nago aldaketak sartu direlako eta konfiantzazko botoa emango dugu, noski, emango dugula konfiantzazko botoa, hasieran esan dudan bezala, gure asmo handiena udalerriko merkataritza suspertzea baita. Hala eta guztiz ere, ulertu beharko dute alkateak eta gobernu taldeak gustuko ez dugun zerbait dagoenean, esango dugula eta ez bakarrik behin, beharrezko guztietan adieraziko dugu, zerbait aldatzea lortu arte. Argi dago Osoko Bilkura honetan gure garrantzia gobernu taldearena baino askoz txikiagoa dela, baina horregatik ez diogu pentsatzen duguna esateari utziko. Hala, azaltzen saiatzen gara, hobeago edo okerrago, eta alkate andreari ideien entsalada iruditu bazaio, barkamena eskatzen diot, ez da nire asmoa izan. Nire helburu bakarra zergatik geunden ados adieraztea zen, baita zergatik nengoen pozik eta, aldi berean, triste ere. Eskerrik asko.

**Euzko Abertzaleak Taldeko M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen esku hartzea.**

Ikus dezagun. Nik eskertzen dut zuek ekarpenak egitea, noski, baietz; baina gai honekin jazarpena egiten ari zarete eta adeitasun osoz esaten dut. Jada ez dakit alde ala aurka al zaudeten edo zer asmo duzuen. Zenbakiak pobreak dira eta nik hori onartu dut, baina, aldi berean, sendo ageri dira. Programa sendoa da, txikia, baina indartsua eta beste aukera bat emango diogu, besterik gabe. Pozten naiz horren alde egotea eta sentitzen dut berri ez ematea, agian, ez da Ekonomia Sustapen, Prestakuntza eta Enplegurako batzordea egin. Batzuetan ezin da gauzatzen diren ekintza eta programa guztien berri eman, baina eman diezaiozun aukera bat honi, besterik gabe.

Xabier, 50 ikurrin erosi ditugula aipatzen zenuen eta 50 ikurrin horiekin Udalak zer asmo duen jakin nahi duzu. Ez du helbururik eta gauza bera esango dizut: ez ikusi mamuak ez dauden tokian, ez baitaude, mamuak ez dira existitzen. 8 edo 10 puntutan ditugun ikurrinak ordezkatzeara da gure asmo bakarra. Puskatu egiten dira, haizeak urratzen ditu, etab. Beraz, gure helburua puskatuak daudenean ordezkatzeko joateko ikurrin kopurua izatea da. Ibanek dioenaren arabera, merkeagoa da kopuru zehatza erostea, besterik gabe, ez dago bestelako asmorik.

Holliday zirkuari dagokionez. Bai, hiru edo lau egun ikaztegi jartzea eskatu digute; orain ez dut oroitzen zehatz-mehatz zenbat egun ziren. Eta zuk *“arduragabekeria dela...”* esaten duzu. Bereak eta bi esan dizkiguzu, arduragabekeria dugula hainbat gauzatan... Hain zuzen ere, merkatariekin bilerak izan ditugunean, merkatariek ez dute nahi ikaztegi aparkalekua kentzea. Merkatariek, alegia, eskatu digute hori. Ildo horri eutsiz, jaietan arazoak ditugu, baina puntu batera iritsita, jaiak ezin ditugu deusezta. Egunero aparkaleku hori Leioan enpresak dituzten pertsonen eta lanera etortzen direnen betetzen dute eta, beraz, merkatariek eta enpresek ez dute desagertzea nahi. Begiratzen aritu gara eta ez diegu arrazoirik gabe ezetz esan, ez da horrela gertatu; proposamenak egin dizkiegu, baita eurek guri ere. Hobe esanda, guk beraiei proposatu ordez, haiek aipatu dizkigute bestelako kokapenak, baina ezinezkoak ziren, kokapen horiek publikoak ez baitziren, pribatuak baizik eta, ondorioz, ezin ditzakegu instalazioa eta jarduera baimen, ezta bestelako gauzarik ere lurzoru pribatuan. Are gehiago, kutsatua zegoen tokian instalatzea eskatu ziguten eta, noski, hori bai dela arduragabekeria, ez baita publikoa eta, gainera, oso kutsatuta baitago. Han kokatzea eskatu zigun zirkuak. Ez da bestelako arrazoirik izan.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren esku hartzea.**

Nire ustez, arestian komentatu dut. Jada hilabete asko Osoko Bilkura honetan bertan aipatu zen ikaztegiaren aparkalekuan barrakak, jaiak zeudenean planteatzen zen arazoa. Konponbidea bilatu behar zitzaion eta hurrengo esan zen, hala uste dut, behintzat: *bai, egingo*

*dugu; bai, egingo dugu*, baina ez da ezer egin, ez da ezer komentatu, ez dira aurrerapausoak eman, itxuraz. Hau da, ez denean ezer egiten, arazoak daudela dakigunean, *“merkatariak aparkalekua mantentzea eskatzen digute”*, baina ez dugu aparkalekuarekiko konponbiderik bilatzen, jaiak eta barrakak daudenean. Merkatariak jartzen ditugu aurrean, *haiak ezetz eskatzen digute*, baina erantzukizuna alkate andrearena eta gobernu taldearena da. Hautabideak bilatu behar dituzte eta aparkaleku hori data zehatzetan ezin badaiteke erabil, konponbideak bilatu behar dira, udalerraren onurarako. Hala eta guztiz ere, ez dugu ezer egiten eta hala delako, zirkua etorriko zaigu, edozein hurbilduko zaigu, eta Leioan jartzeko ez du tokirik izango. Nolanahi ere, beste udalerrri batera abiatuko da. Aurrekoaren harira, hemen gauden bezala jarraituko dugu eta larria izanik, okerrena ez da zirkuak bere bidea jarraitzen egitea, okerrena da gobernu taldeak ez duela ezer ikasi, hori da tamalgarriena. Damutuak baleude, behintzat. *Bai, galdu dugu; hurrengoan norbait, bai zirkua, bai beste bat, Leioan tokiaren bila etortzen denean, lekua izan dezagun hautabideak bilatu behar ditugu, Leioan jarduera hori sortu ahal izateko.* Okerrena da ez dela ezer gertatzen, ezer ere ez. Hemendik urtebetera edo hilabete gutxi batzuetara norbait etorriko da gure udalerrira jarduera ekartzera eta ez dugu tokirik izango eta erantzun bera emango zaio eta gobernu taldeak jarduerarik eza berdina azalduko du. Noski, gauza larriak esan ditugu! Baina mereziak dira.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Xabier, ez dizut erantzungo, dekretuarekiko galdera erantzuna dago.

Aritz, inauterien inguruko galdera egin duzu, ereduaren isla izateari buruz... Bai, gurea, noski, gure gobernu taldeak gobernatzen duelako. Izan ere, kulturen gure eredia hau da, baita inauterietan ere. Zer ari gara lanean espazio baterako edo eredurako ala gazteek aukera gehiago izan ditzaten eredia aldatzeko? Horretarako ere bai, baina inauteri hauetan Leioan gazteak egon dira eta oso pozik, gainera; oso giro onean. Hori da gazte askok transmititu diguna. Gazteentzako jarduera gehiago eskaintzen dituen programan lanean jarraitu behar dugula? Zurekin ados naiz, baina ez bazaizu axola, aurkeztu proposamenen bat, lagundu ildo horretatik.

Kiroldegiko, muskulazio aretoko eta abarreko gaiari dagokionez, adjudikazioa amaierara iristen ari da, bai, horretan gaude eta nola egin aztertzen ari gara, baliabide propioak erabiliz edo ez, ez baitago erabakia. Baliteke zeharkako kudeaketa izatea, enpresaren bitartez, baina oraindik erabakitzeke dago eta gaian lanean dihardugu. Kiroldegi berria egiten dugunean Sakoneta aprobetxatzeari buruz, Sakonetaren inguruan egingo dena hainbatetan hitz egin dugu eta gure jarrera betiere kiroldegi berriak Sakoneta ordezkatzeko izan da. Xede horrez, udalerriak dituen kirol beharrak ikusteko lanean hasi behar dugu, lehen aipatu dudak bezala, kiroldegia egiteko bideragarritasun ekonomikoa landu behar dugu, urte askorako izango dela kontuan hartuta, hala egin behar dugu. Nire ustez kiroldegi berriarekin epe luzera beharrak beteko dira.

**EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunaren** esku hartzea.

Lehenik eta behin, zuen zintzotasuna eskertu nahi dut, zuen eredia dela onartzeagatik, baina hori da, hain zuzen ere, kritikatzeko duguna: kultura jarduera guztiaren kudeaketa ulertzeko eredia, gazteen eskaintzari dagokion kudeaketaren interpretazio eredia. Zure iruzkin batean, bertan islatzen dira gure ereduaren eta zuen ereduaren arteko desberdintasun nagusiak. Niri proposamen zehatza ekartzeko eskatu didazu. Nire iritziz, EH Bilduk beti apustu berdina egin du eta zintzoa izan da. Gazteek izan behar dute beren burua antolatu behar dutenek, beren proposamenak garatu eta gauzatu beharko dituzte eta Udalak lan horretan lagunduko die. Ez da udalerrri honetan kultura biziaren eta gazteen biziaren zuzendaria izango.



Ildo horri eutsiz, oso proposamen zehatzaz galdetzen badidazu, adibidez ordutegiaren gaia, beraiekin hitz egiten duzunean beti azaltzen dute gazteek egun zehatzetan Leioan ordutegiak ez direla aproposak eta askotan horregatik alboko udalerrietara joaten direla. Niretzat hori penagarria da, inguruko udalerrri bateko edozein tabernatarara joan eta Leioako gazte guztiak bertan aurkitzea. Leioan egotea ederragoa litzatekeela pentsatzen duzu. Horrez gain, seguruagoa litzateke, ez bailituzkete joan-etorriak egin behar. Horregatik, nire iritziz bi ereduak talka egiten dute eta, modu berean, osasuntsua da eztabaidan jardutea, baina utz nazazu esaten gure ereduak erabat desberdina dela.

Sakonetari dagokionez, orain jakin dugu kudeaketa erabaki gabe dagoela. Izan ere, komunikabideetan gauza bat irakurtzen dugu eta dekretuan bestelakoa. Gero, nahastea izatea harritzen gaitu. Gure ustez ez da Sakoneta ordezkatu behar; bi instalazioek, etorkizunekoak eta Sakonetak, batera jardun behar dute. Ildo horri eutsiz, kezkatuta gaude, agian, gaur egun Sakonetak duen inbertsiorik eza, ordezkatu izanagatik baita. Guri horrek arduratzen gaitu, bitartean Sakonetak behar bezala egoteko inbertsioak behar dituelakoan eta hala erreklamatzeko dute erabiltzaileek.

Arlo horretan harrigarria da bi galdera zehatzen inguruan izandako gardentasunik eza. Ez zitzaizkigula erantzungo esan zitzaigun. Lehenengoa, Sakonetako kiroldegian izandako kexa eta erantzunei buruzko txostena zen. Edozelan ere, erabiltzaileek egiaz erreklamatzeko dutena ezagutu nahi dugu, UAAk 108. artikuluan xedatutakoan oinarrituta, ezeztatzen zaigu. Ez da lehenengoz atera, artikulua bera behin baino gehiagotan entzun baitugu. Halaber, kirol taldeekin izandako topaketetatik abiatuta, sor daitezkeen aktak eta informazioak ukatzen zaizkigu. Horregatik, gure udalerriko kirol biziari buruzko guztia jakinaraztea nahiko genuke, oso aberatsa eta oinarritzko alderdia baita. Ez du balio administrazio eraginkortasunari buruzko printzipioa bat-batean agertzea, informazioari eman nahi ez denean. Kasu honetan administrazio eraginkortasuna informazioa eskuratzeagatik ez litzateke urratuko.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen esku hartzea.**

Ereduari dagokionez, beste eredu bat duzue, noski, eta zu hemen eserita egongo bazina eta ni han banengoke aplikatuko zenuke. Hori argi dago.

Informazioari dagokionez, ez dakit noiz ukatu den informazioa, Kultura Batzordean gai askoz hitz egin baitezakezue. Orduan, planteak ezazue galderaren bat kexen gaiari buruz.

**Euzko Abertzaleak Taldeko Estibaliz Bilbao Larrondo andrearen esku hartzea.**

Batzordean hitz egin zela eta Jokin Ugarte egon zela uste dut. Zergatik ezeztatu zen? 108. artikulua eragatik. Eta zer azalpen eman zen? Gutxienez 5.500 pertsonen espedienteak zaudela eta kexak pertsona, titular edo erabiltzaile bakoitzari zegokion espedientearen zaudela. Erabiltzaile asko dago eta kiroldegiko erabiltzaile guztiak berraztertu beharko lirateke, kexaren bat ba al dagoen ezagutzeko. Horregatik ukatu zen.

**EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunaren esku hartzea.**

Egoera horiek saihesteko, parekotasuna izan ditzaketean kexa guztiak txosten batean sartzea eta, gero, txosten hori guri eskuratzeko eskatzen dugu. Nire iritziz ez da burugabea. Izan ere, kexa edo prozedura asko parekotasunarengatik multzoka daitezke eta prozedura horien guztien ondorioa ere azaldu beharko litzateke.

**Euzko Abertzaleak Taldeko Estibaliz Bilbao Larrondo andrearen** esku hartzea.

Batzordean ezin hobeki azaldu zen. Alderdi bezala zuek egindako eskaeran, ondorengoak jakin nahi zenituzten: zenbat kexa, kexa mota, kexa azaltzen zuen pertsona, Udalak ala kiroldegiak deitu al zion. Hori ez al da bereizi gabeko informazioa eskatzea? Izugarria da.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Hala eta guztiz ere, Aritzekin amaitzeko, artikulua ez gogoratu arren, UAAk, aldi berean, aipatzen du administrazio bizia ezin daitekeela geldi bereizi gabe informazioa eskatzeagatik eta abarregatik. Dokumentazioa hor dago, dagokion sailean, beraz, joan eta begiratzea besterik ez dago, inolako arazorik gabe.

**Euskadiko Sozialisten Udal Taldeko Juan Carlos Martínez Llamazares jaunaren** esku hartzea.

Bereizteko, ez dut hitza lehen eskatu, baina, Aritz, jarri duzun adibidea ez da egokiena. Leioako gazteak ondoko herriko tabernan aurkitzea, nik uste nuen esan behar zenuela kirola egiten edo bestelako jardunean. Ematen didazun adibidea alboko herriko tabernara joatea bada, zer nahi duzu esatea, ez nago ados. Kritika beste modu batean onartuko nuke kirola egiten ari direla esango bazenit, Leioan kirolik ezin dutelako gauzatu, baina, tira, besterik gabe, ez nuen puntua eten nahi.

Osoko Bilkura **jakitun** gelditu da.

## **11.- PREMIAZKO MOZIOAK**

Gobernu Taldeak, Premiazko Mozio gisa, gainerako udal taldeekin alde aurretik adostu zen testua aurkeztu zuen, Martxoaren 8ko Erakunde Adierazpena, hain zuzen.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

**Euskadiko Sozialisten Udal Taldeko Juan Carlos Martínez Llamazares jaunaren** esku hartzea.

Lehenik eta behin, eskertu nahi dizuet, batez ere, guztiek, elkarteen sareak eta, bereziki, politikari batzuek, dokumentua landu duzuelakoan bainago. Jada Batzordean aipatu nuen. Esker onak eman behar zaizkizue, ekarpenak egin dituzuelako eta guztiek begiratzea saiatu naiz.

Ekarpenak egin dituzue eta, itxuraz, interesgarria da sartzea. Hala ere, jada azaldutakoari jarraiki, pentsatzen aritu gara eta, agian, beste modu batean erantsi ditugu. Gure ustez, “murrizketa” terminoa, arlo honetan, behintzat, ez genuen egokitzat jotzen, murrizketak, orokorrean, guztiei eragiten baitie, sexua alde batera utzita. Gure iritziz, murrizketa baino gehiago diskriminazioaren gaia landu nahi zen, hau da, iraganean diskriminazio politika burutu dela. Izan ere, diskriminazio politika horiek salatzea eskatzen zen. Berriz azpimarratzen dut, gure ustez, murrizketaren ordeztu generoarekin zerikusi handiagoa zuen kontzeptua erabili behar zen, murrizketa publikoek pertsona guztiei eragiten baitizkiete, inolako asmorik gabe; diskriminazioak, ordea, sexu bati eragiten dio bestearen gainean.

Hori hasteko eta, bigarrenez, aurrekontu gaiari buruzko aldaketa txikia dago testuan; zehazki, honakoa eskatzen zenuten: “17/19 aurrekontuetan berdintasunaren partidak gehitzea”. Horrez gain, gogoratzen baduzue, aurrekontuetan hitzartu genuen, ez zela partida igo behar, ez zen zenbatekoa aipatu behar, berdintasunari buruz programek eskatuz gero, dagokion espedientearen bidez izapidetzea eta, bide batez, partida gehitzea baizik. EH Bilduk proposatu ostean, gobernu taldeak konpromisoa onartu eta bere gain hartu zuen.

Hitzartutakoari eutsiz, berdintasunaren arloan aurrekontu politika aurrekontuetan ez zela oso ondo islatzen ikusten genuen. Hala, kasu honetan antzeko terminoek hitz egiten genuela ulertzen baikenuen, dokumentu berrian edozein programa, dinamika, ikastaro edo lantegiri aurrekontu hornidura ezarengatik eragin gabe neurriak gauzatzeko hornidura ekonomiko nahikoaren bidez Berdintasun Sailari eta gainerako udal sailei beharrezko baliabideez hornituko zaiela aipatzen dugu. Beste hitzetan esanda, hurrengoa da: *behar izanez gero, hornituko da*. Hori dagokion partidaren zenbatekoa jartzea baino hobea da.

Amaitzeko, zoriondu eta hau ahobatezkoa izan dadila eskatzen dizuet, batez ere, aurten, ikus dezakezuen, ordezkari nabarmendu baita, bai herri administrazioan, bai enpresetan eta, gainera, % 40az hitz egiten da. Nire ustez honen inguruan bi datu aipatu behar ditut: Udalean 12 zinegotzi gizonetzkoak gara, emakumezkoak, ordea, 9 (% 57-% 43). % 40ko kanona errespetatzen dugulakoan nago, talde askok kremlera zerrendekin gizonak edo emakumeak zerrendetara berdin iristea ahalbidetzen baitute. Horrez gain, harrigarria izan arren, EAJk gizonak baino emakume gehiago ditu gobernu taldean; beraz, zorionak eman horregatik ere. Bestelako datu garrantzitsua: batzordeetako burutzei erreparatuz, Udal honetako lau batzordeetan buru emakume bat da eta hirutan gizona, hortaz, alderantziz gertatzen da. Ni alderdi horretaz ohartu naiz. Tira, datu bat da, nahiz eta batzuentzat barregarria izan, baina, nolabait esateko, berdintasuna lortzen saiatzen garela islatzen du eta batzuetan emakumeen balioarengatik burutzara iristen dira. Jakin badakit datu isolatuak direla eta Leioari eragiten dizkiotela; bakarrik ordezkari adierazten dute, baina aipatu nahi nituen, martxoaren 8ko jardunaldiak aurten duen ikuspegia, ordezkari, alegia, kontuan hartuta. Ildo horri jarraiki, zoriontzekoa da, errespetatzen dugulako.

Hala eta guztiz ere, adierazpenaren puntuak oso sendoak dira, oso garrantzitsuak direla onartu behar da. Hala, Berdintasun Sailak, batez Enararen lanari esker, kasu honetan aitopenean adierazitakoa kontuan hartuko du eta guztiak animatu nahi zaituztet Berdintasun Sailean lanean jarraitzera. Oraindik bide luzea eta oso erakargarria dago egiteke eta proposamenak buru ditzazuen eskertuko nuke. Nolanahi ere, gobernu taldeak, are gutxiago ere, egia osoa ez duenez, gaiak planteatu ditzakezue. Ildo horri eutsiz, neurriak bultzatzea eskertuko genuke, guztion desideratutako hurbiltzeko: diskriminazio edo desberdintasun hitzak ahaztea, alegia, eta, bide batez, Hizkuntza Akademiaren hiztegitik ezabatzea.

### **Leioako EH Bilduko Jokin Ugarte Egurrolaren esku hartzea.**

Bai, aurreratutakoari jarraiki, Aitorpenaren alde bozkatuko dugu. Hala ere, nik kritika bat egin nahi dut, emakumeen eskubideak nahiko krisi gogorrean sartuak daudela uste baitugu. Eremu publikoan murrizketek guztiei eragiten dizkiete, baina nabarmenagoak dira gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunean. Osasun Sistema Publikoan murrizketek guztiei eragiten dizkiete, baina, aldi berean, emakumeen osasunean modu garrantzitsuan negatiboki eragin dute. Eremu pribatuan, aldi baterako lan denboraldiak, ordainsari urriak, egun gutxirako kolokako kontratu sistemak, guztiek sufritzen ditugu, baina emakumeetarantz bideratuagoak daude. Gure iritziz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak ez du aurrera egiten. Alderantziz, atzera

egiten du edo mantentzen da, desberdintasunak hor dirau. Udaletan, Aldundietan eta abarrean berdintasunaren alde gaudela baieztatzeaz gain, baieztapena konpromiso zehatzagoekin garatu behar da.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen esku hartzea.**

Ondoren aipatuko dudana ez nuen esan nahi, baina Aitorpenarekin lan mordoa eta bidea dugu egiteke, egiazko berdintasunera iristeko. Arrazoi osoa duzu eta erabat ados nago zurekin, baita Juan Carlosekin ere. Nazioarteko Aitorpenari dagokionez, Eudelen Batzorde Betearazlean egin da. Lehen ez zineten bertan eta osatu nahi izatea uler dezaket. Horrekin ez dut esan nahi ez dugula jarraitzen egingo, baina aitorpena Eudelen Batzorde Eragiletik irten dela argitu nahi dut eta horretan EH Bildu ordezkaturata dago. Horregatik, ez dezagun gaiari buruzko demagogiarik egin, nahiz eta oso-osorik ados egon eta aurretik bide luzea gauzatu behar izanarekin erabat ados azaldu arren.

**Leioako EH Bilduko Jokin Ugarte Egurrolaren esku hartzea.**

Ez dut uste demagogia denik; bai, ados gaude eta alde bozkatuko dugu, baina gauza zehatzagoak behar direla uste dugu.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen esku hartzea.**

Beraz, erabat ados gaude.

## PREMIAZKO BOZKETA

Proposamena irakurri eta mozioaren premia bozkatzeko jarrita, udalkide guztiek aho batez onartu zuten.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena irakurrita eta bozkatzeko jarri ondoren, kide guztiek aho batez onartu zuten ondorengo testua, Martxoaren 8ko Erakunde Adierazpena, hain zuzen:

### ADIERAZPENA

**Martxoak 8: Ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio**

“Emakume gutxi daude ordezkaturata udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoei aurre egin behar izaten diete”. Hori jaso zuen Inger Lingek<sup>1</sup> Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkari politikoari buruzkoa izan zen.

### DECLARACIÓN

**8 de marzo: 8 principios para una representación equilibrada**

“Las mujeres están infrarrepresentadas en la toma de decisiones políticas a nivel municipal y enfrentan dificultades específicas para el acceso y participación igualitaria en la política local”. Así se establece en el Informe presentado por Inger Linge<sup>2</sup> en la 31ª sesión del Congreso de Autoridades Locales y Regionales del Consejo de Europa sobre la participación y representación política de las mujeres a nivel local y regional celebrada el pasado 20 de octubre.

<sup>1</sup> Inger Linge Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuko genero berdintasunerako bozeramailea da.

<sup>2</sup> Inger Linge es portavoz para la Igualdad de género del Congreso de Autoridades Locales y Regionales del Consejo de Europa

Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkariak eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, “euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte”. Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundearen zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkatzeko dute. 2015ean, alderdi politikoen %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere. Euskadin gehiengoak duten sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko

La participación equilibrada de mujeres y hombres en la toma de decisiones es un requisito previo de cualquier sociedad democrática. Así se afirma en la Carta Europea para la Igualdad de mujeres y hombres en la vida local y se insta a que los gobiernos locales tomen todas las medidas y adopten las estrategias necesarias para promover una representación y una participación equilibradas de mujeres y hombres en todos los ámbitos locales de toma de decisiones.

Entre estas medidas, el artículo 23 de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres aprobada por el Parlamento Vasco establece que “todos los poderes públicos vascos deben promover que en el nombramiento y designación de personas para constituir o formar parte de sus órganos directivos y colegiados exista una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. A tal fin, adoptarán las medidas normativas o de otra índole necesarias”. La citada Ley también hace referencia a la presencia equilibrada de mujeres y hombres en los órganos de dirección de las asociaciones y organizaciones profesionales, empresariales, de economía social, sindicales, políticas, culturales o de otra índole previendo que las administraciones públicas vascas puedan adecuar las subvenciones que les correspondan en función de la adopción de medidas que posibiliten un incremento de la presencia de mujeres en aquellos órganos de dirección en los que están infrarrepresentadas y no puedan conceder ayudas a las asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento.

En el ámbito municipal, sólo un 24,7% de los consistorios de la CAE son presididos por alcaldesas y éstas representan un 18,82 % de la población vasca. En 2015, los partidos políticos han optado por colocar a mujeres como cabezas de lista solamente en el 32,58% de las listas electorales; y en cuanto a la permanencia, las mujeres tienden a ascender a menor ritmo y permanecer menos tiempo en posiciones de liderazgo.

Entre los sindicatos mayoritarios de Euskadi, sólo uno tiene a una mujer como Secretaria General y ninguna de las cuatro entidades financieras con sede

lehendakaririk, eta erabakitzeko organo garrantzitsuetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politiketan.

Egoera horren JAKITUN, **Leioako Udalak** Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:

1. Iraganean emakumeentzat arlo sozial, laboral, ekonomiko, kulturalen ... diskriminazioa ekarri duten politika horiek salatzea, udalaren aldetik aipatu politikek emakumeen eskubideetan sortu dituzten efektu kaltegarriak aurre egiteko beharrezko diren neurriak adosteko konpromiso irmoa dagoela

2. Zentzu horretan kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzen saiatuko da, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikoetan izan ezik).

3. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuak edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.

4. Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegiak eta lan-metodoak

en Euskadi tienen una presidenta, estando las mujeres representadas apenas en un 22,6 % en sus órganos de decisión más importantes.

Si bien no hay diferencias relevantes de género en cuanto al porcentaje de participación de mujeres y hombres en asociaciones, las mujeres son mayoría en asociaciones vinculadas con su rol tradicional femenino: asociaciones educativas, religiosas, de cooperación al desarrollo y asistencia social mientras que tienen menor prevalencia en las deportivas, políticas, sindicales, profesionales, artísticas y de vecinos y vecinas.

Las asociaciones de mujeres, por su parte, cuentan en general con presupuestos y capacidad de incidencia limitadas en las políticas municipales.

CONSCIENTE de esta situación, **el Ayuntamiento de Leioa** asume las recomendaciones del Informe europeo y los compromisos derivados de la Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local y las obligaciones establecidas en la Ley 4/2005 para la Igualdad de mujeres y hombres y **se compromete a:**

1. Denunciar aquellas políticas públicas que en el pasado han generado situaciones de discriminación hacia las mujeres a nivel social, laboral, económico, cultural...con un compromiso firme a nivel municipal de acordar las medidas necesarias que tiendan a combatir los efectos perniciosos que dichas políticas han provocado en los derechos de las mujeres.

2. En este sentido se procurará garantizar la representación equilibrada de mujeres y hombres en sus órganos consultivos y de toma de decisiones, así como en sus nombramientos para cualquier organismo local, de forma que ninguno de los sexos esté representado por menos de un 40% (a excepción de las estructuras específicas de fomento de la participación de las mujeres).

3. Establecer mecanismos para evitar que las representantes elegidas se vean afectadas por formas estereotipadas en el reparto de competencias o atribución de funciones, o por cualquier otra forma de discriminación o acoso.

4. Introducir medidas que permitan conciliar la participación con la vida personal y familiar tanto a través de sistemas de horarios y

eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.

5. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren araberako neurri zuzentzaileak ezartzeko.

6. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak, adostu daitezkeen dinamika eta egituren bitartez, sendotzea, eta emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jabekuntza-eskola bezalako programetan sar daitezen ahalbidetzea.

7. Udalerriko emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengoen taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.

8. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.

9. Udaletako Berdintasun Sailari eta gainerako udal sailei neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea, diru-hornidura nahikoaren bitartez, aurrekontuko diru-hornidurarik gabeko programa, dinamika, ikastaro, tailer edo antzekorik ere izan ez dadin..

10. Leioako Udalak herritarrak, oro har, edota emakumeak, beren-beregi, helburu dituzten politika publikoen aurrerapenak ez eteteko konpromisoa hartzen du.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduizkoak diren neurriak har ditzaten.

métodos de trabajo como a través de sistemas de apoyo al cuidado.

5. Recoger, procesar y hacer públicas estadísticas desagregadas por sexo, de forma sistemática, para dar seguimiento a la evolución de la participación de las mujeres a nivel local y desarrollar medidas correctoras en base a este análisis.

6. Fortalecer espacios y redes que fortalezcan la participación de las mujeres a través de las dinámicas y estructuras que se acordasen; y facilitar el acceso a programas como la escuela de empoderamiento para mujeres electas 'Virginia Woolf Basqueskola'.

7. Implementar acciones específicas que faciliten el empoderamiento y el fomento de la participación sociopolítica de las mujeres del municipio, en particular de aquellas pertenecientes a grupos minoritarios de forma inclusiva.

8. Garantizar que los procesos de participación ciudadana desarrollados en el municipio incorporen la perspectiva de género.

9. Dotar de recursos necesarios al área de igualdad y resto de áreas municipales, a través de la suficiente dotación económica, para llevar a cabo estas medidas sin que ningún programa, dinámica, curso o talleres etc. se vean afectados por falta de dotaciones presupuestarias.

10. El Ayuntamiento de Leioa, se compromete a no cercenar los avances obtenidos en políticas públicas que tengan como destinatario a la ciudadanía en general y a las mujeres en especial.

Con el mismo objetivo de fortalecer la participación social y política de las mujeres instamos a los partidos políticos a que hagan suyos estos compromisos y adopten medidas que sean referenciales para otros agentes políticos y sociales.

## **12.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

**Leioako Alderdi Popularreko Jazael Martínez Esteban jaunaren esku hartzea.**

Eskerrik asko, alkate andrea. Galdera bat egin nahiko nuke. Baliteke espero izatea, atzo bertan Gizarte Ekintzako Batzordean egingo nizula aipatu bainuen.

Hainbat batzordetan jakinarazitakoaren arabera, pinu beldarraren izurriaren aurrean Udaleko lorezaintza taldearen neurriak ezagutu ditugu. Urtez urte data hauetan udalerrri guztietara eta, zehazki, geurera, hau da, Leioara iristen da. Eta izurria dela diot ez kopurua arriskutsua suertatzeagatik, beldar bakarrak gure biztanle leioarren maskotetan eragin ditzakeen ondorioen larritasunagatik baizik. Ondorioen artean, besteak beste, hurrengoak daude: paralisi partziala, erabateko paralisia, arazo neurologikoak, mihiaren nekrosia edo maskotaren heriotza, txikia bada (25/30 kilo baino gutxiago).

Arazoaren inguruan, gure kezka azaldu genion Gizarte Ekintzako zinegotziari, arduraz berri ematen joateko eta, gainera, Udalak berak dituen bitartekoak (udal aldizkariak, Facebook, oholtzak, etab.) erabiliz arriskua jakinaraztea eskatu genion. Jakinarazpena oraindik ez da egin eta jada gure ingurunean beldarrarekin kontaktuei buruzko kasuak ezagutzen hasiak gara. Are gehiago, tamalez, lehenengo maskotak hil dira. Kasu guztietan eredia berdina da eta beldarrek maskotetan eragiten zuten arriskua inork ez zuen ezagutzen. Horregatik, jakinaraztea ona litzatekeela uste dugu eta hemen dator gure galdera: ezagutu nahiko genuke Udalak eta, zehazki, sail arduradunak, hau da, Alkatetzak, udalerrian publizitatea ematea pentsatu al duen.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren esku hartzea.**

Hurrengo eskea edo galde-eskea lehen aipatu dugun dekretuaren harira dator. 132. zenbakia du eta 50 ikurrin erosteari buruzkoa da. Aurrekoari eutsiz, 8 edo 10 ikurrin ordezkatzeko badira, 50 erostea... Udalaren erosketa guztietan irizpide hori jarraituz gero, ez dakit aproposa al den. Dena den, 50 ikurrin erosiko ditugu, ez bestelako banderarik. Leioakoari dagokionez, duela urte batzuk Leioako bandera egin nahi zela aipatu zen, baina, itxuraz, asmoa hor gelditu zen, ez baitugu berri gehiagorik izan. Hori baztertuta, Espainiako banderaz ari naiz. Indarreko legeriaren arabera, irakurri nahi dut Espainiako bandera eta beste bandera edo ikur batzuk erabiltzeari buruzko 39/1981 Legeak 3.1. artikuluan dioena: *“Administrazio Zentralaren, Erakundearen, Erkidegoaren, Probintzia edo Intsulakoen eta Udalekoen eraikin eta establezimendu guztietan Espainiako bandera kanpoaldean jarri behar da eta lehentasunezko tokia izan behar du barrualdean”*. Halaber, lege berak 6.1. artikuluan hurrengoa aipatzen du: *“Espainiako bandera erabiltzen denean, betiere toki nabarmena, ikusgaia eta ohorezkoa izango du”*.

Legeriari eutsiz, lehenik eta behin, honakoa galdetu nahi dugu: Udal honen barrualdean zer lehentasunezko tokitan jarria dago Espainiako bandera? Lehenengo galdera, zer lehentasunezko tokitan jarria dagoen ezagutu nahi dugu eta, bigarren, eske bat da, argi baitago Espainiako bandera Udal honen kanpoaldean jarria dagoela, baina ez, noski, legeak xedatutakoaren arabera, betiere toki nabarmen, ikusgai eta ohorezkoan. Norbaitek eraikina inguratzeko aukera izan badu, ez du Espainiako bandera ikustea lortuko. Espainiako bandera lege ebazpenez jarri zen, tamalez, bandera jartzeko ebazpena beharrezkoa izan zelako, hau da, Udalak lege ebazpenaren ondorioz ipini zuen bandera. Eta non jarri zen? Udalaren teilatuko atzeko aldean eta askoz tamaina txikiagoarekin. Udaletxetik edozein oinezko edo herritar pasatuz gero, ezin dezake ikus. Pixka bat ikusteko, elizako eskailerak igo behar dira eta eskaileretan gora egiten den heinean udaletxera begiratzen bada, apurtxo bat ikus daiteke.



**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkate andrearen** esku hartzea.  
Xabier, galde-eskeak, ez mintzatu hemen banderei buruz, mesedez.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren, Leioako Alderdi Popularrekoaren,** esku hartzea.

Haizerik egiten ez badu, ia ezin daitezke Espainiako banderaren koloreak ikus eta ikurrinari dagozkionek kolorea galdu dute. Haizea badabil, ordea, duela gutxi ikusteko aukera izan nuen bezala, Espainiako bandera eta ikurrina marruskatuak, zarpailak daude.

Eskea argia eta inplizitua da: Udalean Espainiako bandera toki nabarmen, ikusgai eta lehentasunezkoan, gainerakoeekin batera jartzea: Leioako bandera, Bizkaiko bandera, europarra. Eske formala, puntu honetan indarreko legeria jarraitzeko. Oso tristea da hau esan behar izana 2017ko martxoaren 2an. Ulertzen dut EAJri Espainiako bandera ez gustatzea, baina Konstituzioaren sinboloa da eta leioar ugari ordezkatzen du. Are gehiago, leioar asko horrekin identifikatuta dago. Eta, batez ere, herrialde honetako bandera konstituzionala da, lehenengoa eta nagusia, beraz, Estatuko Administrazioaren ordezkariek diren neurrian, lehenengo betebeharra da, nahiz eta gustuko ez izan, legea jarraitzea. Hala, bandera konstituzionalak toki ikusgai, nabarmen eta lehentasunezkoan kokatu behar dira udaletxe honen kanpoaldean. Ildo horri jarraiki, oso tristea da gaurko egunean hau eskatzen aritzea.

Adibide modura, ez legoke gaizki alkateak Bilboko Kale Nagusitik buelta bat ematea eta Aldundiaren eraikina ikustea. Duela gutxi, urtarrilean bertan, Aldundiak, tamalez lege aginduz uste dut, banderak balkoi nagusian jartzeari ekin zion, Kale Nagusiarri begira eta argi eta garbi ikusten dira, toki nabarmenean daudelako. Lege ebazpenik gabe bide hori jarraitzea eskatzen dugu, bide horri eustea, Bizkaiko beste erakunde batzuek egindakoaren antzera. Lege ebazpenik gabe, jar ditzagun Espainiako bandera, ikurrina, Bizkaiko eta Europako banderak nahiz Leioakoa toki nabarmen eta ikusgai, Leioako biztanle guztien nortasuna errespetatzeko. Izan ere, oraintxe hori ez da gertatzen. 50 ikurrin erosten 7.000 euro gastatu ditugu eta ez dugu eragozpenik, inolaz ere, Espainiako bandera gutxietsi eta erdeinatzeko. Halako Administrazioaren ordezkarian, hain zuzen, alkate andrean hori onartezina da, berak baitu aldatzeko ahalmena.

Hortaz, berriz errepikatuko dut galdera: udaletxearen barrualdean Espainiako bandera non dagoen jakin nahi dugu eta herrialde honetako bandera konstituzionalak toki nabarmen, ikusgai eta ohorezkoan jartzea nahi eta eskatzen dugu.

**ELD-Esnatu Leioa Despierta udal taldeko Begoña Juaristi Linacero andrearen** esku hartzea.

Nik informazio bat nahiko nuke. Udalak eskatu ostean, enpresa bat ari da galdeketa egiten telefonoz eta zer den jakin nahi dut. Udalerriarekin zerikusia duten *munduko* galdera mota guztiak egiten dituen galdeketa da. Hala iragartzen ari da, behintzat. Nondik irteten zen hori ikusten saiatu naiz, dagokion dekretua bilatu dut, baina ez dut aurkitu. Agian, ni naiz nondik norainokoa ezagutzen ez duen bakarra, horregatik, galdeketa edo dena delakoa lor al dezakedan jakin nahi dut. Horrez gain, zein da galdeketa helburua. Galdetzen diren gai guztiei erantzuteko ordu erdia behar da. Ildo horri jarraiki, ondorio asko atera daitezkeela pentsatzen dut, baina ez dut inon ikusi.

**Esnatu Leioa Udal taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea.**

Aurtengo aurrekontuko berrikuntzen artean, hirigintzari esleitutako partida orokorrak zehaztasun handirik gabe zeuden. Hazkuntzarik gabe jarriak ageri ziren, baina auzo zehatzetan ekintzak identifikatuak daude. Jada otsaila ere bukatu da, berehala Aste Santuan gaude, udara iritsiko zaigu eta Hirigintza Batzordean gutxi gorabehera jardueren egutegia aurkeztea nahi dugu, auzoetan aplikatuko diren partidei dagokienez.

**Euzko Abertzaleak Udal Taldeko Idoia Blasco Cueva andrearen esku-hartzea.**

Nik, lehendabizi, esker onak eman nahi ditut eta, gero, eskea egingo dut. Dena den, ez dut eztabaidarik sortu nahi, ezta inor haserretu ere. Eta norbait haserretzen bada, jada aldeztu aurretik barkamena eskatzen dut.

Niretzat gardentasuna ez da agintea galtzea, partekatzea baizik, hobetu eta guztiok irabazteko. Ikuspegi horretatik abiatuta, batzordeen buru garen guztiak lanean aritu gara eta eskumena dugun arloetan puntualki egunerokoaren berri ematen saiatzen gara. Halaber, bertan egiten diren galderak erantzuten ditugu, ahal dugunean edo bestelako laguntza behar izateagatik ezin denean, beste batzorde baterako utzi edo atzeratzen dugu. Nire iritziz jarrera bera dute oposizioa osatzen duten pertsona guztiek eta horretan oinarrituta, oposizioa osatzen duten pertsona guztiei eskertu nahi diet. Izan ere, ematen zaien informazioa Leioa oro hobetzeko erabiltzen dute, baita desadostasunetik eta kritika politikotik abiatuta ere. Ez dute bakarrik jendeak gehiago goratzeko egiten.

Ildo horri eutsiz, nire eskea egiarekin leiala izatearen bidetik doa. Gaurko saioan Ogasun Batzordeari dagokion egiarekin ez da leiala izan. Gerakinaren jomugari buruzko galdera bat erantzun zen. Lehenik eta behin, abenduaren 26an Gizarte Zerbitzuen zorroa indarrean sartu zela gogorarazi zen. Aurrekontuetan partida bat genuen eta modu horretan jasoa zegoen, baina lehenengo aldia zenez, zerbitzuaren zorroak izango zuen egiazko kostua ez genuen ezagutzen eta horretarako zegoen gordeta gerakina.

Bigarrenez, etxean gertatzen den bezala, betiere ustekabeak daudela aipatu zen eta horiei aurre egin behar zaie.

Eta, hirugarrenez eta azkenekoz, gogorarazi zen kiroldegia dagoela egiteke. Ziurrenik, kiroldegia dugun gerakina baino askoz garestiagoa izango da eta etorkizuneko belaunaldiak ez ditugu zorpetu behar. Nolanahi ere, etorkizunari begira ez dira duela urte batzuk izandako ohiz kanpoko diru-sarrerak egongo, Udalbatza honek jada ez baititu ikusi. Hala ere, etorkizuneko belaunaldiak zorpetzea ez da komenigarria. Hori da esandakoaren errealitatea.

Arestian aipatu dudan bezala, ahal bada, ez dut eztabaidarik sortu nahi eta nire esku hartzea aktan ez jasotzea gustuko nuke.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkate andrearen esku hartzea.**

Tira, agertu beharko duela uste dut.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren esku hartzea.**

Ez dakit UAA-n eta eztabaidaren logikan sartzen al den gobernu taldeak halako eskea egitea.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkate andrearen** esku hartzea.

Ez, bakarrik leiala izatearen eskea egin du, egiarekiko zintzoa izatearena, hain zuzen ere; galde-eskeetan ez dago eztabaidarik.

**Leioako Alderdi Popularreko Jazael Martínez Esteban jaunaren** esku hartzea.

Bakarrik nire alderdikideak esandakoa zehazteko, oker ez bagaude, eskea egin baino lehen ez dugu esan izan nahi, guztiei hitza ematea garrantzitsua delakoan, baina gobernu taldeak galde-eskeen puntuan ezin dezake parte hartu, ez eskeak eginez, ezta galderak gauzatuz ere. Ildo horri jarraiki, zinegotziak aktan jasotzea ez badu nahi, jaso gabe gelditzea guk ez dugu eragozpenik. Ez dugu kontra egingo. Halaber, ez gara aurka agertuko gobernu taldeko kideek esku hartu nahi badute. Bere egunean Iker Agirrek egin zuen eta ez genuen ezer esan. Dena den, eskea egiteko gobernu taldeko kide bati hitza eman bazaio, aipamena egin da edo norbaiti zerbait adierazi zaio eta zuzentzeko esku har dezakegu.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Beno, nik erantzungo dut. Pinu-beldarrari dagokionez, Juan Carlosek azaldu du lorezaintza zerbitzua nola egiten ari den horren aurka. Uste dut udalerriko herri lurzoruan ditugun 6 edo 7 pinuetan jardun dutela. Formula desberdinak erabiliz 2013az gero egiten ari gara. Formularen artean garrantzitsuenak bitarteko fisikoak eta borroka biologikoa dira, 2012. urteko Errege Dekretua baitago eta produktu fitosanitarioak, etab. erabiltzea mugatuta dago. Komunikazioari buruz, Jazael, balioztatzen ari naiz. Izurrien kontra borrokatzeko aginpidea tokiko administrazioena den bitartean, jada osasun gaietan sartzen garenean, bai animaliena, bai pertsonena. Noski, kezkatzen dit maskotak kutsatzeak eta hain ondorio kaltegarri eta arriskutsuak izateak, hil arte ere, baina ardura handiagoa sortzen dit pertsonen osasunak, batez ere, haurrenak, errazago hurbil baitaitezke zuhaitzen oinetara. Hala, jada urte batzuk badira, hesi fisikoak jartzen ari garela ahalik eta beldar gutxien erortzeko lurzorura. Horregatik, Osasun Sailarekin hitz egin behar dut. Nahiz eta osasun publikoaren eremuan pertsonengan kasurik ez ezagutu, Sail horrekin hitz egin nahi dut, zer neurritan eta nola egin behar dugun ezagutzeko eta pixka bat beraiekin ixteko. Izan ere, biztanleei ematen diegun informazioan erabat zehatzak eta zuzenak izan behar dugu, animalien osasuna (gizakiak eta animaliak) euren eskumena baita, bai Jaurilaritzarena, bai Bizkaiko Foru Aldundiarena.

**Leioako Alderdi Popularreko Jazael Martínez Esteban jaunaren** esku hartzea.

Erantzutea uzten badidazu, arestian gobernu taldeak eskerik ezin dezakeela egin aipatzen nuenean, UAAri erreparatu behar zaio. Bertan xedatutakoaren arabera, galderak eta eskeak gobernu taldeari egiten zaizkio eta irakurriko dut: *“Eskeak udal mailako jarduera proposamenak dira eta Osoko Bilkurako edozein kidek formula ditzake, udal gobernu organo bati zuzentzen badizkie. Ildo horri jarraiki, zinegotzietek ez dute elkar hitz egingo. Gauza bera gertatuko da oposizioko taldeekin”*. Hala, oposizioko taldeei egin die berba, beraz, bakarrik esandakoa ñabartu nahi nuen.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Osoko Bilkurari zuzendu zaiola ulertzen dut.

**Leioako Alderdi Popularreko Jazael Martínez Esteban jaunaren** esku hartzea.

Nire hitzak zehatzak ez direnez izan, horregatik, puntu horrekin argitu nahi nuen. Uste dut 63. artikulua dela.

Eta beldarren gaiari dagokionez, zoriontzekoa da pertsonarik kaltetua ez izatea, pertsonetikiko larritasuna alergia delako. Ni txikitan beldarrekiko alergikoa nintzen eta ez dut uste hori inon atera denik, baina maskoten kasuan, berriz errepikatzen dut alkate andrea, biztanleren baten maskota jada hil da. Ez zen Leioakoa, Erandiokoa baizik. Hortaz, mesedez, eskatuko nuke ahalik eta azkarren balioztatzea eta, noski, eskertzen dugu lan hori egitea.

**Alkate andrea, M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González.**

Ez ditut alergia hutsalduko. Ez gara hemen eztabaidatzen hasiko, are gutxiago ere. Modu berean, kasu honetan, beldarregatik ez ditugu pertsonengan alergia hutsalduko.

Xabier, ikurrinei buruz, Udal honetan araudia betetzen dugu.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Alkate andreak uzten badit, zer puntutan betetzen den araudia jakin nahiko nuke...

**Alkate andrea, M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González.**

Ez, ez da eztabaida, Udal honetan araudia betetzen dugu...

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna.**

Zer puntutan? Hau ez baita edozein gai...

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkate andrearen** esku hartzea.

Xabier, araudia betetzen dugu...

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna.**

Zer puntutan? Lehenik eta behin, udaletxeko zein toki zehatzetan jarria dagoen galdetu dut, ez dut esan araudia betetzen al den.

**Alkate andrea, M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González.**

Fatxada nagusian, araudia betetzen dugu.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna.**

Establezimenduaren barrualdean, non dago?

**Alkate andrea, M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González andrea.**

Xabier, araudia betetzen dugu, ados.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna.**

Talde politiko honek egindako galderari ez zaio erantzun.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkateak** bere esku hartzearekin jarraitu du.

Begoña, galdeketari dagokionez, hau Ikerfelek egindako hirugarren galdeketa da. Udalerriko udal gai desberdinak landu dira. Ikerfelek telefonoz egiten hasi duena dela ulertzen

dut. Aurreko bien modura, une oro emaitzen berri eman dugu. Ez dizut esango galderak erabat berdinak direnik, baina, bai, aurreko bi galdeketetan burututakoen parekoak eta emaitzak ditugunean dagokion batzordean jakinaraziko ditugu. Galdeketa hauek, hiruak, jada bere egunean eskatu ziren.

Ruben, Hirigintza Batzordean auzoetan egingo diren jardueri buruzko informazioa eta egutegia ematea eskatzen zenuen. Nire iritziz, Hirigintza Batzordeetan jarduera desberdinen informazio zabala eskaintzen da. Hala eta guztiz ere, informaziorik ez duzuen gai zehatzen bat baduzue, noski, ez dago inolako arazorik.

Eta Idoiari eskertu nahiko nioke, Ogasun Batzordean esandakoa argitzeagatik.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Lehenik eta behin, ez zaio eskeari, galderari, erantzun; argi dago ezetz. Alkateak ez du erantzunik eskaini. Eskea araudia betetzea da eta, ondorioz, lehentasunezko tokian bandera desberdinak jartzea.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkate andrearen** esku hartzea.

Erantzun dizut. Eskeari erantzun diot.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Alkate andreak uzten badit, Osoko Bilkuraren hasieran talde honek aktarekiko gogoeta egin du eta alkatearen esanetan, galde-eskeen txandan erantzun behar zuen.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Ez dakit hitzez hitz hala aipatu dudan, baina nire esanetan, diru-laguntzak zeuden euskarazko errotuluetarako eta elebidunetarako ere bai. Ez dut besterik esan, ondo oroitzen badut, eta aipatuz gero, zuzentzen dut: diru-laguntzak euskarazko errotuluetarako eta errotulu elebidunetarako dira.

**Leioako Alderdi Popularreko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren** esku hartzea.

Zuzenketa eskertzen dut, hala baita, noski.

Alkate andreak uzten badit, Ogasun Batzordeko buruak esku hartu duenean, UAArekiko irregulartasuna sortu dela ulertzen dut. Ezin badezake esku hartu, ez dugu ulertzen zergatik egin duen Ogasun Batzordeko buruak, are gehiago, ezin diogunean erantzun.

**M<sup>a</sup> del Carmen Urbietta González alkatearen** esku hartzea.

Udaleko idazkariak UA Ak esaten duena gogoratzen du; zerbait eztabaidatu behar baduzue berarekin, egin ezazue beste une batean edo guk geuk egingo dugu beste momentu batean.

Eskerrik asko denoi.

Eta gaueko hamarrak eta sei minutu direnean, Alkatetza-Presidentetzak amaitutzat eman du saioa, eta Idazkari honi agindu dio dagokion akta idazteko, aipatu terminoetan onartua izan zena, eta nik, Idazkari Nagusiak, honen guztiaren gainean fede ematen dut.

O.E.  
ALKATEA,

IDAZKARI NAGUSIA,